

29-1-205888

ISILIK?

pedagogi aldizkaria

1. alea 1982 abendua

HAURRA eta
ELIKADURA

‘LANGILE’ IKASTOLA

PIAGET eta ESKOLA BERRIA



disziplina



BILINTX LIBURUDENDA

EUSKAL KULTURGINTZA, S. A.

Fermín Calbetón, 30 - tel. 420930

Esterlines, 10 - tel. 420224

DONOSTIA - 3

Fermin Calbeton 30ean, euskal liburu eta diska guztiak
aurkituko dituzue.

Esterlines 10ean, Pedagogia, Psikologia, Ekonomia,
Literatura, eta abar...., aurkituko dituzue.

elkar s.a.

Esterlines, 10
Telef. 426319
DONOSTIA-3

EUSKAL LIBURU ETA KANTUEN ARGITALDARIA, S.A

Haur eta gazteentzako liburu eta ipuin aukera ugaria.
AXUT, PERKAX, ITZUL, SOR, eta abar....



Argitaratzaile:
G.I.L.E.

Egileak:
Irakasle, guraso,
sikologo, pedagogo
eta beste.

Diseinugile:
Mikel Mendizabal.

Inprimaketa:
TXUBILLO - Donostia.


Konposaketa:
EGIA - Donostia.

Dep. Leg.:
S.S. 509/82

**GIPUZKOAKO
IKASTOLETAKO
IRAKASLE
ELKARTEAren
ardurapean.**

Oharrak:
Idazlanak bidali nahi
dituenak jo beza
helbide honetara:
Plz. Amezketan, 12 - 8a F
Donostia 20010
Tfnoa: 455100-22

**IRAKASLE ELKARTEA
EZ DA HEMEN
AZALDUTAKO
ERITZIEN ARDURADUN
EGITEN.**



SARRERA	3
HAUR IKASLEAREN ELIKADURA	4
BERTSOLARITZA IRAKASKUNTZAN	10
ANTZERKI TALDE BAT	12
DISZIPLINA:	
IRAKASLEAK DISZIPLINAREN AURREAN	14
REQUIEM Y EPITAFIO	22
ETA DISZIPLINA	25
LANGILE IKASTOLA: Bide berriak urratzen	28
Ideologia eta historia	33
PIAGET ETA ESKOLA	37
Piaget. Bibliografia	41
HAURRA SORTZAILE DENEAN	42
HAUR LITERATURA	45
EUSKAL IRAKASKUNTZA POSIBLE	50
IKASTOLA BETI ESPERIMENTATZEN	50
IKASTOLETAKO ORDEZKARITZA edo gu nagusi	52
GASTEIZTIK DATOR NOTIZIA:	
IKASTOLETAKO ESTATUTOA: ELA; EILAS	54
IKASTOLETAKO ESTATUTOA eta Euskal Eskola	57
ALBISTE OFIZIALAK	61

Salneurria: 150 pzta.



...Ez dugu

abotsa gehiegi jaso,
 baina nahi duenak entzun dezake.
 Entzuteko, entzun arazteko,
 entzunak izan daitezen,
 entzunak izan zaitezten...
 Esateko, adierazteko, azaltzeko, botatzeko, barnetik ateratzeko...
 eta nahi dugun... duzunerako.

Disziplina gai nagusi bezala hartuz, gure hezkuntza munduan interesgarri edo arazo bihurtzen diren gaiak ikutu nahi izan ditugu. Batzuentzat jakinak diren gauzak, besteentzat berriak edo zehatz ikusi gabekoak, denontzat eztabaidagarriak.

Horrelako sarrera antzerako bat egiten hasten garenean beti antzerako gauzak etortzen zaizkigu burura, zihur aski gure "diskurtsoa" ez delako oso orijinala, eta teoriarik zuek guztiok ulertzen eta ezagutzen duzuelako. Dena dela, ez gaur, ez inoiz, ez gara aspertuko, nahiz eta aspergarriak bihurtu, zuen parte hartzea eskatzen. Zuen parte hartze horren nahia eta beharra dugu eta hori gabe alferrik izango zaigu hemen idazten eta gaiak bilatzen aritzea.

"Benetako" lehen ale honetan, egin nahi dugunaren irudi bat agertzen da, zihur aski ez onena edo aproposena, baina gustatuko litzateke, honi buruz, zuen eritzia jasotzea, zuek nolakoa nahi duzuen edo zer gai eta arlo urratu nahi duzuen jakitea.

Piageten eritziak disziplinari buruz, haur batek "bejetarianoki" jan ondoren, Estatutoa eskuetan duelarik, eta bere amari Langilekoek zer egiten duten galdetzerakoan, beste norbaitek Ikastolen Ordezkaritza nola ikusten duen adierazten duen bitartean, guzti hau azal dezakegu, edo arlo bakoitza bakarka, eta oso polita edo itsusia gelditu. Dena dela, lortzen badugu, guraso batek albokoari "Langile" zer den galdetzea, edo beste irakasleak bere albokoari Piagetek bere haur problematikoekin, nola egingo lukeen, edo eta, sukaldari hark irakasleei galdetuko balie zer iruditzen zaien "haragi koipetsu" horiek haurrei ematea, eta abar, oso pozik geldituko ginateke eta gure helburu nagusia beteta geldituko litzateke neurri batetan.

Bueno, ba horixe, saia zaitezte ahal duzuen neurrian hemen azaltzen dena hankaz gora botatzen edo hori egiten duenari ahoa isten, baina egin ezazue zerbait, mugi zaitezte, hau zuen gustokoa izan arte edo itxi arte, hori eskatu nahi genizueke.

Eskatzen dugun hau oso erraz egin dezakezue, "Bic" urdin bat hartu eta gu orain egiten ari garena egin, gero orritxoia sobre batetan sartu eta Irakasle Elkartera bidali, eta "ea zer gertatzen den"...

Jarraituko dugu "tabarra" piska bat ematen...

"Isilik" barruan
 zarataka ibiltzen garenok.



Haur ikaslearen elikadura

Haurra, oraindik egiten ari den organismoa da, hazten ari den zerbait. Etapa honetan izango duen bizimoduak eta biziko duen giroak, bere etorkizunerako markatu egingo dute. Momentu hau izaten da "fabrikazio akatsak" egon daitezken momentua. Dena dela, onartu behar da, haur sano bat hezitzea ez dela erraza. Alde batetik, haurraren inguruan daudenengan (aitonamonak, gurasoak, irakasleak eta beste hainbat "ongile" —haurraren onerako egiten bait dute—) egoten diren ohitura zahar eta txarrak puskatu egin behar ditugu. Eta, bestalde, ohartu behar dugu, bizi garen toki hau ez dela paradisu bat, oihan bat baizik, indartsuenaren legeak agintzen duen tokia: Industria giroa. Haur sano bat hezitzeak, gaur egungo interes komertzial guztien aurka joatea suposatzen du. Industrariak, "diruari loturik dauden eroak", bizitza mespreziatu egiten dute, eta haurraren diru iturri izugarria ikusi. Ondo egindako propaganda pixkat erabiliz, kontsumitu araziko dizkio zerrikeria haundienak, kolorante, saporemaile eta ez dakit zer sariz orniturik. Zer janari eman behar zaio haurrari? Telebistan agertzen den guztiaren aurka jo ezazu eta ziur aski nahikoa asmatuko duzu.

Janaria, osasunarentzat beste ongarri bat

Gure tejidoak osatzen dituzten zelulen bizitasuna, gure elikaduraren araberan dago, ez bakarrik janari egoki edo onak hartzean, baizik eta, digestio eta zelulen aktibitateak ematen diren toxinak eliminatzean. Horregatik, ezin da elikaduraz hitzegun desintoxikazio prozesuaz hitz egin gabe. Jaten dugunak bakarrik ez du izango eragin zuzena gure zelulen elikaduran, bizitza gidatzen duen edozein aurkako faktoreek (zaratak, hozbero estremoak, hezetasunak, oreka emozionalak, ejerzizio ezak, eguzki eta haize faltak, atsedeen gutxi izateak...) organismoa nekatu egiten dute, eta toxikoen eliminatze normala galeratzen dute, tejidoen intoxikazioa eraginez.

Ez da ahaztu behar, osasuna mantentzen duten faktore ezberdinen batasuna eta beren arteko harreman zuzena. Bizitzeko era osoak baldintzatuko du elikadura moeta. Eta haurraren kasuan familiaren bizitzak globalki. Haur bat izugarri jalea izateak, dituen angustia eta insatisfazio batzuen ezaugarri izan daiteke, horrek eramaten duelarik gehiegi jatera. Izan daiteke ere, guraso eta nagusien maitasuna eta onespina irabazteko maniobra bat. Hau ematen da, nagusi askok, jatea dela eta ematen duen problema gutxien araberan, baloratzen dutelako haurra. Ama askorentzat, bere seme-alabekin duen harre-



man bide nagusia jaten ematea da, eta hau ez badu lortzen alfer eta frakasatu sentituko da. Guzti honekin esan nahi dudana zera da, haurraren elikadura planteatzerakoan, askotan soluzioak elikaduratik at aurkituko ditugula.

Haurrak zer jaten duen edo zenbat jaten duen baino inportanteagoa, bazkaria edo afaria zer giroan ematen den da.

Haurrarentzat jatordua, bere gurasoak (edo beste nagusi batzuk) beregandik hurbilen dauden momentua da. Jatordua, bere gurasoekiko harreman iturria da, elikadura iturri izatetik aparte. Lortu behar da, jatordua, guraso eta seme-alaben arteko topaketa atsegin bat bihurtzea.

Zer jan behar dugu?

Gorputzak, maiztasun batekin, kanpo-
tik elementu ezberdinak jaso behar
ditu:

— **Karbono hidratoak** eta **KOIPEA**,
errekin bezala, energi iturri bezala (ga-
solina balitz bezala).

— **Proteinak**: asteko eta eguneroko
desgastea orekatzeko.

— **Bitaminak, gatz mineralak, zelulo-
sa eta ura**; Organismoa ondo "engra-
satuta" mantentzeko (olioa balitz be-
zala).

Zenbat eta hobeto "engrasatuta" egon,
gorputzak desgaste gutxiago jasango
du, "gasolina" gutxiago beharko du eta
zailagoa izango izorratzea (gaisotzea).
Ez da ahaztu behar ere, gorputzak
denboraldi bat pasa dezakeela (izaki
bizi guztiak bezala) ezer jan edo edan
gabe, erreserbetatik elikatu bait daite-
ke. Orain gorputzak behar dituen "ele-
mentu" horiek zer janaritan aurki ditza-
kegun aipatuko dugu:

Karbono hidratoak:

Sinpleak edo azukredunak:

Goxo edo dultze guztietan, fruitu fres-
koetan, fruitu iharretan (maspasak, da-

tilak, pikuak...), platano oso helduan
edo egosian, konpotan edo egosia
dagoen fruituan, mermeladan, ez-tian,
azukre, txokolate eta kakaoan...

Koipe ugaria: Olioia, azeitunak,
intxaurreak (almendra, urra, intxaur,
pinu hazi, kakauesea, kokoa...), esnegaina,
gurina, margarina, arraultzea, haragia
(gehienbat zerriarena), enbutidoak, foie-
gras, frijituak...

Dijestioaren bidez, gorputzak, koipeak
eta almidoiak, azukre sinpleetan bihur-
tu behar ditu, muskulu, zerebro eta
beste zelulek hori behar bait dute.

Proteinak: Esnea eta bere ondo-
koak (mamia, yogurta, gazta...), arraul-
tzeak, intxaurreak (almendra, urra, kaka-
uesea...), perretxikuak, hazi erneak, hara-
gi eta arrainak.

Bitamina eta gatz minera-

lak: Fruitu freskoak, berdura gordina
(entsalada) edo oso gutxi egosia, hazi
erneak, txigortu gabeko intxaurretan,
eta labore integraletan. Bitaminak eta
mineralak galdu egiten dira denbora
asko babesik gabe edo berotan uzten
baditugu.

Zelulosa: hau ez da bereziki janari
edo gizakiak jan dezaken zerbait, baina
hesteetan zirkulapen ona egon dadin
beharrezkoa da. Fruitu, berdura eta
intxaur eta labore integralen azalean
dago.

URA: fruitu freskoetan, entsalada, esne
eta janari egosietan egoten da.



Kantitate gutxiago...

Gure ahultasunaren erruduna, norma-
lean, elikadura-urri bat izan beharrez, in-
toxikazioa eta nekea izaten da. Gehie-
netan, behar duguna baino bi edo hiru
aldiz gehiago jaten dugu, gehiegizko
jate hau izanik gure nekearen iturri
nagusiena. Forma egokienean egote-

ko, tamainan jan behar da, hase gabe,
eta behar den atsedena hartu. Haur
ikasle batek errendimentu fisiko eta
intelektual egoki bat izan dezan, mus-
kuluek eta zerebroak azukrez beteta
egon behar dute eta urdaila hutsik,
dijestio lanik gabe.

Egunean hiru edo lau jatordu egitea
nahikoa da, hauetatik kanpo jatea (ezta
ere zuku, esne, gosoki edo antzera-
koak) ez litzateke egokia izango, dijes-
tio aparatua lan gabe eta deskantsatua
egon dadin hurrengo jatordurako.



Oso zaila, ezinezkoa da behar den kantitate esaktoa jakitea. Pertsona bakoitzak behar ezberdinak ditu eta behar horiek aldakorak dira pertsonaren agoeraren arabera. Egokiena litzateke, momentu bakoitzean, bakoitzak dijestitu dezakeena jatea. Hau berezko jateko gogoak markatuko luke (gatzak, azukre zuriak, alkolak... edo antzerakoek ematen duten gogotik at). Kontsumo gizarte honetan, ahaleginak gutxiago jatera jóango lirake.

Inoiz ez dezagun haur bat jatera behartu, izan daiteke ez duela jateko beharrik, momentu horretan ez duelako dijestio ahalmen nahikoa. Ziur aski hurrengo jatordurako gogo gehiago izango du. Haurra gogo gabe baldin badago, fruitu zuku batek ederki ordezkatu dezake janari oso bat.

Ahaleginduko gara janariak gehiegi ez nahasten, jatuntasuna indartzen duelako (gustoak aldatzean) eta dijestioa zailagoa egiten duelako. Nahikoa da bi plater jatea, bata gordina eta bestea egosia.

Energi falta baldin badugu (nekea, egonezina, gaisotasuna, istripuren bat eta antzerakoak direla eta), ez dago dijestio egokia egiteko ahalmenik, eta alferrik izango zaigu jatea. Gorputzak nahiago du bere indarrak sendatzen erabiltzea, bere erreserbetatik elikatuz, askoz ere erosoago zaiolako. Horrelakoetan, ohean lasai egotea, jatea baino egokiagoa da. Nahikoa izango da zuku natural pixkat edo berdura salda (alkatxofa, ziazerba, zerba eta antzerakoak ezik). Lo egitea edo ilunpean etzanda eta ixilean egotea dagoen janaririk onena izango da berriz indartzeko.

Karbono hidratoak, koipeak eta proteinak dituzten janari konzentratuak neurrian jaten saiatuko gara. Jatordu bakoitzean, sustantzia hauetariko bat izango duen janari bakar bat egongo da. Gehiegizko karga izango da janari batean, egoskariak eta haragia, egoskariak eta arraultzeak, haragia eta gazta, gazta eta arraultzeak, makarroiak eta pastelak... jatea.

Laboreak (ogia, pastak, arroza...) oso dijestio zaila duten janariak dira, haurrak ez lituzke jan behar bi urte izan arte, eta inoiz ez ditu gehiegi jan behar, are gutxiago katarroa baldin badu.

Haurra hazten ari dela eta, beti proteina faltaren beldurrez gabiltza, eta proteina gehiegi ematen diogu. Proteina gehiegi izateak, desintoxikazio organoentzat soberako lana suposatuko du, gehienbat giltzurdin eta gibelarentzat. Honek, epe luze batetan, tejido guztien intoxikazioa ekarriko luke. Haragia, arraina eta egoskariak, kalitate gutxieneko proteinak dira, gorputzarentzat egokiak ez direlarik. Horregatik, haur bati ez bazaizkio gustatzen ez ezazue bortxatu, bizi osoa pasa bait daiteke hauek probatu gabe.

Esnea eta esnekiak, ziur aski, haurrari proteinak emateko modu egokiena da.

Bestela, baditugu arraultzea (hobe gorringoa soilik eta gordinik, edo bestela osorik baina egosia edo uretan pasatuta, frijitua baino), intxaurreak, baina erre edo gatzitu gabe, beratzen jarriak ordu bete lehenago; perretxikuak, edo hazi erneak. Eta haurrari haragi edo egoskariak gustatzen bazaizkio, hobe da ez ditzala egunero jan.

Dieta egokia badaramagu, ez dugu likido gehiago behar. Jatorduetan likido edateak, zuku gastrikoak urtzen ditu, dijestioa zailagoa eginez. Hobe da jatorduetan likidorik ez hartzea edo oso kantitate eta zurrutada txikitzen egitea.

...Eta kalitate gehiago

Ahal dugun neurrian ez dugu sustantzia toxikorik hartuko. Sustantzia toxikoa, gorputzak bereganatu ezin dezakeena da, kanpora bota nahi duena, eta gorputzeko tejidoetatik pasatzerakoan irratitu egiten ditu. Batzuk naturalak dira: Tabakoaren nikotina; kafearen kafeina, teia; txokolate eta kakaoaren teobromina; mikatzak, gatza, ozpina, landare medizinaletan dauden toxikoak, olioaren sulfuroa (berakatz eta kipula gordinetan), saia... beste batzuk

artifizialak: haizearen kutsadura, iturriko uraren kloroa, fluorra, beruna..., azido fosforikoa, Coca Colak dituen kafeina eta azukre zuria, edari gaseosoak dituen gas karbonikoak, frijitu ondoren berotutako olioak dituen akroleinak, kontserbante, saporeemaileak, kolorante eta kimiko gehigarri guztiak, janari industrializatu guztietan agertzen direnak. Honekin batera medikamentu eta txertoak; alkola eta droga guztiak...

Ahalik eta janari naturalenak jan

Gaur egun oso zaila da, guztiz naturala den janaria aurkitzea, lurrari ongarri kimikoak botatzen zaizkiolako, gero landareei "pestizidak"; abereei janari artifizialak eta txertoak ematen zaizkie, antibiotikoak, hormonak; gero janariei gehigarri kimikoak jartzen zaizkie (kontserbante, saporeemaile, kolorante...), honela merkatuan aurki ditzakegun janariak desorekatuak, mineral eta bitamina gabekoak, eta sustantzia toxikoz beteak izaten dira.

Etxean edo eskolan hazi erneak lantzea, eguneroko dietari janari natural pixka bat jartzea izango da, sustantzia kimikorik gabe eta bitamina eta mineral oso aberatsa*.

Ahal dugun neurrian alde batera hutz ditzagun gehiegi errefinaturiko jakiak (azukre zuria, hirin zuria, arroz zuria...), gorputzari mineralak eta bitaminak kentzen bait dizkiote, eta industrializatu-

tako jakiak: latak, gertatutako zopak, bollo eta antzerakoak. Haur batek karameloa jan edo errefreskoak edaten baditu, arazoa ez da bakarrik jan edo edaten duen hori desegokia izatea, baizik eta horrek janari fresko eta naturalak jateko gogo kenduko diola.

Hasi beti jaki gordinezko lehenengo plater batekin: fruitu freskoak gosaritan, eta bazkarietan nahi adina entsalada. Dasta daitezke, hemen gordinik jaten ez diren beste janari batzuk, nahiz eta beste toki batzutan jan: Aza txikitua, ziazerba edo zerba samurrak, piper gorriak, ostertxuriak, endibiak, azalorreak, alkatxofak, azenarioak, lutzarbitxoak, kuiak, txanpinoiak, hazi erneak...

Haurrak ez badu berdura gordina nahi, azenario zuku bat eman dakioke.

Frijitua, frijituta jaten ditugun janariak, jan ditzagun erre edo beratuak. Bitami-


nak eta mineralak mantentzeko era egokiena, ur irakinetan egindako egoste azkarrak dira, presio, olio eta koiperik gabe. Gero, egosi ondoren, bakoitzak jaten duen erara jan dezake.

Ogia txokolatearekin edo odolki ogitar-tekoen ordeztu hau egin dezakegu: Ogi zati bat erdibitzen da, mamia kentzen zaio, alde batean gurina jartzen zaio, eta beste aldean gazta; letxuga hosto bat jarriko diogu eta zerbait gorria (tomate, piper edo erremolatxa rallatua) eta horrela "euskal bokata" goxo bat aterako zaigu.

* "Los germinados en la alimentación" ikusi. Claude Gélineau. INTEGRAL Ed.

Elikadura eta gaisoaldiak

Haur bat gaisorik dagoenean eta mukiak, sukarra, infekzioak, negalak, behe-rakoa, gorakoa, ... duenean, haur horrek bere tejidoetan toxikoen gehiegizko hori bota egin behar duela esan nahi du. Hau gertatzen denean, aztertu beharko genuke zein erru egon den eguneroko bizitzan, janarietan, eta ondorioak atera. Gaisoaldia ez bada momentu batekoa edo kasualitatez gertatutakoa, bizimodu txar baten ondorio baizik, konklusioak ateratzeko bide ego-



kia gertatuko zaigu. Baliteke izandako erru bat janariarena izatea. Gaisoaldiak irauten duen arte, gorputzak ahalik eta indar gehien erabili nahi du sendatze prozesuan, eta guk prozesu honetan laguntzeko egin dezakegun onena ahalik eta atsedean haundiena ematea izango da, bai muskulu aldetik nahiz

dijestio aldetik. Ondoz baten aurrean jar dezagun fruitu zuku bat janariaren ordeztu (beherakoa baldin bada azenariora urtuta, izango da egokiena), edota berdura salda eta ohea ilunpean, gaitzak bere funtzioa bete arte, organismoa toxinez garbitzea, alegia.

Ez da jaten elikatzen duen guztia

Lehenago ere hitzejin dugu esanez atsedena dela janaririk onena gorputza nekatuta dagoenean. Denok ikusi edo sentitu dugu, gauean nekatuta gaude-la, bai fisikoki, bai sikolojikoki, eta gero, zortzi ordu lo egin ondoren, ezer jan gabe, berrituta aurkitzen garela. Hamar urte baino gutxiago duten ikasleek hamar ordu egin beharko lukete lo (3, gau erdia baino lehenago), eta hamar urtetik gorakoek 9 (2,5 gau erdia baino lehenago). Eguerdiko jatorduaren ondoren egokia izango da siesta motz bat egitea, edo, behintzat, itzalean edo ilunpean lasaitasun tarte bat, dijestioa errazago egiteko eta goizean erretako indarrak berritzeko.

Eguzkiaren argirik gabe ez legoke bizitza. Eguneroko hartu beharko genuke

eguzki baina bat, ez beltzago edo beltz jartze arren, ondo elikatuta egoteko baizik. Gure azalak sortzen du (hazteko beharrezkoa) eguzkiaren "ultrabioleta" izpiei esker. Hauek absorbituak izan daitezten, giroaren temperatura bero samarra beharko dugu azalaren xularrak ireki daitezten. Hotz egiten duenean zerbait pentsatu beharko da haizetatik urruti egoteko edo bero sentitze-ko edota eguzkia paseatzen dugun bitartean hartu. Ahalik eta zuzenena izan behar du eguzkia hartze horrek, zuzena (kristaletatik ez dira pasatzen "ultrabioleta" izpi hauek) eta gorputz guztikoa (bularrak edo genitalak eguzkia hartu gabe zigortzea, organu horietan alterazioak probokatzeaz aparte, sikolojikoki afekta dezake haurra, zona

horiek lotsagarri edo indignotzat hartuz). Ez dugu eguzkirik hartu behar erretzen duenean, azala izorratu eta organismo osoa ahultzen duelako. Eguzkiak berotzen duenean tokirik onena itzala da, burua bereziki babestuz.

Oxigenoa biriketarik sartzen da gehienbat, nahiz eta azaleko zelulak zuzenki hartu haizetik (horregatik, oso inportantea da haizeak azala ikutzea biluzik egonik, hotzik egiten ez duenean). Organismoa paseatzerakoan aireatzen da, ejerzizioa egiterakoan, jolasterakoan, abesterakoan, dantzatzerakoan, farre egiterakoan, ahozabalka gaude-nean, hasperen egiterakoan... Gehienbat haize fresko eta garbia dagoen toki batetan egoterakoan.



Tabakoaren keak, suarenak, eskape tuboena, lantegietako tximinienak... gas pozoidunak jaurtikitzen dituzte, odolak duen oxigenoa urrituz.

Temperatura estremoetan ez gara egongo. Bizitza klima bero eta tropikal batetan errazago ematen da. Bai hotz gehiegiak, bai gehiegizko beroak, organismoa nekatu egiten dute. Horregatik, mutur bietatik aldenduko gara, abrigatuz eta gela berotuz hotz egiten duenean, eta itzala bilatuz, biluztuz, eta freskotuz, bero egiten duenean.

Atmosfera ion positiboz kargatuta dago, Lurra, aldiz, negatiboki kargatua aurkitzen da. Ahal dugun neurrian (maiz) lurrarekin kontaktuan egon behar genuke zerua eta Lurraren arteko kontaktu bezala jokatzeko. Gure gorputzetik zehar, elektromagnetiko korronte hauek pasatzea beharrezkoa da bizitza eman dadin. Dena den, egunero elektroizio txiki bat jasaten dugu, ohartu gabe nekaturik. Jantzien ehun sintetikoaren ikutua, gomazko zolak, kotxeen gurrupilak, elektrogailuetatik hain hurbil egoteak (irradi, sukalde, hozgailu, telebista...) eta abarrek positiboki kargatzen garamatza, eta gainera ezin dugu karga hori deskargatu ez bait gaude lurrarekin kontaktuan, porlana, asfaltoa eta gomazko solak direla eta. Kutsadura elektriko hau eman ez dadin, gomazko zolak eta sintetiko erropak ez ditugu erabiliko (gauzez, nahiz egunez), elektrogailuen aurrean ez gara denbora luzean egongo, eta ahal den neurrian hankak hutsik, lurrarekin kontaktuan jarri (belarretan, itsasertzean ibiliz), edota eskuak (baratzetan lanean edo, landare edo zuhaitz bat ikutuz), baita ere gorputz osoa (itsasoan edo



errekan bainatuz, ura oso hotza ez badago).

Haurraren azala elikatu behar da, baina ez kremaz, maitasunez baizik. Kariziatuak, ikutuak, laztanduak, kulunkatuak, bitaminak, gatz mineralak, proteinak... bezain inportantea den jakia da.

Oso ondo elikatua egon arren, "penaz hil daiteke" bat. Zorion ezak gure gorputza nekatu eta pozoin dezake, izorratu arte. Orain dela bi mila urte baino gehiago Aristotelesek esaten zuen, "zoriona norberaren buruarekin gustora egotean datza", eta hau gure buruarekiko dugun eritziaren arabera dago, besteekin harremanetan jartzen garenean, gugandik hurbilen dauden nagusiekin behinik behin (guraso eta irakasleak gehienbat). Zaila izango da haur bati zoriona ematea norbera ez badago bere buruarekin lasai eta gustora*.

Elikadura eskolan

Jaiotzarekin erregali zoragarri bat jaso dugu, bizitza, baina inor ez da gai izan bere funtzionamendu egokia irakasteko. Nola gozatu bizitza bere neurri osoan, zer egin behar da bizi garen gorputza izorra ez dadin, zer egin lehenengo aberiak dituenen? ..., galdera edo kuestio hauei buruzko erantzuna txikitatik jakin behar genuen zerbait da. Eskolan "biharko egunean bizitzan borrokatzeko" behar den dena irakasten da, baina ez "bizitzeko edo bizitzaren artea". Heziketa ez da norbaiti zerbait sartzea, baizik eta bakoitzak banean daraman zerbait ateratzea, bere bilakaera laguntzea ("educere" latinez "atera" edo antzerakoa esan nahi du). Norberaren buruarengan aprezio pixka bat eta bizitzan ilusio minimoa dira irakasleak bete behar dituen baldintzak, haurrak bizitza aprezia dezala nahi badu.

"Bizitzaren edo bizitzeko artea" erakustea oso zaila izango da eskolatan, ohitura zaharren eta industrial interesen aurkako borroka zuzena bait da. Ziur aski, gobernuak eskolentzat eraturako osasun plangintzaren aurka ere joango da (txekeo radiolojiko, txerto, tuberkulazio, eta ur fluoratukin xafarra batzuk, izango dituen plangintza, eta betaurrekoak jarri). Egin beharra ez da zaila izango, bizitzaren aurrean dauden ikuspegi ezberdinen aurrean aurkituko delako, bizitza, osasuna eta gaisoaldiak. Gaur eguneko zibilizazioa egunero, etengabe, bizitzaren aurka azaltzen da. Eskola sisteman integratzeko beste modu bat da. Bizitza gozatzeko irakastea, eginkizun subersiboa da, sistemen aurka jokatzeko da.

Eneko Landaburu



* "El niño feliz. Su clave psicológica" Dorothy Corkille Briggs. Ed. GEDISA.

Dieta osotua

ESKOLA IKASLE OSASUNTU BATENTZAT ASTEKO DIETAREN ADIBIDE BAT				
	GOIZA (7-9 or.) FRUITU OTORDUA	EGUERDIA (12-1 or.) ALMIDOI ETA KOIPE OTORDUA	ASKARIA (5 or.)	AFARIA (8 or.) OTORDU PROTEIKOA
ASTELEHENA	— FRUITU FRESKOAK — YOGOURTA edo ESNEA — FRUITU IHAR GOZOAK edo EZTIA edo MERMELADA edo MEMBRILLOA	BARAZKI GORDINAK ENTSALADAN PASTA EGOSIAK 10 ARBENDOLA (zuritu eta beratuak)	FRUITU FRESKOAK edo / eta FRUITU IHAR GOZOAK	Gutziz egosi gabeko BARAZKIAK GAZTANBERA edo HARAGIA edo ARRAINA
ASTEARTEA	— FRUITU FRESKOAK — YOGOURTAK edo ESNEA edo EZTIA edo MERMELADA edo IRASAGARRA (menbrilloa)	BARAZKI GORDINAK ENTSALADAN BARAZKI PATATAK gurina edo esnegainaz 1 edo 2 GAZTATXO (zatitan datorren gazta)	OGI ERREA GURINEKIN	Gutziz egosi gabeko BARAZKIAK GAZTANBERA edo YOGOURTA edo 20 ARBENDOLA (almendra)
ASTEAZKENA	— FRUITU FRESKOAK — YOGOURTA edo ESNEA — FRUITU IHAR GOZOAK edo EZTIA edo MERMELADA edo IRASAGARRA	BARAZKI GORDINAK ENTSALADAN BARAZKI PAELLA ARRAULTZE BATEKIN EDO OILASKO HARAGIREKIN	FRUITU FRESKOAK edo / eta FRUITU IHAR GOZOAK	Gutziz egosi gabeko BARAZKIAK GAZTANBERA edo YOGOURTA edo MAMIA
OSTEGUNA	— FRUITU FRESKOAK — YOGOURTA edo ESNEA — FRUITU IHAR GOZOAK edo EZTIA edo MERMELADA edo IRASAGARRA	BARAZKI GORDINAK ENTSALADAN EGOSKARIAK (1/2) PATATAKIN (1/2) OLIO EDO GURINEAN	OGI ERREA GURIN edo ESNEGAIN FRESKOREKIN	AZIDOAK EZ DIREN FRUITU FRESKOAK ERRETA edo KONPOTAN FRUITU IHAR GOZOAK edo EZTIA edo MERMELADA YOGOURT edo MAMIA
OSTIRALA	— FRUITU FRESKOAK — YOGOURTA edo ESNEA — FRUITU IHAR GOZOAK edo EZTIA edo MERMELADA edo IRASAGARRA	BARAZKI GORDINAK ENTSALADAN GURINEAN edo ESNEGAIN FRESKOAN EGOSITAKO PASTAK 10 ARBENDOLA (beratu eta zurituak)	FRUITU FRESKOAK edo / eta FRUITU IHAR GOZOAK	Gutziz egosi gabeko BARAZKIAK HARAGIA edo ARRAINA edo GAZTANBERA ARRAULTZE BAT (gorringo gordin/egosia)
LARUNBATA	— FRUITU FRESKOAK — YOGOURTA edo ESNEA — FRUITU IHAR GOZOAK edo EZTIA edo MERMELADA edo IRASAGARRA	BARAZKI GORDINAK ENTSALADAN HARAGIA PATATAKIN edo ENTSALADA ERRUSIAR ERARA	OGI ERREA GURINA edo ESNEGAIN FRESKOREKIN	Gutziz egosi gabeko BARAZKIAK GAZTANBERA, GAZTA FRESKOA edo YOGOURTA edo 20 ARBENDOLA
IGANDEA	— FRUITU FRESKOAK — YOGOURTAK edo ESNEA — FRUITU IHAR GOZOAK edo EZTIA edo MERMELADA edo IRASAGARRA	BARAZKI GORDINAK ENTSALADAN BARAZKI PAELLA ARRAULTZE EGOSI BATEKIN edo ILASKO HARAGIA edo PATATA ARRAULTZOPILA	OGI ERREA GURINA edo ESNEGAIN FRESKOREKIN	AZIDOAK EZ DIREN FRUITU FRESKOAK KONPOTAN edo ERREAK FRUITU IHAR GOZOAK YOGOURTA edo MAMIA edo GAZTA FRESKO URTUA

GLIZIDOAK					PROTEINAK		KQIPEAK	BARAZKIAK						
AZUKRE SINPLEAK					LEKADUN IHARRAK	GIHARRAK	KOIPEAK	ARINKI ALMIDOIATUAK	ERDI ALMIDOIATUAK					
FRUITUAK														
GARRATZAK	ERDI GARRATZAK	GOZOAK	IHARTUAK	NEUTROAK										
LARANJA	MARRUBIA	DATILA	PAXA	MELOIA	E	AZUKREAK	LABOREAK	Babarrunak	GAZTA-BERRI	PASTA EGOSI	E	OLIOAK	ZERBA	AZENARIOA
MANDARINA	TOMATEA	PIKUA	PIKUA	ANGURRIA	Z	MERMELADA	OGIA, PASTAK	DILISTAK	GAZTANBERA	REN GAZTAK	S	GURINA	AZA	Erremolatxa
KLEMENT.	MERTXIKA	MAHATSA	ARANA	(sandia)	T	IRASAGARRA	IRINAK	ILARRAK	MAMIA	(gruyere, emental...)	N	ESNEGAIN	AZALORE	Lutxarbitxo
LIMOIA	SAGARRA	SAGARRA	DATILA		I	(menbrilloa)	LABORE	SOJA	YOGOURTA	INTXAURRAK	E	FRESKOA	UHAZA	ARBIA
POMELOA	UDAREA	UDAREA	OREJOIA		A	SIROPEAK	MALUTAK	Garbantzuak		KOKO	A	OLIBA	ESPINAKA	PIPIA
GRANADA	MUXIKA	BANANA	BANANA				GARIMAMI	BABAK		ARBENDOLA	K	AGUAKATEA	KUIA	ALKATXOFA
Larramahatsa	MAHATSA		SAGARRA				ARROZA			URRAK			KUI-LUZE	BRUSELASKO
	ARANA						ARTOA			PIPITAK...			LEKA	AZA
	GEREZIA						GARIA			ARRAULTZE			PIPARRA	ILAR
							MIJOA			GORRINGOA			PORRUA	
							OLOA,			GAZTA MINA			PORRUA	
							ZEKALEA...			HARAGI			FRANTZES	
							PATATA			ZAINTSUAK			PORRUA	
							PATATA						BERXENA	
							GAZTAINA						ENDIBIA	
							BONIATO						TXANPINOIA	
							JUKA							



Bertsolaritza irakaskuntzan

Gipuzkoako Ikastolen Elkartek, Gipuzkoako Foru Diputazioaren babesean aurrera daraman plangintza da "Bertsolaritza Irakaskuntzan" hau.

Duela bi urte hasi zen, nolabait, lehen urratsak prestatzen eta ematen "Eskolarteko bertsolari gaztetxoek txapelketa" ospatuaz, bere akats eta hutsuneekin, zalantzarik gabe.

Izan ere, hotz-hotzean hasi eta txapelketa bat antolatzea, nahiko gogorra bait da, aurrez ez bada lantzen eta gertutzen bide hori. Guzti honek, eskoletako gaztetxoekin seriotasunezko lan bat egin behar zela adierazten zuen, eta urtean zehar, noski, (giroa sortu, ariketak egin, erraztasunak eman, e.a.). Bide hori urratzeak lan asko eta zaila eskatzen zuen gainera. G.I.E.K., lan horretarako, liberatu bat jartzea erabaki zuen, Foru Diputazioak babesturik.

Liberatutako pertsona horren zeregina lehen aipatu ditugun lan horietan egongo litzateke (giroa sortu ikastetxeetan, materialak ateratzeko bideak egin eta banatu, bailara bakoitzean arduradunak aurkitu eta horiekin harremanetan egon, txapelketak, ikastaroak, e.a. antolatu eta zuzendu, e.a.).

1982 urtean hasi eta orain arte igaro izan den denbora kontutan harturik, gure plangintza honela bana dezakegu:

- a.— Orain arteko urratsak eta ekintzak.
- b.— Eskuarlean darabiltzagun lan eta zereginak.
- c.— Geroari begira darabiltzagun asmo eta betebeharrak.

ORAIN ARTEKO URRATSAK ETA EKINTZAK honela bil ditzakegu:

1982ko Otsailean, hasi eta berehala, "Eskolarteko bertsolari gaztetxoek txapelketa" antolatu genuen. Lehenbizi bailaraka eginez, 2 semifinal ospatu ziren: Arrasaten bata, Lenitz bailara eta Kosta-Urolaldekoak partaide zirela; Hernanin bestea, Donostia-Oihartzun eta Goiherri-Tolosaldekoek osatzen zutelarik. Saio hauetatik onentsuenak hautatu eta Donostian ospatu zen finala. Txapelketa hau bi mailatan eratu zen adinari zegokionez: 13 urte bitartekoentzat eta 14-17 artekoentzat. Aldi berean bi txapelketa moeta izan ziren: bertso-paperak edo txapelketa idatzia eta bapateko edo ahozko txapelketa.

Bestalde, era honetako txapelketak gaztetxoentzat "motibatzaile" zirela ikusi genuen bertsozaletzeko, sariak, ibilaldiak, e.a. kontutan izanik.

Baita ere, orain arteko urratsetako bat zera izan da: ikastetxe gehientsuenetan irakasle arduradun bat aukeratzea, ikastetxe bakoitzean eta gela barnean, batez ere, bertsozaletasuna piztu arazteko eta arduradun horiek elkarrekin harremanetan egoteko.

Guzti horrek, eskuartean erabiltzeko eta maneiatzeko zenbait materiale eskatzen du; horien artean, Joanito Dorronsooren "Bertsotan" liburua eta irakasleentzat gida liburua eta Xabier Amuritzaren "Hiztegi errimatua" eta "Hitzaren kirol nazionala" aipa ditzakegu.

Ariketa guzti hauek praktikotasun bat izateko, zenbait bertso saio eta jaialdi eratuak izan dira gaztetxo horientzat, zaletasuna sendotu eta trebetasuna hartzeko.

Orain arteko urratsen artean, aurtengo udan ospatua den ikastaroa ere sar genezake. Ihaz ere ospatu zen era honetako ikastaro bat. Hala baina, helburuak nahiko ezberdinak izan ditezke.

Ihaz ospatu zen horretan moeta askotako partaideak izan ziren: irakasleak,




ikasleak, bertsolari izan nahi zutenak, e.a. Aste batetako epean lantzeko helburu gehiegi zeudela ikusirik, helburu zehatz batekin eraman da aurrera aurtengo ikastaroa; alegia, irakasleak prestatzea eta gertutzea, ikastetxeetan bertsozaletasuna xertatzeko. Beraz, gehienbat irakaskuntzari begira egina da. Ikastaro honetatik fruiturik sor daiteke, hogeiren bat herritako irakasleak bildu bait dira, gero nor bere gelan lan egiteko prestatu direnak.

ESKUARTEAN DARABILTZAGUN LANEN AIPAMENAK, momentuko zereginetan sartzeko gaitu. Garrantzi gehien daukaten lanen artean, ikastaro horren helburuak betetzen hastea eta aurrera eramatea izango litzateke, lan baten hasera eta prestaketa bat besterik ez bait da izan ikastaro hori. Beraz, momentuko lanik garrantzitsuenak, ahalik eta irakasle gehien prestatzea da, ahalik eta ikastetxe gehienetan sar dadin giro hori eta erne dadin bertsozaletasuna. Horretarako, noski, komeni diren materialak ere gertutzea eta banatzea ezinbestekoa dugu, doinu aukeratuen grabapenak, bere letraren kopiak, haur eta gaztetxoek bizi dituzten gaiak eta pentsamoldeak erabiliaz, esate baterako. Guzti honek, bai bailaraka bai auzoka ikastetxeak elkartu eta besteekin harremanetan jartzea eta egotea eskatzen du, bere arduradun eta guzti.

GEROARI BEGIRA ETA GEROKO EGINKIZUNAK gai harturik, aipa beharko genituzke, hirugarren bertsolari gaztetxoek txapelketaren ospaketa, nola beharko luken eta noiz erabakiaz, nolabait, haurrentzat motibatzaile dela ikusirik eta haurrengan eragina baduela pentsatuz.

Baita ere, datorren urteko ikastaroak, noiz eta nola, zer helburuz, e.a. Zer esanik ez, ikastola barneko lan hori gero eta egokiagoa, zabalagoa eta zehatzagoa gertatzea. Azken batean, "Bertsolaritza Irakaskuntzan" plangintzak eskatzen dituen urratsak ematea, besterik gabe.

Mikel Mendizabal
Ikastolen Federazioko
bertsolaritzarako arduraduna



Antzerki talde bat

ORAINen erronka bat planteiatuta dugu. Erronka hau, "antzerkia" lortzean datza, antzerkia arte bezala, antzerkia bere funtzio sozialean, antzerkia berrikuntza estetikoan, ekintza eta ideian hurbiltze eta sakabanatzea, hitz batetan antzerkia ekintza bizia bezala. Guzti hau nahastuz, eta ahalik eta koerentzia haundienaz egiten ditugu gure lanak, bai haurrentzat, bai nagusientzat.

Haurarentzat antzerkian zentratuz, gure azkenengo obra "KULUSKAKA" (nolabait deitu behar geniolako) da. Gidoia denon artean egin dugu, gero bakoitzak bere lana betetzen du, aktoreek aktuatu eta zuzendariak zuzendu. Hau akklaratu beharrekoa iruditzen zaigu, pentsa ez dezazuen denok batera goazela, gero garbiago azaltzen ari da bakoitzak gure taldearen barruan dugun lana eta bete beharra. KULUSKAKA fantasia bat da, bere izebaren galtzerdiak galdu dituen arlekin txiki baten ametsa. Gaia oso sinplea da. Honekin haurra antzerkiaren lilurara (majiara) hurbiltzea nahi izan dugu. Antzerkira toki bezala (rezinto itxi bezala) adibidez, gure lana toki itxi batetan antzeztu behar dugu, iluntasun osoa egin dadin, argiaren jokua ikus eta nabari dadin, eta oihalak (teloiak) sorpresa elementu bezala joka dezan, eszenarioa erakutsiz. Gure estetiko estiloa hobetu nahi izan dugu haurarentzat egiten dugun antzerkian. Urtetan zehar, gertatzen genituen lanak kalean egiteko egokitzen genituen, hau ondo uler dadila nahi dugu, ez genuen kale antzerkia egiten, antzerkia kalean baizik, horregatik sarritan oso lan efektiboa izaten zen, baina neurri haundi batetan estetika galtzen zen.

Horrela, espektakulu txiki bat egin nahi izan dugu, inongo esanondore gabeko antzez joku bat, delikatua eta gogorra, arina eta irudipentsua, musikaz horniturik (hortarako Amaia Zubiriak eta Xabi Lasak antzerki hontarako oso musika aproposa egin digute) eta ekintza bakoitzaren denbora ondo neurtuz, eszena ezberdinak gehiegi luza ez daitezten, eta haurren atentzioa eten gabe beregana ez dezaten.

Pozik gaude egin dugunarekin, baina noski, hurrengo obretan hobetzeko asmoa dugu. Baliteke harrigarri samarra iruditzea, gure montaiaren planteamenduak azaltzerakoan, ez ikutzea pedagogi alderdia, baina konbentzitura gaude, edozein antzez lanak, berezko era batetan, jasotzen dituela behar diren baldintza guztiak, irudimena, hitza, sikomtrizitatea, musikalitatea, kolorea. Gu ez gara pedagogian oinarritzen antzerkia egiteko. Antzerkia arte osoa bezala, beste batzuk dauden bezala, ikusten dugu, eta iruditzen zaigu pedagogia egiteko aprobeitza daitekeela.

Nagusientzat egiten dugun antzerkiari buruz, gure lana ikastea, hobetzea eta berriz, egiteko modu egokien aurkitzera bideratuta



dago. Hau hobeto esplikatu dugu. Garai bat pasa dugu, luzeegia, antzerkia, politika klabe batzuk emateko, farsak egiteko eta karga ideolojiko haundia zeramaten obrak egiteko, erabiliz, azken finean "lurazpiko" antzerkia egiten. Hortarako, beharrezkoa zen hizkuntza erabili dugu, beharrezkoa zen eszenarioa; eta modu batean normala zen. Gure inguruarekin kontsekuenteak baginen eta gure bizitzeko moduz kezkatuta bageunden, horrek ahalik eta egokien agertu behar zuen gure antzerkian, ez zegoen "florituarik" egiteko astirik, zuzenak izan behar genuen. Gaur egun, helburu hauek ahaztu gabe, pretentsio haundiagoak ditugu, gehiago zaintzen dugu forma artistikoa, antzerkia arte bezala gehiago sakontzen eta bilakatzen dugu, eta gure antzerki zaletasunari satisfazio haundiagoa eman. Bidea konplikatu egin zaigu, asko ikasi behar dugu, baina aberatsagoa da, zabalagoa.

Egia da, Euskadin antzerki mundua bilakatu gabe dagoela, ezer edo oso gutxi aurreratu dugula, eta uste dugu (baliteke oso inoxenteak izatea) dena egin gabe baldin badago, etorkizuna dagoela, eta antzerkiaren egungo egoera latzaren alde guztiak ezagutzen ditugunok, zerbait egin behar dugula, "subdesarroi" honetatik atera dadin, herri bezala ditugun berezitasunak galdu gabe.

Horregatik, antzerkia eskolan defenditzen dugu, uste dugu antzerkia ezagutu egin behar dela maite ahal izateko. Arte guztiek bezala, ikaste prozesu bat behar du, bai parte hartuz, antzerkia eginez, bai ikusiz. Literario arloa eta alderdi aktiboa, aktorearena bereziki, oso alderdi inportanteak dira, datozten belaunaldiek, antzerkia arte bezala eta dibertimentu bezala eskain eta esiji dezaten. Hori antzerkia ezagutzeari dagokionez; inork ukatzen ez duen bezala, musikak, literaturak edo pinturak ezagutu egin behar dutela. Eskolan praktikatzeari dagokionez, uste dugu gauza asko eskain dezakela. Aktore baten presta-

kuntzan, alderdi fisikoa, gorputz ariketak, erritmoa eta akrobaziak, irudimena lantzen duten inprobisazioak, talde lan, abotsa, eszena ezberdinen prestakuntza... lantzen ditugu. Guzti hau ez dago bereziki nagusientzat prestatua, haurrak era naturalago batean onartzen ditu hauek, ez da hain gogorra, nahiz eta berarekin egingo diren sesioak disziplina konkretu batetaz tratatu behar. Guzti hau, antzerkia egiteak eskaintzen duen arlo oso inportante bat ahaztu gabe, "besteekiko askatzea".

Guzti hau aktorearen prestakuntzari dagokionez, baina "lana" hasten denean, oso interesgarria den beste mundu bat irekitzen da: obraren muntaiaren inguruan sakondu behar den guztia. Honek kulturalki prestatzen gaitu, garai ezberdinetan, objetoetan, formetan, espazioetan etabarretan ikertu eta sakontzera garamatza. Modu berdinean egingo dugu haurrarekin, zuzenki parte hartzera bultzatuz, bere gaitasunaren neurrian erresponsabilitatea emanez, eta entzunez.

Gu antzerkilariak gara, horregatik erraz desbidera gaitzke, haurrarekin antzerkia nola egin daiteken esaterakoan. Hori dela eta uste dugu, momentu honetan, irakasleak direla bere antzerki klaseak eramanez behar dituztenak, eskola bakoitzean bat agian, baina heuren haurrekin harremanean esperientzia dutenez, sakondu egin beharko lukete, antzerkian parte hartu, aktore izatea zer den deskubritu (uste dugu edonor izan daitekela aktorea, beste gauza bat da apartekoa izatea) eta horrela haurrei transmititu.

Orainen antzerki tailerra osatu dugu. Egunero funtzionatzen du eta bertan ematen ditugun klaseek alderdi ezberdinak jasotzen dituzte: fisikoa, inprobisazioa, interpretazioa, abotsa eta material ezberdinekin lana (maskara edo mozorroak egin, eszenografia, e.a.). Klase guztietan parte har daiteke, arratsaldeko 6etan hasten dira, 8ak arte. Nahi izanez gero arlo konkretu bat soilik landu daiteke, denetan parte hartu gabe, abotsa edo materialgintza.

Donostian gaude, Duque de Mandas-en, Talleres Municipales deritzan etxean, 2. pisuan. Nahi duzuen kontsulta edo laguntza eskaintzeko prest gaude.

Euskadiko antzerkia lortzen lagundu nahi dugu. Gure kulturaren gauza asko dago beraiengan oinarritzeko, kontserbatzeko eta gure antzerkiera egokitzeko. Bideak eta egiteko moduak asko dira, horregatik pixkana pixkana asko izan behar dugu antzerkia maitatuz, hortaz saiatu behar dugunok, eta hori izango da benetako antzerkia edukitzeko modu bakarra.



DISZIPLINA

Betidanik esan ohi da entrebista dela kazetaritzaren arlorik zailena. Zihur aski hori dela eta gu galdu egin gara piskabat, metodo hori "disziplina" tratatzerakoan hartu dugunean.

Hasieran eskema eta galdekizun zehatz batzuk hartu genituen, esan nahi genuena garbi adieraz zedin, baina gero elkarrizketa luze eta jende askoren artean izanik, haria galdu egin dugu piskabat.

Dena dela eta "Disziplina" izenburu bezala hartuta, irakasle ezberdin batzuekin entrebista bat egin genuen, luzea eta nahastua, baina hemen dago. Gauza asko ezagunak dira, beste batzuk berriak edo hain aipatuak ez direnak.

Hemen duzue handik atera dena eta bakoitzak atera ditzala ondorioak. Ez du hari lojiko eta zuzena jarraitzen eta baliteke batzuetan zuek ere hau irakurtzerakoan galduta aurkitzea, baina uste dugu pena merezi dutela irakasle batzuen eritziek gai polemiko honi buruz.

Gai hau hiru ikuspegi ezberdinetatik aztertu nahi izan dugu. Lehenengoa, eta entrebista bidez, irakasle talde batekin hitz egin dugu, eguneroko problemak ikutu edo ikutzea nahi izan dugu. Bigarren, pedagogoko baten ikuspegitik, berak gai honetaz egindako erreflexio batzuen bidez, eta azkenik psikologo batek azaltzen digu bere ikuspegi edo berak nola ikusten duen gai honetaz egungo egoera.

Irakasleak disziplinaren aurrean

ISILIK: Disziplinaz, konzepto orokor bezala, zer ulertzen da?

Carlos: Produkto sozial bat da. Dinamika batetik sortutako zerbait, Taldearen arabera, gelaren arabera.

Disziplina soziala eta disziplina pertsonala bereiztu beharko lirateke. Gelakoa, taldekkoa eta norberarena, autodisziplina. Hemen talde disziplina definituko dugu.

Kepa: Elkar bizitzarako behar diren arau batzuk finkatzea, hau da, "disziplina" tradizionalki ulertzen den bezala **ez egotea**. Elkar bizitzarako taldeak jartzen dituen arauak. Hau elkar bizitza hasterakoan gauzatzen da, **harreman ezberdinek gauzatuko dituzte arau ezberdinak**. Disziplina, gelatik, talde dinamikatik sortu behar da.

Mikel: Talde lan bat egon dadin ezin-bestekoa da arau multzo bat.

Joserra: Ez nago aurrekoen definizioekin ados, hori ideala litzateke, nahiko genukeena, baina hori momentu honetan gela barnean beste modu batetan ematen da.

Disziplinak bi esanahi ditu, disziplina aktibitate bezala, gai bakoitzak bere arau konkretuak ditu. Adibidez, marrazki edo eskulan aktibitate batetan, garbi dago margoak puskatzen baldin badira, ez dagoela marrazkiak egiterik.

Disziplina ezberdinak **gai ezberdinak** dira.

Konbibentzia guztietan dauden arau tazitoak, bakandu egiten dira, aktibitate, konbibentzia eta harremanak bereiztu

gabe, orduan arau horiek inposatzean ilojikoak bihurtzen dira. Arau isolatu horiei deitzen zaie disziplina, eta ez irakasleak, ez haurrek ez diote lojekarik ikusten, orduan zapaltzaile, ilojiko, absurdo... bihurtzen dira. Edozein zentrotako barnearauak oso ilojiko eta isolatuak dira (ez hitzegin, ez korrika egin...) eta ez dute inongo harremanik dinamika espontaneoarekin.

Mikel: Baina hori, batzuk arau horiek ez dituztelako errespetatu eta abusatu egin dutelako ematen da, orduan inposatu egin behar dira.

ISILIK: Hau gela barruan nola ikusten da, bakoitzak ze harreman duzue, nola egiten duzue bete behar horiek bete daitezten...?

Honekin batera bi arau moeta leudeke, gela barneko arauak, eta ikastetxe barruko araudi orokorrak ze eragin duen gela barnean. Eta ikastetxeko arau orokor horrek ze eragin izan dezakeen bakoitzarengan.

Kepa: Edozein planteamenturen aurrean kontutan izan behar dugu gela edo eskola harremanak ez direla parezkoak, irakaslea eta haurra ez bait daude pare parean. Horrek suposatuko du irakaslearen baitan dagoen ikuspegia aterako dela beti garaile, bere helburuek markatuko dutela gelaren dinamika. Baina hemen dago gehienetan arazoa, irakasleak ba ote ditu helburu garbi batzuk?, horrek suposa dezake gela hortako konbibilitate arauak zeharo ilojikoak izatea, aldakorak, haurraren errealitatea jasotzen ez dutenak... Eta, zoritxarrez, irakasleak ez ditu helburuak garbi, soil soilik (eta ez beti) helburu akademikoak, eta hori horrela izanik edozein harreman berez kutsatuta gelditzen da, helburu akademikoak ez bait dira gelaren helburuak.

Gaiak ematerakoan elkar bizitza izorrratu egiten da. Akademiko helburuak betetzerakoan garbi gelditzen da irakaslea goian dagoela eta haurrak behean, eta hori ez da elkar bizitza. Eta hau askoz ere sakonagoa edo grabeagoa izango da helburu orokorrak ez badaude irakaslearen buruan.

Guzti hau modu ezberdinetan ematen da eskolaurrean, O.H.O.eko 1. edo 2. etapan.


Carlos: Ni bigarren etapan nago, orain dela urte t'erdi Piageten hildotik abiatzen hasi gara.

Nahiz eta dinamika ireki bat sartu edo eraman nahi izan (gelako asanblada, talde lana...) problema ezberdinak sortzen dira. Bai irakaslearen aldetik baita ikasleen aldetik ere, eskola ez bait da elementu isolatu bat, eta bizitzan, katean eta etxean dauden arau ezberdinek eragin handia dute eta gu (irakasleok) horien dinamikan sartzen garela, nagusiaren papera jokatuz (zu isilik, zu horra...).

Nahiko genuke irakaslearen irudia kentzea eta haurrek marka dezaketan dinamikan murgiltzea, gaiak beren nahien arabera landuz...

Nahi dena zera da, helburu akademikoak puskatu eta benetan berdinen arteko konbibilitate sortu.

Mikel: Ni zurekin ados nago, baina puntu batzuk bereiztu egingo nituzke. Eskolaurrean eta 1. etapan irakasle bat bait dago, baina 2. etapan irakasle ezberdinak; honek gehienetan koordinatze bat ez dagoelako, bakoitza bere aldetik doalako... asko mugatzen du bakoitzaren lana, kriterio ezberdinak daude, ez dago batasunik eta, azken finean, ez dago ikuspegi pedagogiko garbirik. Bakoitzak bere "prestijioarekin" jokatuz, edukiak emanaz, "helburuak" betetzen dira eta bere lana hor finkatu eta bukatzen da.



Edukiek programaketa guztiz mugatzen dute eta horien arabera doa aktibitate osoa, haurrek zer ikusirik ez dutelarik. Bakoitzaren (irak.) arazoa besteen aktibitateak mugatzen du, eta horrek izugarriko desbarajustea dakar, bakoitzak bere arau eta metodo "partikularrak" bait ditu, eta haurraren desorientazio izugarria sortzen da, aurkitzen bait dira ez helburu, ez eredu garbirik ez dutela.

Joserra: Lehen Kepak esan du eskolan haurra behean eta irakaslea goian daudela, jerarkizazioa ez da nahita nahiezkoa, berezi egin behar dira jerarkia eta diferentzia. Haurra eta irakaslearen artean diferentzia badago (funtzio ezberdinak), baina honek ez du esan nahi beti jerarkizazio bat eman behar denik. Antzerki talde batetan, argien arduradunak eta dekoratzaileak funtzio ezberdinak dituzte, baina bere artean ez dago jerarkizatorik. Ikasleen artean badaude funtzio ezberdinak, baina ez dira beti eta sistematikoki jerarkizazioak ematen. Azken finean, jerarkizazio hori, guk, irakasleok, sortzen dugu.



Disziplina bi punturekin lotuta joango litzateke, **gaiaren arrazoitasuna** eta **motibazioarekin**. Zenbat eta gai bat atraktiboagoa izan orduan eta "disziplina" gutxiago behar da, disziplina zentzu klasiko batetan. Era berdinean, haurra zenbat eta motibatuago egon orduan eta gutxiago zirikatu behar edo estimulatu behar.

Eskolaurrean eta oraindik 1. etapan inportantea haurra da, irakaslearen aldetik interes pedagogiko batzuk daude, haurren nortasuna landu behar da... hau piskana piskana diferentziatzen doa, eta BUPen ez da pedagogiaz hitzegiten, hau ez da esistitzen. Non dago eten hori?

Pedagogi oso batetatik (eskolaurrean) zergatik pasatzen da BUPen (azken estremo bezala) pedagogiaren arrastorik gabeko aktibitate batetara?

Nire prestakuntza txarra denean eta gaia astuna, orduan disziplina, zentzu txar batetan, gero eta erabiliagoa da. Gai atsegin eta haurraren erraz heltzen dena bada, orduan eta inposatze gutxiago behar da.

ISILIK: Uka ezinezkoa da, gaur eguneko pedagogia inposatzailea dela. Eta nahiz eta gaia polita izan, irakasleak bere inposatzearekin, disziplina erabiliz eta abarrekin, edozein gai izarra dezakela.

Aurreko horrekin, gehiegi ez zaretela busti zuen erantzune-kin esan nahi dugu.

Joserra: Bueno... Saioka oso metodo ona izan daiteke, eta oso egokia plangintza bezala, baina irakasle batek testu liburu bezala hartzen badu, pikutara bota dezake Saiokaren baliagarritasun guztia.

Carlos: Ez da irakasleak gaia menperatu egin behar duela (zientifikoki), **baizik eta jakin behar da nola ematen den gai hori haurraren**.

Joserra: Disziplina beti ematen da. Baina gaiaren berezitasunek hori haunditu edo erosoagoa egin dezakete.



BUPen asistentzia falta, izugarri ilojikoa eta inposatzailea da, adin horretan haur batek berezi dezakeelako gai bat atsegina den ala ez, eta saiatu beharko dugu gaia atsegina egiten, eta ez inongo alizienterik ez duen zerbaitetara haurra behartzen. Bi konklusio ikusten ditut gai honetan:

Disziplinaren aurka ezin dela bakarka joan, ezin du irakasle batek bere burua "pareta" honen aurka bota.

Bigarrena, izugarritzko "Txorrada" litzatekela disziplina akats guztien iturri bezala hartzea. Gaiak desegokiak direnean, disziplina, irakaslearen irudia, zeregina eta identitatea sostengatzeko erabiltzen dugun tresna izango da.

ISILIK: Disziplina bitartekoa da berez, baina ez al zaik iruditzen disziplina, azken finean, irakaskuntzaren oinarri bihurtu dugula. Haurrak garbi izan behar du bere burua, eskola bukatzerakoan, nork agintzen duen, noiz ikasi behar den eta nola.

Joserra: Disziplina arauen kontra ezin da joan programazio guztia ez bada aldatzen.

Egia da, disziplinarik gabe eskola desarmatu egingo litzatekela une honetan, erabat irrazionala delako, baina ezin da disiplinaren aurka joan, **baizik eta** eskola eredu honen kontra, globalki.

Beste arazo bat ere ikusten dut hemen, disziplina arau horiek orokorki onartzen ez dituen irakaslea, zeharo marjinatua dago eskola batetan, ez da irakasle eredu, irakasle txar bat da, ezformala, desordenatua, "anarkoa", "horrekin ezin da fidatu eta baztertu egin behar da".

Zer gertatzen zaie hauei, zer egiten dute? gehienetan "minori" hauei gertatzen zaie ez dakitela ze borroka eraman behar duten, ez dakite zer egin irakaslegoaren barruan.

ISILIK: Modu ezberdinetan hitz eginda, koinziditu dugu, disziplina araudi edo arau multzo bat dela esaterakoan, batzutan tazittoa, bestetan inposatua, baina hemen bi galdera leudeke.

Nork jartzen ditu arau horiek (eskolak, irakasleak, gizar-teak...)? eta noraino kontatzen da haurrarekin?

Bestea litzateke, arau edo akordio tazito hori puskatzen bada, zer?

Kepa: Nik gehienbat gela barruko arautegiaz hitzegin dut, maila ezberdinekoak iruditzen bait zaizkit azaldutako guzti horiek. Disziplinak metodoarekin zuzenki lotuta joan behar du. Metodo ireki batek disziplina gogor batekin ez du ezertarako balio.

ISILIK: Bueno... baina hik metodo irekia erabiltzen duk ala ez...

Kepa: Uste dut ikastolak izan dituela metodo ireki batzuen aztarna batzuk, baina metodo horiek ez menperatzeagatik eta disziplina inposatzaile bat erabiltzeagatik, dena pikutara joan zaigula.

Ikastolak aurrerakoiak izan dira, susmo aurrerakoi batzuk eman ditu, baina momentu honetan, fraile ikastetxe batetan, eskola pribatu edo ikastolan, gela barruan, gauza berdina egiten dira, arau berdina daude. Nik gelan inposatzen dudana eta eskola pribatuan irakasle atzerakoi batek inposatzen duena berdina da, baina irakasle hori metodo atzerakoi batekin ari da, eta metodo ireki bat ematen ari naiz ni, baina metodo hori ez menperatzeak jan egin nau, disziplina erabiltzeak zanpatu egin nau. Merezi du, ene ustez, metodo tradizional bat erabiltzea disziplina ireki batekin (nahiz eta arrigarria iruditu) metodo ireki baten oinarriak egon arte, eta metodo horrek sortuko dituen disziplina arau irekiak ezagutu arte. Ni ez bait nago metodo dinamiko batek sortzen dituen arauak aurrera eramateko prestatua.

Arazo hau, neurri batetan, irakaslearen errua, irakaslearen prestakuntza falta da.

Joserra: Grabea iruditzen zait irakaslearen errua dela esatea, niretzat disziplina instituzio bat da. Eskolaren funtsa eta Eskolaren muina disziplina da. **Legea, disziplina, gaur egungo eskola haurraren inposatzen den eskema bat da.** Bere azken helburua COUra heltzea da, ez haurrarekin ondo konpontzea edo bere dinamika jarraitzea.

Momentu honetan, irakasle pasiboa, disziplina eta metodo arazoez kezkatzen ez duten irakaslea, sistema honen transmititzailea da, elementu inposatzailea, eta besteak, bere gelan saiatzen denak, "geto" bat egingo du, nahiko "majoa" eta abar, baina ez du arazo orokorra inolaz soluzionatuko.

Carlos: Kepa, zuretzat zein da bereziki muga edo oztopoa ikastoletan eta fraile etxetan berdin funtzionatzeko, suposatuz ikastolek badituztela baldintza berezi batzuk?

Kepa: Programak bete beharra, irakasleen gaitasuna, euskera betidanik ere muga izan da (errealitatean dagoen muga bezala hartuta).

Ez dira muga gaindituezinak, **baina bai bere kontra borrokatu behar diren mugak.**

Beste muga bat giroa litzateke, guraso eta haurren artean dagoen giroa, zer esijitzen zaien, zer eredu eta irudi dituzten, gurasoez zer eskatzen dioten irakasteari e.a. Haurrak beraiek ere muga bihurtzen dira, hauek dituzten disziplinari buruzko irudi eta helburuak direla eta.

Hau gainditzeko irakaslearengandik etorri beharko litzateke konponbidea, irakasleak gai izan behar du edo hortan saiatu behintzat, modu dinamiko eta ireki batetan pedagogi konkretu bat aurrera eramaten.

ISILIK: Irakaslearen prestakuntza eza oztopoa izan daiteke, berez horrela da, baina ezin zaio erru guztia bota eta ezin da problemak konpontzaile bezala elementu bakartzat hartu. Eskolaren egitura, helburu akademikoak eta antzerako oztopoak askoz ere gogor eta latzagoak bait dira. Irakaslea, azken finean, honen menpe dago, eskolaren egituraren menpe eta nahiz eta ona izan, nahiz eta oso prestatuta egon, berak bakarrik eta bere gelan ezingo dio arazoari konponbide orokor bat eman.

Irakaslearen arazoa, problema haundiago batetan englobatu beharko genuke.

Kepa: Baina irakaslea prestatua baldin bada eta gai baldin bada bere lana nahi duen bezala aurrera eramateko, bultzatzaile bihurtuko da, haurrarentzat eta inguruarekiko eragitzaile izango da. Ez da faktore bakarra, baina bai inportanteenetariko bat.

J.Ra: Haurrari egindako kritikak (lehen Kepak esan du haurrak eta gurasoak errudunak direla, beren eskema eta eritziek oso eragin zuzena izan dezaketelako irakaslearengan) ez du balio, lehen aipatu badugu disziplina instituzio bat dela eta eskola funtsean disziplina dela, onartutako printzipioa da, disziplinak duen ideologia, klase dominanteen ideologia dela, eta horrek gizartean, eskolan, haurraren eta irakaslearen eragin zuzena.

Lehen aipatu da "ikastolen aurrerakoitasuna", ikastolak hasieran bazituela helburu eta proiektu progresista batzuk e.a., niretzat hori aspaldi galdu zen, momentu honetan ezin da horretaz hitzegin, inondik ere ez dagoelako.

Aurrerago aipaturiko gaitasunarekin loturik, badago beste kuestio bat, lehen esandako diferentzia, (ikasle eta irakaslearen artean) jerarkizatu nahia. Irakasleak ezin du hanka sartu, ezin farregarri azaldu, ezin da kontraesanetan erori. Irakasleak irudi mitifikatu bat du, eta irudi hori gordetzea eta kontenidoak ematea bihurtzen da irakasle askorentzat helburu nagusi eta bakarra. Maila honetan ez dago metodo irekirik, horrela ez da posible. Irakaslearen apustua, gelan sartu eta farregarri agertzeko beldurrik ez izatea, izan behar du, bere irudia puskatu eta desegitea.

ISILIK: Asko hitzegiten ari gara irakaslearen irudiaz, metodo bat edo beste emateko irudi diferentziatu, jerarkizatu etabarretakoak behar direla, irakasleak bere irudi tradizionala gordez ezin duela metodo ireki edo aurrerakoi bat aurrera eraman. Baina... zer da metodo ireki bat?

Carlos: Bi moztetakoak izan daitezke, inpositiboa alde batetik, eta bere baitan **tradizionala eta aktiboa**, baina aktibotasun hori inposatze horren barnean. Beste bat, "irekia" izango litzateke, Saioka, adibidez, irekia da, baina liburu batetan dagoenez eta bera erabiltzen dugun modua dela eta, inposatzaile bihurtzen da. Saiokak, berez, eskema aktibo bat du.

ISILIK: Disziplinaz oso modu ezberdinetan hitz egin dugu, eta badirudi eskolaurrean eta 1. etaparen ez dela ematen, gero 2. etaparen gogortzen hasteko, hori ez dugu uste horrela denik. Eskolaurrean disziplina askoz ere "sibilinoagoa" izan daitekelako eta 2. etaparen bezain inposatzailea.



Disziplina nola ikusten da adin ezberdinetan? eta zergatik iruditzen zaigu problematikoagoa adin batzuetan bestetan baino?

Badirudi, haurrak 2. etapan bihurtzen direla problematikoak, baina adin guztietan egoten dira zapalduak.


Carlos: Disziplina "soziala" da, gizartean ematen diren arau konkretu batzuk dira, eskolan itxura konkretu bat hartzen duten arau sozialak, eta gezurra da 2. etapan ematen dela edo antzerakoak baieztatzea.

1. etapan eta eskolaurrean, haurra egozentrismoa da, eta hori dela eta harremanak, beraz disziplinak, beste kutsu bat hartzen du. Haurra egozentrismoa da, baina aldi berean askoz ere dependienteagoa, orduan nagusiarena inposatzea errezagoa da, nahiz eta hain garbi ez nabaritu, haurraren dependentsia eta behar konkretu horietatik dator disziplina ezkutu, baina bestea bezain inposatzaile hori. Garai honetan haurraren rebeldia guztia negar edo amorrazio batetan gelditzen da, eta estaltzea ere errazago da, nahiko izaten bait da gosoki eta jostailu bat.

ISILIK: Zapalketa berdina da maila guztietan, baina erantzun kapazitatea ezberdina, erantzunak ezberdinak izanik, zapalketa ere modu ezberdin batetan ikusten da, nahiz eta beste adin batzuetan ematen den zapalketa bezain gogorra izan.

Kepa: 2. etapan edo BUPen, adibidez, irakaslea eta ikaslea urrutiratuz doaz, ez dago hainbeste dependentsia eta enfrentamentuak errazagoak dira, bakoitzaren papera garbiago dagoelako. Eskolaurrean balio duten "artimaña" askok hemen ez dute balio eta, orduan, "disziplina arazoak" hitzegiten hasten gara.

Mikel: Nire ustez, haurrak adin batetan beregan dagoen zapalkuntzaz konturatzen dira, zapalkuntza hori etxean ikusten dutelako lehenengo, baina han bakarrik jasan behar dute, gero eskolan, taldean, gurasoen irudia irakaslearen gan isladatzen dute eta taldeka errazago zaie horren aurka joatea (etxean bakarka ez bezala), eta hor irakasleoi beste arazo bat sortzen zaigu.



Joserra: Ni ez nago zuekin ados, disziplina gero eta gogorragoa da, hasi eskolaurretik eta BUPeraino.

Lehenengo, haurraren nortasuna legoke, haurraren nortasuna piskana piskana finkatzen doala eta fase ezberdinetan modu ezberdin batetan ikusten da disziplinaren eragina, baina gero eta gogorrago.

Eskolaurrean eta 1. etapan **inposatzen zaiena** (nahiz eta oso gogor eta modu sibilino batetan izan) portaera kodigo bat da, **gizartean dauden egiturak inposatzen zaizkie**, baina hori etxetik ezagutzen dute, inposatze berririk ez dago. Eta, gainera, eskola batzutan inposaketa hori etxean baino lehunagoa irudituko zaie.

Gero, hori berori egiten jarraitzen du eskolak, baina gero zapalketa sozial eta orokor horretatik kanpo, gaiak sartzen dira, eta hori beste zapalketa bat da, eta gai horiek emateko disziplina behar da.

Maila batetatik aurrera **kondukta arauak eta gaiak asimilatu** egin behar dira, disziplina eta inposaketa doblea da. Zenbat eta gorago (BUPeruntz) gero eta nabariagoa da hau.

Prozesu hau jarraituz, azkenean eskolak bere funtzio soziala betetzen du, COUra heltzerakoan "piztiak" (haurrak) mantsozte, baretzea eta gizartearen araupean sartzea nahi du.

ISILIK: Horrekin ados gaude, baina hik aipatzen duan bezala, bide edo prozesu bat da guztia, eta 2 urteko haurrari aplikatzen zaion disziplina 12 urtekoari aplikatzen zaionaren hildotik doa, beraz, aurrekoa bezain kaltegarria. Haurraren bilakaeran zehar dagoen fase bakoitzari disziplina moeta bat dagokio eta bata bestea bezain gogorra.

Carlos: Disziplina gogor hori gehiago nabaritzen da azken kurtsoetan, baina horrek ez du esan nahi besteetan ez dagoenik eta, askotan, bestea baino gogorragoa.

ISILIK: Gure hezkuntza munduan dauden akatsak (gela bereziak, haur problematikoak, frakaso eskolarra, gaien erreuperaketa...) nolabait estremoak dira. Irakaskuntza honek txartzat hartzen dituen horiek, noraino izan dezakete disziplinan oinarria?

Eta bestalde, gure hezkuntza munduan, haur normaltzat jotzen ditugun horiek noraino dira gure norma eta arauen ondorio zuzena, gure disziplinak eta arauak sortzen dituzten "eredutxoak"? haur hauek noraino lortu dezakete eritzi kritiko bat edo autodisziplina bat aurrera eramateko ahalmena?

Kepa: Bi moztetako gelak daude, haur problematikoak (portaeraz, izaeraz) baztertzen dituenak eta, bestalde, akademiko aldetik haur defiziente edo jarritako mugetara heltzen ez diren haurrak baztertzen dituenak.

Eskolaren helburua akademikoa baldin bada, kosta batzuetara heltzea, normala da haur batzuk, "txarrenak", baztertzea. Eta bestea berdina, haur problematikoek normalean, gelaren martxa, helburu akademiko horiek lortuko dituen martxa hautsi egiten dute, beraz, gelatik apartatzea normala da.

Problema hauek, helburu akademikoa soil soilik dagoelako, ematen dira. Zihur aski, helburuak beste batzuk balira ez litzateke horrelako problemarik sortuko.

Mikel: Nik bi alderdi ikusiko nituzke hemen. Alde batetik, O.H.O. honen helburua zein da (Hezkuntza Ministeritzak jarritakoa)? Heziketa orokor bat lortzea, hori eduki nagusi batzuekin aplikatuta. Bestalde, ikastetxe bakoitzaren helburua zein da? Ahalik eta graduatu edo OHO hori beteko duen haur multzo haundiagoa ateratzea. Hau nola lortzen da? Ba...

Ministeritzak jarritako arau edo baldintza horiek betez. Bi bide hauek markatzen dute araua edo bidea, bertan jarritako baldintzak betetzeko gai ez dena baztertua, marjina-tua gelditzen da.

Joserra: Aurrekoarekin ados nago. Dena dela, esan beharko litzateke, disziplina, gizarteak jarritako arauak bete daitezen erabiltzen den tresna bat dela. Disziplinaren ondorio bezala gauza batzuk datoz, baina eskolaren funtzioa, berez, haurrak "hezitzea" izango litzateke, baina "hezi" animaliekin egiten den bezala. Haurra hezi, gizartera moldatu, gizartean integratu, gizarteak jan dezala, eta hortarako behar beharrezkoa da disziplina. Lehen disziplina eskolaren funtza dela aipatu dudanean, eskola berez ez dela ezer esan nahi nuen, aparato bat dela, aparato hori berez da represiboa, jartzen dituen helburuak ez direlako lojiko eta egokituak, ez da

prozesu baten lagungarri, baizik eta prozesu baten inposatzaile, eta inposatzeko tresna bat dago, "Eskola", eta eskolaren funtza disziplina da. Disziplinak berak, ez ditu gela bereziak edo antzerako gauzak sortzen, tresna besterik ez delako, horien eragile nagusia sistema da. Sistema konkretu bat inposatzeak dakartza horiek.

Carlos: Niretzat, haur normalak deitzen ditugun horiek, sistemak, gizarteak eta eskolak (azken eragile bezala), disziplinaz baliatuz, jartzen dituen helburuak eta arauak, behar den bezala, betetzen dituztenak izango dira. Norma horietatik, arrazoi batzuegatik edo besteagatik, ateratzen dena, hori izango da "problematikoa", arraroa eta, azken finean, marginatua.

Gizarteak bere dinamikan, beste arlotan bezala, eskolan ere bere marjina-tu, txar eta indeseableak egiten ditu.

HONERAINO DONOSTIAN EGINDAKOA, HEMENDIK AURRERA BERGARAKOA

ISILIK: Erabiltzen duzun metodoaren ezaugarri nagusiak aipa itzazu. Ikastola osoan bat erabiltzen al da ala irakasle bakoitzak berea du? Nola koordinatzen zarete?

Mikel: Nik esan behar dut, ni nagoen ikastolan ez dagoela inongo metodorik. Metodoa liburuetan oinarritzen da, liburu-etako edukietan. Gai batzutan badago irakasleen arteko lotura edo koordinazio bat, baina hori ere liburuetan oinarritzen da. Irakasle horiek liburu-etatik ateratako zerbaiten bidez koordinatzen dira, e.a. Baina orokorki bakoitzak bere gelan ahal duena edo nahi duena egiten du. Bakoitzak berea egokiena dela uste du. Guzti honek esan nahi du, gehiago ikastola haundietan, goitik behera ez badira helburu batzuk finkatzen, bakoitza berean zentratzen dela eta puskatzea oso zaila dela. Egoera hau oso komodoa izango da ezer aldatu nahi ez dutenentzat, **bere gelan itxiko bait dira eta inorekin eta ezertarako ez dira mugituko.**

Ikastola honetan edukiak emateak bakarrik kontatzen du, ahalik eta eduki gehien.

Nik 2. etapan esperientzi ezberdinak izan ditut. Dena dela, erabilitako metodoak nik jarritako metodoak izan dira, haurrek parte hartu gabe. Haurrei parte hartzeko aukera eman diedanean, programatik kanpo dauden arloetan izan da, edukiak garrantzirik ez dutenean.

Ebaluaketak, edukiak eta programaketak lotuak daude, baina ez haurrari begira, baizik eta zentro eta irakasle bakoitzaren prestijioari begira (nik eman dut programa osoa, eman ditut eduki guztiak eta hainbeste jendeak aprobatu du), horrekin nire helburua bete da eta kitto.

Irakasleak ikasgaia esplikatzen du, ariketak egiten dira eta azterketa baten bidez konprobatzen da, ea haurrek jaso duten emandakoa ala ez. Ez da ez haurraren ez irakaslearen inongo parte hartzerik ematen.

Ministeritzak, zentruak... irakasleari zerbait agintzen dio, eduki batzuk ematea, helburu akademikoak betetzea, eta hori eginez, irakaslea lasai gelditzen da, "berea" bete du (trasmititzaile huts, lasai eta zapaltzaile bihurtzen da).

ISILIK: Honen aurrean, haur bat ez bada hori betetzeko gai, zailtasunak baditu... zer gertatzen da?

Mikel: Irakaslea, kasu horretan, diktadore hutsa bihurtzen da. Bera da gelako nagusia, eta puntu.

Hemen beste puntu bat aipa daiteke, irakasleak, zehatz mehatz, liburutik eta programa ofizialetatik ateratzen badu bere programa, edo momentu guztietan zer eman behar duen baldin badaki, haurren momentu eta egoera ezberdinak (jolasaldiaren ondoren nekatuta dagoela, azkenor-duan...) ez ditu kontutan hartuko, "berak", "bere programa" bete behar duelako, eta hori "orduka" neurtzen da.

Irakaslearen antolaketa pertsonalak, haurraren eragin zuzena du, eta are gehiago berarekin kontaktu gabe egin baldin bada.

ISILIK: Diktadore hitza erabili duk, horrek zer esan nahi dik? zigorrek, isilik egon beharrak, disziplina arau konkretu eta gogor batzuk...

Mikel: Noski, zigorra, disziplina neurriak e.a.

Carlos: Guk metodo aktibo bat erabiltzea nahiko genuke, esplikatzen saiatuko naiz. Esperientzia aktibitateen bultzatzaile izatea nahiko genuke (guk zentru osoan metodo aktiboa aurrera eramanez nahi dugu). Hau haurren interesen arabera dago, haurrek, beren artean, aukeratu behar dute gaia eta oinarri horretatik hasten gara...

Joserra: ...Aukeraketa horretan zer gertatzen da erdiak baino gehiagok "pasatu" egiten badu? Jendeak aukeraketa ere, nolabait esateko, boikoteatu egiten badu?

Carlos: Beheko kurtsoetatik hasi gara eta haur txikiengan ez da nagusien aurka horrelako enfrentatze zuzen bat ematen. Gainera, aspergarria gertatzen zaie gelan ezer egin gabe egotea.



Umeen aukeraketa kontutan hartuz hasten gara.

Edukien aldetik, gaia aukeratzen da (haurrek), haurrek galdera batzuk egiten dituzte gai horri buruz, eta hortik guk programa orokor (ministeritzak jarritakoa) batetan oinarriturik ateratzen ditugu helburu akademikoak; dena dela, hartutako programa ofizial horrek ez balitu gure helburuak beteko, berdin zaigu eta aurrera jarraitzen dugu gurearekin. Helburu orokor batzuk finkatzen dira haur eta irakasleen artean.

Edukietan bi arazo sortzen dira, bata, eskolan orokorki eta tradizionalki edukiak helburu bakarra izan direla. Guretzat hau ez da horrela, bi helburu daudelako: lehenengoa haurren nortasunaren bilakaera, hortarako edozein ebaluaketa egiterakoan helburu honetan finkatzen gara, oinarritzakoa delako gure ustez. Bestea edukiak lirakeke.

Guzti hau utopikoa izan daiteke, baina hori lortu nahian ari gara.

Ebaluaketa fitxa bidez egiten da. Fitxa hauek sail ezberdinak dituzte: aktitueda, ingurunearekiko jarrera, norberarekiko jarrera, kuriositatea... horrela haurren aktitueda zientifiko eta kritikoa jaso daiteke.

Kurtso hasieran eta bukaeran proba batzuk egiten dira jakin ahal izateko haurren bilakaera eta nola erantzun duen guk emandakoari.

Disiplina aldetik zer ondorio sortzen dira?

Alde batetik esan behar da esperientzi honek urte eta piku daramala, horrek zaila egiten du ondorioak finkatzea.

Gela asanbladan tratatzen dira gai guztiak (konbibentzi normak finkatzen dira). Asanblada norma horien kontrolatzaile izango litzateke, astean behin biltzen da, lana hurrengo asteko lana edo egin beharra prestatzea izaten da. Haurrek jartzen dituzte lan hori aurrera eramateko behar diren normak. Asanblada hau kurtsoa egiten da.

Irakaslea, asanbladatik ateratzen diren normen kontrolatzaile izango litzateke, neurri batean behintzat.

Ohizko arazo disziplinarioak egoten dira.

ISILIK: Suposa dezagun asanbladak onartutako zerbait, batek edo talde batek ez duela onartzen.

Carlos: Orduan, normalean, irakasleak asanbladak finkatutako arauak inposatzen ditu.

Joserra: Hor arazo bat ikusten dut.

Irakasleak ez ditu aipatzen ditugun konbibentzi arau horiek ezagutzen, nahikoa da, hori konprobatzeko, zer izaten den irakasle asanblada bat edo edozein klaustro ikustea.

Irakaslea ez bada aklatzen, irakasle batzuk ez badute inoiz asanbladaren eritzia onartzen, norbaitek, guri txorrada bat den zerbait esaten duenean farre egiten badigu, zer adierazi edo irakatsiko diogu haurrari? Haurrek gehiengo batek esaten duenera makurtu behar al dute? Hori disziplina al da?

Carlos: Niri iruditzen zait asanbladaren edo gehiengo baten eritzia inposatu egin behar dela. Haurrak mediora (ikastetxe, gela, gizarte, bere taldea) egokitu behar du.

ISILIK: Hori arriskutsua izan daiteke, baieztatze hori egiten badugu, eta haurra gelatik kontestu haundiago batetara ateratzen badugu, beste termino batzutan sartzen gara, eta orduan non gelditzen dira, adibidez, minorien eskubideak?

Itziar: Ezin daiteke uka, ikastola gizartearen islada dela.

Zaila da haurrari zerbait eskatzea, gu ez bagara hortara iristen, guk ezin badugu hori eman, gudan esijentzia horiek hain zailak egiten badira.

Haurrak imitatiboak dira, gure nortasuna eta gurasoena haurrengan isladatzen da. Gure akats guztiak isladatzen dituzte. Dena edo gehiena gugandik jasotzen dute.

ISILIK: Puntu honetatik abiatuz (haurrari ematen zaizkion ereduak eta haurren beharrak) eztabaida luzea sortu zen gure artean. Nahiko zaila litzateke eztabaida hori hemen kokatzea eta osorik eta garbi azaltzea.

Bertan nagusiki planteiatzen zena, zera da:

Oso zaila gertatzen dela haurrari portaera ereduak ematea eta esijitzea, guk, irakasleok, ez ditugunean eredu horiek batere garbi (ez bakarka, ez taldeka).

Hortik aparte, gure portaera, teorikoki defenditzen ditugun oinarrietatik oso urruti dagoelako, eta egiten ditugun planteamentu teorikoek ez dutelako inongo kokatzerik eguneroko errealitatean.

Adibide ezberdinak jarri ziren, denak aipatzea ez du merezi. Hemen dago bat eta honek, gutxi gorabehera, aurrekoa labur dezake:

—Haurrari asanbladara supeditatzea esijitzen diogu, asanbladak erabakitakoa haurrak nahitaez bete egin behar du, bestela inposatu egiten diogu. Haurrak hor du asanblada, bertan hitz egin dezake, bere eritzia defenditu, eta gero gehiengoak erabakitakoa betetzera behartzen dugu. Nola planteiatu dezake hori irakasle batek gure asanbladak ikusi ondoren? Gehiengoa ez da joaten asanbladetara. Asanbladen erabakiak ez dira inoiz betetzen. Nahiz eta asanbladan tutik ez esan, gero gurea egiten dugu, gehiengoaren erabakia aurkakoa izan arren... Ez dugu planteamentu "praktiko" garbirik, nahiz eta asko hitzegin edo teorizatu. Guzti hau horrela izanik zertan ari gara? Ba al dakigu progresistak ala ez izan nahi dugun? Nola egiten den hori ba al dakigu? Eskola Publikoaren aldekoak azaltzen al gara, hori zer den ba al dakigu (ohizko lau definizioetatik aparte)? Nahiz eta zerbait azaldu, noizbaiten definitu eta konprometitu al gara eguneroko bizitza eta harremanetan? Zerbait garbirik ba al dugu, haurrari garbitasuna eskatzeko?...

BAKOITZAREN METODOAZ JARRAITZEN DUGU.

Itziar: Hasieran ikastoletan ezarri ziren eredu edo helburu pedagogikoak, ez dira bete eskolaurrean ezik. Eskolaurrean presio gutxiago dagoenez, bai guraso aldetik, bai akademiko aldetik, errazago zen helburu horiek betetzea, gero OHOera pasatzerakoan eta gehienbat gaiek eta edukiak indarra hartzen zutenean, planteamentu "majo" horiek pikutara joaten ziren.

Guk (Langilen) eta ikastola osoa koordinatuz, nahi izan dugu, eskolaurrekoak bakarrik izan ohi diren helburu horiek ikastola osora hedatzea, eta ikasketak bukatu arte bijentzia izan dezatela.

Guk ez dugu beste inongo planteamentu, helburu edo metodorik.

Eskolaurrean zer gauza baloratzen dira?

Giroarekin, inguruarekin harremana izatea. Aukeratua den lana izatea, ez klase majistralak. Eskulanak asko baloratzen dira eskolaurrean, gero indarra galtzen joateko, guk nahi izan dugu OHOean ere bere garrantzia ematea, orduan beste aktibitate guztiakin lotu ditugu, beren benetako indarra emanaz. Tailerrak osatu ditugu filosofia honi jarraituz. Irteerak egiten ditugu, ahalik eta gehien bultzatzen ditugu, praktikan ikus dadin teoriarik landutakoa eta inguruarekin harremana izateko. Talde lana behar beharrezkotzat jotzen

dugu. Haurren erritmo ezberdinak errespetatzen saiatzen gara. Haur zailak, gelan bere taldean integratzen saiatzen gara, konfliktorik sortu gabe. Ez ditugu planteamentu elitistak egiten. Gelako asanblada potentziatzen da, bai gaiak aukeratzeko, bai edozein moztetako arazoak zuzendu edo eztabaidatzeko. Ikastetxe bat eta bakarra ez dugu sekula izan, honek talde txikietan banatuak egotera eraman gaitu, lan pertsonalizatua errazten zelarik.

Irakasleak aldatzerakoan zikloak errespetatzen ditugu, adibidez, 2 urtekoekin hasten den irakasleak, gutxienez 5 urterarte jarraitu behar du haur horiekin (3 urte), 5 urtekoekin hasten dena, gutxienez 2 edo 3. mailararte. Ziklo horietan haurrak, nahiz eta irakasle konkretu eta bakarra izan (tutore edo antzerakoa), beste aktibitate batzuen bidez, tailerrak, irteerak e.a. beste irakasle batzuk ezagutzen dituzte, aukera izaten dute gurasoekin eta beste irakasle horiekin harremana izan eta ezagutzeko.

Arlo bakoitzean irakasle bat edo batzuk espezializatzek, alde batetik irakasle horrek emango duen gaia menperatzea eta bestalde haur gehiengoarekin harremana izateko aukera dakar.

Gurasoen parte hartzea haundia da. Honek, haurrari, ikastolaren beste ikuspegi bat ematen dio. Gehiago identifikatzen dira ikastolarekin. Gurasoek beraiek osatu dute ikastola eta, hau, orain arte behintzat, haurrengan nabaritu da.

Orain arte ikusten dugunez, ikastolak jaio zirenean zituzten helburuak mantendu ditugu, eta horrek irakaskuntza osoa beste modu batetara ulertzea eraman gaitu. Normalean guk mantendu dugun dinamika hori hasieran ikastola gehiengotatik eman da, baina gero haunditzerakoan, instituzionalizatzerakoan, eta ohizko arazoetan (helburu akademikoen "behar hori") sartzerakoan, pikutara joan dira planteamentu horiek.

Disziplina dela eta, ohizko arazoak sortzen zaizkigu, materiala ez errespetatzea, bakoitzak berera jotzea e.a. Normalean, lehen aipatutako eskolarekin identifikatze hori dela eta, gure argumentuak errazagoak izan dira, dena "gurea" dela, denona, orduan gauzak errespetatu egin behar direla e.a. Bestela ez dira oso problema zailak sortzen, txikiak baizik. Haurrek, gurasoen parte hartzea eta lan orokorra ikusten badute, modu ezberdin batetan baloratu eta egiten dituzte gauzak.

Guk ez dugu ez notarik, ez antzekorik ematen. Askotan, ikastola haurraren mundua ez denez, haurrari eskolan ematen den gehiena interesatzen ez zaionez, notak kentzerakoan pasibitatea sor daiteke, haurrari ez zaiolako benetan interesatzen guk ematen dioguna. Honen aurrean, haurrari berak nahi duena aukeratzeko posibilitatea eman behar diogu, lanak beraiek aukeratu eta osatu ditzatela. Horrekin batera inportantea da, egiten dutena baloratzea eta egiteko estimulatzeko. Baloratze horretan, erakusketak eta antzerakoak estimulariak izaten dira haurrentzat, bai gurasoek, bai irakasleek eta baita ere herrikoek, haurren lanak ikusi eta baloratzeko aukera bait dute.

Dena dela, haurrak motibazio bat behar duela garbi dago, eta hor hutsuneak sortzen zaizkigu.

ISILIK: Badirudi, garbi dagoela, eskolak, benetan bijentzia izan nahi badu eta haurrak interesatuak egon daitezela lortu nahi badu, ikastea atsegina izan dedila lortu behar du, haurra gustora senti arazi behar du. Ez epe luze batetara, ez zerbaitetarako, baizik eta ikasteak berak atsegina izan behar du.

Carlos: Gero eta haundiagoa, gero eta zailagoa da motibatzeko. Interes inmediatekoa.

Itziar: Estimulatzea erraza izan daiteke. baina oinarritzakoa zaila da ikutzea.

Joserra: Gainera nik zuri (Isilik) esperantza kendu nahiko nizuke. Eskolak, berak, deskalifikatzen du berez, eta mesfidantza haundiz ikusten du, bere inguruan ager daitezken jolas kutsuko edo gauza gustagarrien aurrean, jendea "moskeatu" egiten da. Gauzak gustora egin eta ematea ez da egokia, hori ez da eskola, **ESKOLAK SUFRITZEA IZAN BEHAR DU.**

Mikel: Nik zuri (Itziar) galdera bat egingo nizuke. Esan duzu notak eta antzerakoak ez dituzuela ematen, pentsatu al duzue zer ondorio ekar ditzaken honek?, gero Instituto, BUP edo antzerakoetara pasatzerakoan?

Itziar: Hori arrisku bat da, eta askotan gogorra bihurtzen da haurrarentzat aldaketa hori egitea. Azken finean aukera bat egitea da, eta pentsatu behar da muga hori noizbaiten aurkituko dutela. Baina muga hori gabe, muga honekin lantzen diren gauzak landu daitezke, eta hortan saiatzen gara.

Notak eman arren ez dute gehiago edo hobeto ikasiko, eta muga hori OHOeko 1. mailan edo BUPen aurkitzea antzerakoa izango da.

Hasieran, lehenengo promozioan, zailtasunak egoten dira, haurrak mundu ezberdin batetara pasatzen direlako eta gauzak neurtzeko eta ikusteko oso modu ezberdina duten mundu batetara. Gurasoek ere beldurrak eta mesfidantzak agertzen dituzte eta haurra inseguru aurkitzen da, baina honek ez du esan nahi gai ez denik, normalean metodo ezberdinak erabili dituela esan nahi du. Gainera, guk neurtzen duguna edo haurrari interesatzen zaiona oso ezberdinak dira.

Azken finean hori da, arrisku horrekin jokatzeko, noiz hasi dejenatze prozesu horrekin, OHOeko 1. mailan ala BUPen.






Disciplina: requien y epitafio para un modo caduco de ver las cosas

Testu hau jatorriz gaztelaniaz egina dago, eta egileak hizkuntza horretan erabilitako espresio asko oso zaila litzaiguke behar den bezala itzultzea, horregatik, hitz eta esaldi batzuk dauden bezala gaztelaniaz (edo gaztelania egituraz) errespetatuko ditugu.

Hasteko, gai honetaz egindako erreflesioak, gutxienez, oinarrizko lau ideia izan behar ditu bere baitan:

1. Disziplina hitza erabiltzea, hitz galkor edo kadukoa erabiltzea dela (eta zentzu honetan, gure hezketa garaia, hamar izkitako hitz honen "rekien" eta "epitafioa" dela).
2. Eskolak, konbibentzia planoan, militar kutsuko dispositibo hau baino gehiago duela eskaintzeko.
3. Gauzak nahiko garbi daudela plano teorikoan.
4. Praktikan zailtasunak daudela onartzea beharrezkoa dela, baina hauek ez direla itzulezinak, eta ez dutela eredu zahar batzuen itzultzea justifikatzen.



Gure haurren kapazitatea, afektiboki onartzeko (berea bezala onartzeko) nagusiekin harremanetan hartzen duten sistema moral, gero eta ahulagoa da. Gure sistema horren inkoerentzia dela eta, eta horretxegatik, sumaketen inkoerentziatik. Haurrak, beretzat afektiboki orekatua, eta lojikoki koerentea dena bakarrik barnera dezake. Baina, nagusiok, arlo honetan gaur egun eskeintzen dioguna, oso inkoerente, urri eta arbitrarioa da.

Txikitatik, haurra, joku arau batzutara murriztua dago (arau fisiolojikoak, gorputz arauak, harreman arauak, espazialak, materialak, urbanistikoak, langiro arauak...), nagusiek markatutakoak, eta gure bizitza sistemarengan berezkoak direnak. Arlo honetan ez dago denbora galtzerik, ez aukerak eskeini beharrik; "joku arauak", haurrak berak "jaso" egin behar ditu. Inork ez du beharrezkoa ikusten, joku arau hauei koerentzia aurkitzea, nola bizi, sentitu eta ulertzen duen haurrak berak. Hala ere, ia denek nabaritzen dute menperatze honen aurkako erresistentzia (ia militante gisakoa batzuegan) haurraren (erresistentzia eta ezina, zantua sentitzea bere burua).

Bereziki haur "gogor" (menperatzearen aurka biziki borrokatzen direnak) hauengan aplikatzen da disziplina zorrotza. Irakasle batzuentzat haur hauek dira disziplinaren beharra justifikatzen dutenak. Beste batzuentzat, haur hauek krisian jartzen dute, autoritate eta koaziorik gabeko giroa ezartzeko ahalegina. Baina, egoera batzuetan, zalantza nagusitzen zaie, inseguritatea, eta bide egokia jarraitzen ariko ote diren kuestionatzen dute. Momentu zailenetan irakasle hauei, inkonszienteki, bere haur-ikasle irudi zaharra datorkie burura: ona-garbia-ixila-arduraduna-irakaslearen ahotsaren, begiradaren, keinuaren edo zigorraren beldur dena.

Gure baitan "eskolan izan ginen haurraren" irudia faltan botatzen dugu (efikazagoa delako, ez atseginagoa), konturatuz irudi hark eta oraingo haurrek (nekagaitzak, egonezinak, zaratatsuak eta "zikinzaleak") ez dutela zerikusirik. Baina faltan botatzen den neurrian, badakigu, ez dela posible berriz hartara bueltatzea. Gaur egun ez da posible autoritate kontzeptua ez ulertzea, ez eta praktikan jartzea hitz eta baldintza berdinetan.

Gainera, gure ingurunea aztertzen badugu, hainbeste urtetan zehar eskolan emandako hezketa zibiko eta moral baten ondorio soziala, ezinbestekoa zaigu bere izugarriko frakaso onartzea: insolidaritatea, elkarren arteko dinamika pluralista bat eramateko ezina, elkarren arteko zurikeria,

agresibitatea, bizitzaren kalitatearen degradapena, indar eta jerarkiaren harremanen sofistifikaketa, sistema moral baten bi aurpegiak; alde batetik oihukatzen, irakasten eta diktatzen norberarekiko eta besteenganako araudi bat, ezertarako balio ez duena, praktikan ikusi, sentitu, bizi, nabaritu eta ulertzen baita benetan funtzionatzen duen sistema beste bat dela; agresiboa, norberekoa eta elkarren arteko harremanak puskatzen dituena.

Gauzak horrela daudela, haurrak ez daki zer barneratu behar duen; agresiboa izan behar ote duen ala bakegilea; norberekoa ala eskuzabala; garbia eta arduraduna izan behar duen ala zigarro hautsa lurrera bota duen irakaslea bezalakoa, semaforoa berde dagoenean pasa behar duen ala gorri pasatu duen gizonak bezala egin behar ote duen; ixila izan behar duen ala bere harremanak oihuka egin, gero bere eztabaidak irabazteko aukera izan dezan, bere aitak, senar emazteen arteko borrokak irabazten dituen bezala; hau... ala beste... (nahi dena jarri) egin behar ote duen...

Baldintza hauen barruan, "legea" eusten duten, ikutezinak diren balore moralak lurrera datoz. Gure zibilizazioan aldaketa momentu batetan gaudenez, beharrezkoa zaigu balore sozio-kultur berri batzuk eraikitzea.

Hortan datza eginbeharra. Bizi dugun une sozio-kulturalak, hezketan ari diren profesionalei, irakasleei konkretuki, asmatze eta irudimen ahalegin izugarria eskatzen die. Sortzeko egin behar den ahalegin hori behintzat, nahiko garbi dago maila teoriko batetan.

Irakaslearen laguntzaz baliatuz, haurrak berasma ditzake (berarekin asmatu), balore "berri" horiek. Haurrek, belaunalditik belaunaldira, berasmatzen dute, logiko-matematiko sistemaren koerentzia mundu guztiko haurrek, 7/8 urteetan zehar, eskolaren inongo laguntzarik gabe, bamekotasun legea (matematikan) asmatzen duten bezala. Haurrek, hori lortzeko jarritako ahaleginak ez badizkiegu mozten, elkar lanerako eta beren autonomiarako sistema moral bat asma dezakete.

Eraiketa intelektuala (logiko-matematiko pentsamenduaren eraiketa), haurraren barne prozesua den bezala (errealitatean dauden fenomeno eta objektuak emandako harremanen ondorio bezala sortutakoa), moral bilakaera, **konbibilitate eta autonomiaren sistema moralak ere barrutik egindako prozesua da**; haurrak, errealitate orokor (beste haurrak, nagusiak, elkar lana) batetan murgilduta dagoen bere errealitate sozialari (autonomia) koerentzia bat eman behar dio, orekan jarri behar du, hortarako lehen aipaturiko "moral bilakaera" hori, haurrak egin behar duen eraiketa litzateke, aurrekoa bete dadin.

Logiko-matematiko ezagupenak, bere eraiketan haurrak bere pentsamoldea eta gauzak ulertzeko behar logiko bat sentitzen duen araberan, aurrera doan bezala, pentsamolde hori errealitatean dauden datoekin kontraesanean jartzen denean, **haurrak benetan behar sozioafektiboa sentitzen badu, sistema moral bat eraikiko du**, beste haurrekin eta nagusiekin izandako harremanen kontraesan sozioafektiboek eraginda.

Logiko-matematikoa den edozein ezagupen (lehen aipaturikoa, adibidez, geletan sartzea), behin jasoz gero, inoiz galduko ez den bezala —haurrak berak osatu duelako—

(inoiz 8 urte ondoren haur bat ez da behi bat hegaztien artean bilatzen hasiko), gertatuko da ere, **haurrak berak eraikitako balore moral bat ez duela inoiz galduko**. (Gure nagusi gizarte honetan alderantziz gertatzen da, ahaztu egin bait ditugu eskolan ikasi behar izan genituen oinarri moralak —baliozkoak ziruditenak ere—).

Logiko-matematiko ezaguera, bai berez bilakatzen uzten badugu, edota, haurra adi egon dadin eta bere ingurunearekiko kuriositatea izan dezan estimulatzen bada, beti norabide bakar batetan bilakatzen da, koerentzi haundiago batetara. Haurra, autonomoki, elkarren arteko harremanetarako, moral sistema gero eta koerenteagoa eta konplexoagoa osatuz joango da. Hortarako, irakasleak haurra entzuten ikasi behar du; itxopen; bere gelan sortzen diren kontraesan afektiboetatik ondorioak ateratzen jakin behar du; ezin dizkio haurrari eskakizun arbitrarioak egin, ulertuko ez dituen eskakizunak, beretzat inportanteago den zerbait ukatzea eskatuko diotenak.

Adimenaren ikuspegi "eraikitzaile" batek, haurrak, berak, bere arrazonamendua bilaka dezan, zeharkako bideak erabiltzera garamatzen bezala, irakasleak ere zeharkako bideak erabili behar ditu, haurraren zuzenki eragin gabe, bere ingurunean baizik, moral bilakaera sortzen joateko. (Dena dela, inportantea da ez ahaztea, askotan irakasleak eta nagusiek orokorki inposatzaileak izan behar dutela, aurrez jakin ditzaketelako haurren ekintzak, edo noraino heldu daitezken haurrak. Ez dugu ahaztu behar, komenigarria izan daitezkeela autoritatea erabiltzea, horrela haurrari bitarteko fisiko eta psikologiko estable bat ematen bait diogu. Hala ere, inposatze hori ahalik eta gutxien erabiliko dugu, eta haurren arteko konfliktuak ahalik eta gehien erabiliko ditugu, berdin arteko harremanak, moral bilakaera errazten baitute, nagusientzat ulergaitzak diren formen bidez. Nagusi eta haurraren arteko harremanak ezin dira inoiz berdinen artekoak izan, nahiz eta hortan asko ahalegin du. Aldiz, haurren artekoak berdinen artekoak dira. Haurrek heuren artean dituzten behar sozialak oso neurri txiki batetan izango dira inposatzaileak, eta aldi berean, neurri haundi batetan, borondatezkoak izango dira. Beste haur batzuekin, haurrak elkar lan autonomoa ezagutzeko aukera du, kooperazio eta kooperazio ezaren ondorio eta ezaugarriak esperimentatuz).

Giroan nolabaiteko presiorik baldin badago, haurrak ez du erresistentziarik jarriko, eta bere jokaera presio hauek erregulatu dezaten utziko du. Egoera horretan, haurra "ongi"? portatuko da, gorespina jasotze arren edo zigorraren beldurrez. Aldiz, bere jokaera berekasa erregulatu uzten bazaio, inposatuko duten presioen eraginik gabe, jostailu bat beste batekin erabiltzeko ez du oztoporik jarriko, egia esango du edo agindu bat mantenduko du, arrazoi oso ezberdinez eraginda. Eta arrazoi hauekin osatuko da, berak egindako jokaeraren araudi moralak. (Egi zientifiko honek, irakasleak, bere buruarengan adinako konfidantza haurraren izatera, eraman behar luke).

Eskolak, alde batetara utz ezin dezaken egin behar honek, eskolaurrean (beste gauza asko bezala) du bere aukera onena. Eskolaurrean, haurraren nortasuna gorputzuko da, afektibitate orekatu bat gauzatu, eta irakasleak eduki eta kanpoko eraginaren presiorik gabe, errazago oinarri dezake bere lana hezketa pertsonalizatu batetan, nortasuna eta haurraren dimentsio sozioafektiboa tratatuz.

Eskolaurreak, haurri posibilitate hauek eskeini behar dizkio, eta askorentzat famili giroan izorratutako oreka afektiboa, berreskuratu. O.H.O.eko hezketak, egin behar honi jarraipena eman beharko lioke, haurrei (bai elkarren arteko ekintzetan, eta baita ere eraiketa intelektualetan) elkarren arteko jostioa izan dezaten aukera eman, gelako kolektiboa autoerregulatuz joan dadin.

Norbaitek esan dezake, eginkizun edo lan hau hemen azaltzen den bezala egitea, ia imposiblea izan daitekela. Dena dela, garbi utzi behar da, ez dagoela arrazoi ez zientifiko-eboluborik, ez teknikorik, hau ezinezkoa dela baieztatzeko. Aldiz, eta baldintza konkretu batzuk betetzen badira, haurra, bere moral sistema autonomoki eraikitzeke gai da. Ematen dira, eta hau ezinbestekoa litzaguke onartzea, arrazoi didaktiko, instituzional, dogmatiko etab., baina hauek irakaslearen presio handia izanik, ez dute, berez, haurraren eragin zuzena izan behar.

Eginkizun hau, eskolak haurri "eskeintzen" dion moral sistema barneratzea denean, eta aldi berean, irakaslearen aktibitatea konpetitiboa, elkarren artean aurkakoa, mesfidantzaz bete etab. denean, ezinezkoa da. Dena den, nahiz eta aurkako baldintza hauek eman, "zerbait" egiteko prest dagoen irakasleak, bere gelan ahalegin guztiak egin beharko ditu hau lortzeko.

Erreflesio honek, eguneroko bizitzan gertatzen dena azaldu nahi izan du, dena dela, konkrezio batzuk komenta daitezke (ez errezeta gisara, baizik eta azalpen gisara), komentatuz eta irudimena landuz lortu bait daiteke, ez bakarrik gure inposizio jarrerak urritzea, baizik eta haurrekin harreman orekatua lortzea, etengabe kuestionatu gabe autoridadearen beharra (hemen azalduko egitura baldintzak ez gaituztelako behartzen hortaz pentsatzeraz).

Adibide gisa:

- Gela txiki samar batetan (30-35 haur) zarata eta zalaparta egoteak eraman gaitzke autoritatea erabiltzera (beti antzu den errekurtsioa). Pentsa dezagun (egoera honen aurka joatetik aparte) espazioa bana daitekela 20 haur baleude bezala, eta haurrak ere hori soma dezatela.
- Gela askotan gertatzen zaigu, haurrek, gelan dauden material gogorak erabiliz, min fisikoa egiten diotela elkarri, erasotzailea zigortu beharrean, pentsa dezakegu material biguna erabiltzea...
- Beste haurrei ostikadak ematen dizkien haurri, zigortu beharrean, ohin utzik ibiltzea eskatu diezaiokegu, eta besteak gehiago joko ez dituela esaten digunean oinetakoak emango dizkiogu.
- Haur txikiak, sarritan, oso poliki jazten dituzte bata eta normalean gure erreakzioa presa ematea izaten da, edo oihuka eta zarataka hasten gara; hobeagoa izan zitekeen momentu patsadatsu hori erabiltzea berarekin hitz egiteko, atzo egin zutena galdetzeko... edo binaka lot ditzatela esan (horrela elkarren arteko komunikazioa lortu bait daiteke, eta bakarka egin behar zuten aktibitate motriz hori, bien arteko kooperazioaren bidez egin dezakete).
- Haurrak heuren artean borrokan dabilta hiru edo lauk tresna edo jostailu berdina nahi dutelako, gure "hitzaldi moralizantea" bota orde, hiru edo lau tresna berdina gelan

izatea hobe litzatekela pentsa dezakegu (garestia dela?...gurasoak antolatu ditzakegu heuren artean honelako tresna egoki eta merkeagoak egin ditzaten, gainera, beren kolaborazio praktikoa lor dezakegu...).

- Gelan zerbait falta dela, norbaitek zerbait puskatu duela, haserretzea edo gela guztia zigortzea baino positiboagoa izan daiteke, denen artean eztabaida "lasai" bat sortzea, soluzioak bilatuz, bakoitzak bere eritzia eman eta aurrera begira pautu posible batzuk ezarriz...

- Etab. etab. etab. etab. etab. etab. etab. etab. etab. etab. etab. etab.

"Mutu ez dagoenak, rekiena abes dezala.

Eskuak lotu gabe dituenak, epitafoia idatz dezala."

* **Disziplina hitza**, "haurraren kanpotik ezarritako presio inposatzaile" bezala erabili dugu. Egia da, hitz hau "barne disziplina" bezala erabili daitekela, "haurrak, berak, beretzat (autonomoki) egindako moral sistema bezala". Dena dela, eta hitzak dituen esanahi negatiboak direla eta, nahiago izan dugu honela ez erabiltzea.

Juanjo Kintela

SEMANARIO INFANTIL QUE SE PUBLICA LOS DOMINGOS
SAN SEBASTIÁN | DIRECCIÓN Y REDACCIÓN: CLAUDIO DELGADO DE AMESTOY | APARTADO 909
ADMINISTRACIÓN: CUARTEL DE REQUETES (KURSAAL) |
SUSCRIPCIÓN ANUAL 9 PESTAS (PAGO ANTICIPADO)



El Pelayo en la escuela



El Pelayo no ha de ver en la escuela un lugar de tormento, sino una prolongación de la familia; allí ha de aprender a ser buen católico, buen patriota, buen hijo, para ser el día de mañana útil a su familia.

Por ésto, el Pelayo entra en la escuela con formalidad, sin dar gritos, saludando al maestro. Se coloca en su pupitre; y a una señal del maestro, se levanta y reza las oraciones con atención, sin volver la cabeza.

Siguiendo las órdenes del maestro, lee, escribe, hace los problemas, sale a la pizarra, y no hace las cosas al revés. No escribe en las mesas, no pinta monigotes, no motesta a los niños vecinos, no vuelve la cabeza cuando alguien entra o sale de la escuela.

El Pelayo pone empeño especial en aprender bien el catecismo, para ser un católico inteligente y fervoroso; y aprende bien la historia de España, para ser un buen patriota, amante de su Patria, y enamorado de aquellos grandes Reyes, que hicieron de España la nación más católica y poderosa del mundo. De esta manera, renegará de aquellos gobiernos afrancesados y liberales, que llevaron a España por la corriente de la impiedad y la deshonra, hasta desembocar en la charca inmunda del Marxismo, que quería ahogarnos a todos, y de la que vamos saliendo a flote, gracias a la protección de Dios, a la intercesión de la Virgen del Pilar, y al esfuerzo del Ejército español, secundado valientemente por los heroicos Requetés.

M. VILASECA

CONSIGNA Conservar los libros y cuadernos muy limpios y sin monigotes; no jugar con ellos, ni arrancarles las hojas.

Los libros y cuadernos cuestan dinero a los padres, y no es cosa de que los sacrificios de los padres se desprecien de esta manera.

Si conservas limpio el carnet de Pelayo, que te acredita de patriota, también has de tener limpios los libros, que te acreditan de aplicado y cuidadoso.

Eta disziplina

Ez da erraza eskola esparruan disziplinari buruz hitzegitea. Bere egunerokotasunak eta definizio eta orientabide berri bat eman beharrak, ia gai tabu bat bihurtzen dute.

Hitzaren galkortasunak definitze zehaztua eskatzen du. Eskolaren instituzioa jerarkizatzen duten mantentze eta irauneraztean oinarrituz, ordena eta arau erabaki batzuetara uztartzea helburutzat lukeen elementu behartzaile bezala uler daiteke, eskolaren istruizio funtzio hutsa eta menpekotasuna ziurtatzearen, aurrez erabakitako zuzentasun batetatik desbideratzea galera zitea justifikatzen duena.

Baina honek erantzun ezaguna sortu du, zertan babesten den eta justifikatzen duten desbideratzeei buruz galdezka hasiz gero.

Erizpide moral baten sorrera haurraren, beraz, giza talde bakoitzak moral horri ematan dion definizio eta nagusi munduak proposatzen dizkion ereduaren imitapen eta barneratzearen arauera emango da, eredu disziplinario bat edo bestea jarraitzen duelarik.

Dena dela, edozein gizatalde definitzen duen zerbait badago. Bere funtzionaketarako, gizabanako nahiz taldearen eskubide eta betebeharren gehiengo eta gutxiengoak ziurtatzen dizkion arauak sortzen ditu. Honek, elkarbizitzarako arauaren ezinbestekotasuna frogatzen ez badu ere, bere baliogarritasuna egiaztatzen du. Haurrek edozein joku asmatu edo ohizko baten bariante bat

egiten duten momentuan egin ohi dutena ikustea besterik ez dago, arbitrariotasuna baztertzearen arau batzuk ezartzen saiatzen dira. Araua beraz, elkarbizitza erregulatzeko derrigorrezkoa deritzat, eta bere betetzea beraz, ondorio bat izango da. Bestea poetiko eta eszitantea izanarren, utopian noragabetzea da. Baina eskola esparruan gainera, disziplinak, ikaslea gizartean molda dadin behar dituen tresnen lapurketa suposatzen du.

Debatea, ikaslearen araua sortzeko eta errespetatzeko kapazitatearen, onarpen edo ukamenean kokatu beharko genukeela uste dut. Araua nola sortu eta ezartzen den ikusiaz.



Ikasleak bere ingurua autoerregulatze-ko duen gaitasunaren onartzearen atzetik trasfondo oso bat dago. Ez dago garbi, tratu, komunikazio, konfiantza eta partehartze gehiago eskatzen duen dinamika batetarako irakaslegoa gertatuko garenik, prozesu baten azken emaitzaz ustetan jabeturik, mogimendu ekonomia erizpide bategatik, dinamika horrek, bere baitan duen aberastasuna ezagutu arren, prozesu bera ezabatu gabe utziko dugunik.

Gauzak horrela, oinarrizkoa da metodologi faktorea hezkuntza munduan. Egun erabiltzen den metodologia funtsean pasiboa da.

Hain maiz aipatu den ikaste prozesuan eman behar den "aktibitate"aren ideak ez du programetan egokitzerik topatzen. Arrazoi ugari egon daiteke, baina irakaslegoak behar dituen prestaketa eta imaginazioa dira aipagarrienak. Hau garrantzizkoa da, bakarka atenditu beharrak eta ikaste erritmu ezberdinetara egokitzea oso zaila baita.

Ikasle multzoa bere interes, gaitasun eta betebeharratan zerbait homogeneo hartzeko tentaldia ulergarria da, hezkuntza lana laguntzen ez badu ere, irakasle-lana "betetzen" errazten baitu. Horrexegatik ikus daiteke hain hedatua eskolan gaur egun klase magistrala erdiko ziklotik aurrera. Eta denok ezagutzen ditugu kontzepzio hauek, toki gutxi duen, parte hartzeari dakazkion arriskuak, interes falta dela eta deuseztatua gertatuz gehienetan.

Eta hari honi jarraiki, erraz zaigu, testuinguru honetan, "indisziplinatua" deituriko jarreraren azaltzea aurrikustea. Denok jokatu izan dugu "A BARCOS", lo egin edo jarraitu izan dugu euli baten hegaldia amaierarik gabeko ordu haietan. Gogoratzen naiz zein zorte izaten zen leiho baten ondoan suertatzea eta kristalaren bestaldeko bizitza inbidiatu ahal izatea.

Ikasleak ez dakizkien gauzak asmatu eta aurkitzen goza dezala lortzen duen metodoak aldatuko du benetan eskola. Metodoak ikaslearengan interesa emanerazten duen egoera hortan posibilitatuko du ikasketa eta urrituko du hein handi batetan indisziplina.

Metodoa, beraz, funtsezkoa da. Iharduerak, ikasketa finkatuzetik gain interesa asmaerazten du, eta pasibotasunak



eta jasotze hutsezko aktitudeak deuseztatu. Hau oinarrizko printzipio bat da. Horrela, gehiegizko gidatasunean oinarritzen den iharduerak, forma autoritarioak hartu behar ditu ondorioak lortzeko, hau, jarrera autosozialak azal daitezkeen egoera aproposa izanik.

Eskola frakasoaren kausak ez daude (eta gero eta gutxiago), C.Iri (Inteligentzia koefizienteari) lotuak, ikaslearen eskola instituzioarekiko ezadaptatzeari, sozial ezadaptatzeari baizik. Hainbestetan aipatua den gizartearen balore nagusien krisiak, ekonomi krisia eta nagusi nahiz gazteen langabeziak, beraien zuzentzen den etengabeko kontsumo kanpainarekin batera, urrutiratzen ditu eskolak eskaintzen dienarengandik.

Nabarmena dirudi ere irakaslearen baitan balore krisia. "Demokraziak" hezkuntzan dauden gauza txar guztiak, frankismoaren ondorio hutsak zirenez, lurperatuz aldatuko zituela pentsatzeak suposatzen zuen "espejismoak", orain dela gutxi idazle nahiz hizlarien ahotan hain aipatua izan zena sortu du, desenkontoa. Heziketa, askoz ere konplexuago den zerbait dela, eta askatasun gehiagorekin lan egin ahal izateak ez duela arazoa konpontzen konturatuko gara agian.

Horrela, ikastaro uholde, metodo, material eta literatura zabal baten inportatzearen ondoren, ikasitakoaren zati bat praktikan jartzeko eta arlo honetan

ikerlan bat aurrera eramateko alferkeria eta desenkonta bat sumatzen dira.

Hezkuntza lanaren konplexutasunak eskola bera gaintzen du, bere lorpen eta frakasoak hedatuz, gizartean mihiztatzen (ensanblatzen) da. Gizarte honen barruan ez dute gurasoek kultur multzo homogeneo bat osatzen. Klase aberatsen artean, ideologi eta kultur interesgune berdintsuagoekin, samurrago gertatzen da homogeneotasun hau. Horregatik datoz errazago bat ideario nahiz arazo disziplinarioetan, seme-alaben heziketak suposatzen dien kostuak direla eta, esijitzeko parada duten heinean. Baina guri dagokigun munduan, hezkuntza publikoarena alegia, proiektu bat baino gehiago dago, eta, irakaskuntza publikoak suposatu ahal eta behar duenaren ideia garbi bat izan gabe gainera.

Disziplina kontzeptu bera nahasgarria da, eta hamaika interpretapen desberdin eman dakioke eskolan eta gehiago oraindik guraso eta eskolaren arteko lanera hedatzen bada. Bat etorri, erizpide berak izan eta iharduera bateratsu bat eramatea zaila da. Garbiki agertzen da hau guraso eta irakasleen artean, Batzar, Pedagogi Batzorde edo eskola gestioko edozein organutan arazo disziplinarioak eztabaidatzen direnean. Maiz bane funtzionamenduko araudi batetara heltzen da, eta inoiz, izendatu eta zehazten duen portaera zigorgarri ororen kasuistikara iritsi arte. Akats handi bat iruditzen zait, Kanpoko moral baten isladapena eta ziuraski asumitu gabea izango litzatekelako.



Haurren, nahiz gurea izango ez litzateken, eta denbora iraun beharko lukeena gainera, ideario baten adierazpena izango litzateke.


Egokiena printzipio deklarapen zabal bat litzateke, ikaslegoarekin dinamika sortzaile batetan bilakatu eta egokitze hau bat onartuko luketen postulatu batzuk, kontraesanak badirudi ere, irakasleen gidari eta dinamikatzaile iharduera baztertu gabe, hauek gerturatu bait litzukete emaitzak aurretik aipatu ditugun printzipioetara. Ez dut uste arau hauen sortze prozesuari funtzionaltasunaren balioa soilik eman behar zaionik, edozein helburu istruktiboren gaineratik geratzen den benetako helburu istruktiboen gaineratik geratzen den benetako hezitzaile balioa baizik.

Denon gogotan izango da zein gutxi irauten duten eskola ikasketek. Atzera begirakune bat botatzea aski da ikaske-ta haiek nola irauten duten ikusi ahal izateko. Harritu eta gorritzen gaitu, behar ditugunean (Geografia-txango bat planifikatzerakoan; Gramatika-hizkuntza ikertzerakoan; Historia-politika hitzegiterakoan; Arte-eliza bat bisitatzerakoan; e.a.) gogoratzen ditugun datuen zehaztasunak.

Bistakoa da ikasitakoaren erabilgarritasun erlatiboa eta arinki bada ere, metodologiari leporatu beharko zaio. Bada, topiko badirudi ere, jeneralki ekintza edo ihardueran oinarrituz, sortu, aldatu eta egoera ezberdinetan saiaturakoren ondorioek irauten dute. Iharduerak, beraz, oinarritzak izan behar du ere,

ikaslea bere baitan sortzen ari den, eta bere taldean eragiten duen erizpide moralean. Hortxe uste dut kokatu behar dela disziplina arazoa. Taldeak eraiki duenaren aurka erasotzea definitu daiteke indisziplina bezala.

Hurrengo pausoa, maila eta aldagarri ezberdinak izango dituen, eta erabat zehaztea ezinezko izango den jarrera indisziplinarioaren aurrean hartzen den jarrera izango da. Beraz, zer kontzetuaten den jarrera indisziplinario bezala: bere zigortze posiblea; nork hartuko duen bere gain zigortze funtzioa eta bere maila, une zailak dira. Eta bere



zailtasunik nabarmenena azken ondorioan, hau da, lortu nahi zena lortze-ez lortzean, datza. Akats berdinen aurrean irakaslego guziaren jarrera berdina ezinbestekoa da, beti ulertu izan den arbitrariorotasunaren "injustizia" baztertua gera dadin.

Baina puntu honetaraino iritziak, aurrekoa zalantzan jartzen duen faktorera heltzen gara, eta ikaslearen nortasunarekin lotuta egin behar den kasu bakoitzari buruzko azterketa da. Zigor-garri gertatzen den ekintzaren aurrean ikaslearen historia ahaztea, ikaslegoaren homogeneizatzean erortzea litzateke. Honek arazoa areagotzen du, hainbeste aldagarri kontuan hartzeak, aurreraxeago gaitzesten genuen arbitrariorotasunean murgil bait gaitzake.

Taldean eraiki eta onartu den araura lotze kolektibo bezala ulertzen den disziplinaren aldekoa naiz, beraz. Bere funtzio eta erabilgarritasunarekin batera, edozein alde inplikaturen arbitrariorotasuna baztertzen duenarena alegia.

Guzti honek, etengabeko elkarlan eta ikaslearekiko ezagupena ziurtatzen duen dinamika eskatzen du, kontuan hartuz, gai honek, gauzatze ezberdinak dituela etapa ezberdinetan.

Izan ere, 2. etapatik aurrera, programen esijentziak direla eta, irakaslearen etengabeko aldatzea sortzen da, ikaslego-arekiko ezagutze eta komunikazioa bereziki murrizteak, garrantzitsua bihurtzen du tutorearen figura. Honek, seriooki hartu beharko du bere gain dinamika, harreman estu batean, gelako batzar edo kontseiluen bidez, kritikak eta aportazioak jasoaz, eskolako bizitza, programa, ikasketak, denbora libre, e.a.-en berrikusketa eta balantzea eginez. Gure hezitzaile gaitasuna, dinamika honetan lan egiteko era talde bizitzaren baitan baldintzatuko da.

Kritika, plangintza, errespetoa e.a.-en lantzea da, eskolak, eguneroko bizitzan hauetako ohitura batzuk galdurik dituen gizarteari eskaini ahal eta beharko liokena, jarrera indisziplinario bezala agertuko liratekeen sendimenduak bideratuz era berean.

Disziplina tabu bat izaten jarraitzen du. Badirudi, aipatze hutsarekin politika eta eskola autoritarismoarekin, pedagogi berrikuntzaren ikuspegitik aldatu nahi den guztiarekin lotzen dugula.

Baina eskola munduan instituzionatutarik dago bestalde. Erronka, bere razionalizatzean dagoela uste dut.

Lander Sarasola Ituarte



“Esperientziak” sail honetan, gure artean, gugandik hain hurbil eta askotan hain ezezagunak diren hainbat esperientzia jaso nahi genuke. Batzutan esperientzia horiek positiboak, pedagogi berri baten aldekoak eta beharrezkoak irudituko zaizkigu, bestetan ez hain egokiak edo kritikagarriak, dena den, beti ezagutu behar direnak dira, jakin dezagun albokoa zertan ari den eta bertatik ondorio positiboak ateratzeko bidea egon dadin.

Oraingo honetan, Langile ikastolakoek (haur, guraso, irakasle, laguntzaile...) beren lanaren eta asmoen berri ematen digute, nola, zer eta zertarako ari diren lanean.

“Langile Ikastola” bide berriak urratzen

Gure pedagogiaz

Irakaskuntzari irtenbide berri bat eman nahi geniolako jaio ginela esaten dugu. Baina, nola ulertzen dugu irakaskuntza moeta berri hau? Zalantzarik gabe pertsonaren hezketa orokor baten barruan.

Haurrak, gizarte konkretu batetan finkaturik dagoenez, bera bizi den ingurua ezagutzea eta ulertzea derrigorrezkoa du, bere errealitatea aldatzeko eta hobetzeko gai izan dadin.

Helburu hauek bete ahal izateko, eskolak, behar dituen tresnak eta bideak eskuratu behar dizkio haurrari.

- Haurrak ingurua ikusiz eta esperimendatuz jasotzen dituen datuak, liburuetatik soilik hartutakoak baino aberats eta biziagoak direlako bultzatzen ditugu irteerak.

- Lan intelektual eta eskulanaren artean etenik sortu nahi ez dugulako, biak pareatu nahiez, tailerretan antolatzen dugu eguneroko lana.



- Konpetenziaren aurka gaudelako, lan pertsonal itxi baten aurrean elkar laguntza eta batak besteari erakustea eragiten dugu, talde lanaren bidez. Aldi berean eskolan erabiltzen den materiala sozializatuz.

- Eguneroko lana eta arazoei erantzuteko, haurren asanblada bultzatu dugu, era horretan bakoitzaren iniziatiba eta kritikotasuna lantzen joan daitezten.

- Masifikazioaren aurrean, harreman pertsonal eta bakoitzarekikoa azpimarratzen dugulako, gela bakoitzeko haur kopurua kontutan izaten dugu, ikasle eta irakaslearen artean konfidantzazko harreman bat sortu eta indartuz eta ikasleen artean ere gauza bera eginez.

- Pertsonaren hezketa jaiotzetik hasten denez gero, gure helburu berdinak zituzten herriko bi haurtzaindegirekin bat egin dugu eta 0tik 14 urtetaraino eratu dugu irakaskuntza.

- Euskara, irakaskuntzarako gai eta bide izan behar duelako, gure herriaren berreuskalduntze lanari gogor ekin behar diogulakoan gaude. Euskera promozionatuz eta euskal kultura, herriko arlo guztietara zabalduz. Horregatik, haur erdaldunak integra daitezen, bide berriak urratzen hasiak gara.


- Erlijioa opzio pertsonal bat denez, ikastolako orduetatik kanpo eman behar dela deritzaigu. Benetako erlijio edo ideologi aukera libre baten alde gaudelako, ez dugu inolako inposaketarik onartzen, irakaskuntza arloan batez ere.

Eskola, gelek ez ezik guk osatzen dugulako, jakintza sortzen den lekuan mamitu behar dugu, eta dudarik gabe, eguneroko bizitzarekin etenik ez duen eskola baten alde gaudelako, pedagogia aktibo batetan oinarritzen dugu gure lana.

Ikastolan hastean, haur eskola edo eskolaurrean izaten duenez haurrak bere eskolarekiko lehen harremana, gure eskolaurrearen antolaketa nola eta zergatik egin dugunaren arrazoiak azalduko ditugu lehenik, eskolaurreko irakasle baten aportazioaren bidez.

Eskolaurrea

Eskolaurrea, 0tik 6 urteetaraino haurren beharrei erantzuteko dugun hezketa garai horri, deitzen diogu.



Etapa hau bi zatitan bana dezakegu: 0 urtetik 3 urtetara eta 3tik 6 urtetara. Lehen zatia haurraren identifikatze eta baieztatze fase bezala hartuaz eta bigarrena finkatu eta askatzearen garaia bezala jotzen dugu, inguruarekin harremanetan jartzea posibilitatuz.

Edozein hezketa prozesuan, bere aurrebideak markatzen dizkigun arauetatik abiatzen gara:

- a) Fisikoa:
 - Mantenua
 - Lokomozioa
 - Manipulapena
 - Koordinaketa
- b) Giza afektiboak:
 - Autoestimazioa
 - Lagunekiko harremanak
 - Askatasuna
 - Helduekiko harremanak
- c) Irudizko jolasak (helduen mundua errepresentatzea):
 - Jestu, gorputz eta aho hizkuntza
 - Abstrakzioak eta irudipenak
 - Gorputzaren ezagutzea

Hau dena, pentsamenduaren aurrerabidea kontutan harturik, ikasteko beharrik, grafismoaren bilakaera, abstrakzioak, hizkuntza etab. baloratu ahal izateko.

Lehen esana gogoan izanik, gelen antolaketa, materiala, aktibitateak eta hitz batetan gure lan egiteko era azaltzera goaz.

Urte bete arteko haurraren beharra, bakarkako eta afektibo atentzioan dartzanez gero, oso talde txikitik daukagu. Mantenua, ura, parkea, etab. instalazio propioetan dituztelarik.

Urte betetik aurrera, eta batipat oinez ikasten duten neurrian, haur-heldu arteko dependentzia ttikitzen hasten da, lagun berriak bilatzen ditu haurrak, eta gelan eta taldean lan egiten hastea posibilitatzen digu. Honela, materiala manipulatu, eta beti aktibitate librearen aukerarekin esperimintatuz doa, bere gorputzaren eta zentzuaren bidez, inguru ezagutuz.

Elkarrekin gauzak tratatzeko gai diren hainean, bilera eginez hasten da eguna. Haseran, goizean egingo diren aktibitatez hitzegiteko eta, geroago, egun osokoaz mintzatzeko. Aldi berean, heuren gertakizunak adierazteko, ipuiak kontatzeko, etab. Gero, aktibitate konkretotara pasatzen gara, taldean ala bakarka, edo bestela, ezagutu nahi dugun zerbait bisitatzera ateratzen gara, erabaki denaren arabera.

GELAREN ANTOLAKETA ETA MATERIALA

Gela guztiek posibilitate berdinak ematen ez badizkigute ere, tailerren aurreprozesu bezala, gela bakoitzean "txoko" ezberdinak gertatzea posible da: haroztegia, sukaldea, denda, pelukeria, ipuiak, puzzleak, buztina, etab. Garrantzizkoa da, baita ere, lasai egoteko txoko goxo bat izatea, eta haurrak jakin dezala zerbait egin nahi duenean nora zuzendu behar duen eta materiala bere esku edukitzen.

MATERIALA

Txoko bakoitzak bere materiala du. Adibidez aroztegiak: iltze, egur, torloju, mailu, zerra etab. edo pelukeriak: gantxo, pintza, orrazi, ile lehorgailu, rulo, guraiza, ispilu, etab.

Material orokorra:

- Margotzeko kaballeteak, margo, tenpera, etab.
- Arbela (koloredun margoak, klariona...)
- Magnetofonia (musika entzun eta grabatzeko).
- Ginoleko kurtina eta panpinak.
- Puzzle eta ipuien txokoa.
- Disfrazak (heurek ekarritako erro-pak), kareta.
- Diapositiben proiektorea.

- Kurpil, soka, makila, poteak...
- Heurek zaintzen dituzten abere eta landareak.
- Neurri, kolore eta kalitate ezberdinetako paperak.
- Buztina, plastilina, puntzoiak, guruzak, kola, etab.
- Koltxoi eta kojina.
- Etxetxoak.
- Panpinak eta panpinentzat jantziak.
- Oihal, hari eta jostorrazak.

Material guztiek balio dezaketela pentsatzen dugunez, gelara ekartzen duten gauza guztiei probetxua ateratzen saiatzen gara.

Gelako trasteak denon artean jasotzen ditugu.

Azkenik, esan nahi dugu, eginkizun guzti hauen aurrean, irakaslearen egitekoa, batipat, gela dinamizatzean, animatzean eta koordinatzean dagoela, aportatuz eta jasoz, bai haur bakoitzarekin, bai talde mailan, dauden esperientzi guztiak.

Eskolaurre eta tailerretan lana eratzearen artean, haurren hezketa prozesuan etapa garrantzitsu bat gelditzen zaigu, irakurketa-idazketa lantzeko garaia alegia. Luze egingo litzaiguke zehatz-mehatz eginkizun hori nola eramanen den agertzea, baina hitz bitan aipatuko ditugu urratsik nagusienak:

- Metodo naturalean oinarritzen dugu, batipat, gure lana, haurren aurrerabidea errespetatuz.

- Irakasle berdinarekin prozesua hasi eta amai dezaten ahalegintzen gara.

- Haurren testu libreak ditugu gure irakurgai nagusienak, motibazio gisa korrespondentzia eta aldizkaria bultzatuz.

Piskanaka arratsaldetan, beste gela batzuekin nahastuz zenbait tailerretan lanean hasten dira, gero tailerren antolaketa orokorrean integratzea posibilitatuz.

Tailerreko esperientzi honetatik jasotako apunte batzuk aurreratzen dizkizuegu, hortan ari den irakasle batek eginak:

● Tailerretan lana:

- Zenbat tailer
- Orduetgia
- Orientabidea

● Tailerren arteko harremanak**● Tailerrak eta ingurua****● Maila ezberdinen prozesuaren barrenlotura.****Tailerretan lana**

Pedagogia mailatik, Langilen ezarri den tailerretan lana egiteko sistema arrazoi-ahala izateko, "PLAN DALTON", Freineten teknikak eta "Pedagogia berria"ren korranteek egin dituzten aportazioak aipa beharko genituzke. Aportazio aberatsenetako bat Piageten lana izango dugu, lanaren bidez inguratu nahi gatzazkio, Antzuolako taldearen praktika eta ikasketei gure mailan jarraituz.

Azter ditzagun, bada, tailerrak:

O.H.O.eko 2. edo 3. mailetatik hasita, ikastola, tailerretan eratua dago.

GOIZEZ:

- Hizkuntza
- Gizartea
- Izadia
- Matematika

ARRATSALDEZ:

- Buztina
- Margolana
- Txotxongiloa
- Komikiak-antzerkia



- Aroztegia
- Papera eta kôla
- Musika
- Jostundegia

Goizeko tailerren ordutegia hau dugu:

- 9etatik 9 t'erdietara, **orientabideko** bilera, 9 t'erdietatik aurrera hurrek tailer bat aukeratzen dutelarik.
- Tailer bakoitzak haur kopuru-muga bat du. Adibidez 84 hurrez osatutako talde batetan, tailer bakoitzak 21eko haur kopurua izango du.
- Zer egiten du haur batek tailer batetara joaten denean?

Bakarrik edo taldean, tailer hortarako aurrez egindako programa lantzen du. Programa, kurtsoko bateko haur guztien artean egiten da (izan daiteke eskola osoak egin eta talde bat baino gehiagoren artean), goizeko lehen orduko asanbladetan.

Asanblada hauetan programa egitez kanpo, beste zenbait lan moeta egin daitezke:

- Kurtsokoen artean harremanak izan.
- Irteeretako proiektuak egin.
- Lanen aurkezpena.
- Taldearen ebaluaketa.
- Zailtasunak dituzten gauzetan, irakasleak argibideak eman.

Tailer bakoitzean lan moeta ezberdinak egon ditezke martxan:

- Talde lana
- Bakarkako lana.
- Garbitasun, konponketa, liburutegi, fitxero, etab-etako lan orokorrak.

Horrela, asteko edo hamabostaldiko lanaren orientabideko bilera honen ondoren, haurrak bere tailerra aukeratzen du eta bakarrik edo taldean egin duen programa aurreratuko du.

Haurrak tailer guztietatik pasa behar du. Izan ere, tailerra aukeratzea garrantzitsua bada, ez da garrantzi gutxiagokoa tailer guztietan lana egiten ikastea.

Lan hauek gelan egiten dira batzutan eta ingurua aztertuz bestetan.

Dalton-en Planean, tailer hauetako bakoitza haur lanaren ikerketarako leku kontsideratzen da. Leku honetan haurrak bere dinamikarako behar duen motibazio eta orientabide guztia aurkitu behar du, gaia lantzeko eta lana osatzeko behar duen material eta kontsulta liburuekin batera.



Herriko pertsonen aportazioekin aberats daiteke tailerra, heñuren esperientzia hurrei azalduz, ahal denean errealitatean ikusiz, edo ezin denean gelara eramanez. Adibide bezala, pentsatzen dugu izadiko aktibitate bat izan daiteke la haurren elikadura hobeagotzea. Horretarako ez da beharrezkoa maixu edo andereñoak gai hori ematea, sendagile edo gai hori ondo ezagutzen duen pertsona batek egin dezake lan hori nola gelan ala kanpoan.

TAILERREN ARTEKO HARREMANAK

Beste gauza bat litzateke tailerrak nola ulertzen ditugun ikustea. Hau da, bata bestearekin zerikusirik gabeko lan toki bezala, edo ta gai berdin bat leku ezberdinetan, aurrerabide berdineko oinarriak lantzeko hartzen ditugun.

Bi eratara antola ditzakegu tailerrak:

- Esperientzia bakar baten funtzioan.
- Prozesu edo funtzio mental baten araberan.

Lehen kasuan izadi eta gizarteko tailerrek emango lukete gaiaren ardatza.

Adibidez: "Abereak" izadiko gai bat izango litzateke, baina beste tailerretan posible genuke gai horrek eskeintzen dizkigun zenbait alderdi ikastea.

Bigarren kasuan, Matematikako tailerrek eramango luke ardatza, "ikasketenak" (Antzuolan esaten duten bezala).



Klasifikapena balitz lan gaia, beste tailerretan hori indartuko litzateke, aukeratutako gai ezberdinen bidez.

BARRENLOTURARIK LORTZEN AL DA MAILA EZBERDINEN PROZESUAN?

Uste dugu lortzen dela nolabaiteko barrenlotura bat maila ezberdinen artean eta hori posible dela ikusten dugu, irakasleen artean harreman onak daudden bitartean.

Ez dugu uste gure ikastetxean, eskolaurretik O.H.O.era pasatzerakoan aldatarik somatzen denik, gure hurrek behintzat ez dute nabaritzen.

a) Gelen itxura funtsean ez da aldatzen: mahaiak, lanerako txoko ezberdinak, bi eta bost urteetan zehar zituztenen antzerakoak dira, baina heuren adinera egokituak.

b) Ez da testu libururik erabiltzen. Kontsulta liburuak bai.

TAILERRAK ETA INGURUA

Tailerrak ezin daitezke uler, eskola eta irakaskuntza tradizional baten ikuspegitik.

Ez ditugu ulertuko inguruarekin lotutako eskola ireki baten ikuspegirik ez badugu.

O.H.O.eko tailerren bidez, espresioa, esku lanak, musika, etab. lantzen dira.

Txikiagoen geletan egiten diren aktibitateak dira denak.

Askotan, etapa batetik besterako urratsa irakasle berdinarekin ematen dute eta zenbaitetan gela berdinean. Beste zenbaitetan, gelaz eta irakaslez aldatzen dira, baina eskolaurreko beste edozein kurtsotan egin dezaketen eran.

Adibidez, Irakurketa-idazketa prozesua (arrazoi nagusiren bat tartean ez bada go, behintzat) irakasle berdinarekin ematen dute.

Esan genezake, bada, gure ikastolan 0 urtetan hasten dela hezketa eta progresiboki jarraitzen dela haurren aurrerabidea O.H.O.ren bukaerara iritsi arte.

* Lehen, "tailerretan lana" aipatzera koan ez dugu "Arratsaldeko lana" aipatu, beraz, orain azaltzen dena litzateke, baina 1. apartadoan kokatu behar da.

ARRATSALDEKO LANA

Arratsaldeko tailerrak, esku lanetako tailerrak dira. Hauen antolaketa goizekoenaren antzerakoa da.

Haur bakoitzak tailer bat aukeratzen du eta tailer horretan jarraitzen du bere lana amaitu arte. Horrela, tailer ezberdinetatik pasatuz doa.

Esku lanetako tailerrek eskeintzen dituzten posibilitateetako bat gurasoek partizipatzeko duten aukera da.

Orain aipatuko duguna, tailer batetako lana nolakoa izan beharko lukeen da. Ez bait da gure lana gelan kokatzen. Inguruko esperientziak jaso eta aztertuz gurea egin ahal izateko bide bat ditugu tailerrak.

Eskolak, nahita nahiez, inguru konkretuari loturik egon behar du.

Lantegi bat ikustera joatea, mendira irtenaldi bat egitea... ezin daitezke inolaz ere eskolako orduetatik kanpo egiten ohi diren ibilaldi edo irtenaldi atseginak bezala kontsideratu. Non gelditzen da orduan eskola? Zein da bere egiazko betebeharra? Eskola, haurrek egiten dituzten esperientziak bilakatzeko tresna da. Bertan eta bere bidez gure nortasunaren arlo eta ezaugarri guztiak bilaka ditzakegu, errealitatearekin eten bat izan gabe, errealitatea bera bait da eta bera errealitatearen barruan bait dago.



Teknika aberasteaz gain, tailer ugari egoteak haur gutxiagorekin lana egitea posibilitatzen digute.

Kultura ez dela gutxi batzuren monopolioa bakarrik eta guztiok garela horren eragileak, haurrak ikus dezan aukera ematen digute tailerrek, bakoitzak bere esperientzia, teknika jakinduria besteei eskeiniz, eta hori garrantzitsua da guretzat.

Hemen azaltzen ditugun ideia hauei zehaztasun haundiagoa ematearren, lan konkretu bat aurrera nola eramango genukeen agertzeraz goaz, oinarri bezala garatu dugun argibide bat hartuz.

Abiapuntu bezala, adreilu langintzaren ikasketa hartu da, gure inguruan ezin gehiago presente dagoen elementua.

Gai honi emandako lehen begirada batek, hauxe erakusten digu: industri prozesu honetan erabiltzen diren lehen gaien dibertsitateak bi galdera planteiatzen dizkigula: beraien izaera eta etorki geografikoa.

Bere izaera enpresako laborategian egiten den analisi kimiko baten bitartez ezaguna da. Ikasleek analisi hauen garapena ikusten dute eta dagokien datuak entrepresak ematen dizkie.

Materiale hauen bereizkuntzek, liburuetan azaltzen den izaera abstraktua uzten dute, eta adreilu moeta bata edo bestea fabrikatzeko orduan, kontuan eduki behar den zerbait izatera pasatzen dira, adreilu bete behararen arabera: labe edo edifizio baten eraiketa esate baterako; suposa daitekeen bezala, desberdinak izan behar dutelarik, beste ezergatik ez bada ere, jasan behar dituzten tenperaturen ezberdintasunagatik.

Lehen gai hauen, hartxintxa edo area eran datozkigunak, arazo bat planteatzen digute, hau da, ea naturan normalki modu honetan agertzen diren ala prozesuren bat pairatzen duten. Batzuk dauden bezala agertzen dira, baina beste batzuk, minerale blokea desegin eta txikitzearen ondorio dira.

Lan prozesu hauek nola ematen diren ikusteko beste nazio horietara joatea, ekonomikoki ezinezkoa denez, bertako harrobi bat ikustearekin konformatu behar dugu. Izan ere, industri prozesu horiek ez bait dute beste herrietan ematen direnekin ezberdintasun haundirik. Hau dena, noski, produzio bideen internazionalizatzea dela medio, eta multinazionalen botereagatik, herri bakoitzaren aberastasun gorabeherengatik baino gehiago.

Etorki geografiko hain ezberdinak izanik, salmenta erlazioak aztertzeraz eramaten gaitu haseratik; herri txiki batetako entrepresa zenbait nazioarekin harremanetan ikusten dugularik. Orain berriz, zera ikusten dugu, herri horiek ere lan egiten dutela, esportatzen dituzten aberastasunak produzitu egiten dituztela, etab., eta honek jakin mina sortzen digu beste nazioak direla eta, bere geografia, arraza, kultura, egoera politikoa, erlijioa, folklorea, historia, garraiabideak ezagutzeko.

Langile ikastolaren ideologi eta historiko prozesua

Zergatik jaio zen "Langile"

Langile ikastolaren historia, etapa ba-koitzean aurrera bultzatu duten ekintza edo oinarriko ideez osatuta dago, prozesu iriki eta progresista batetan. Gehienetan guk ere epe luze batetara susmatzen ez genituen urratsez horniturik.

Ikastolak, orokorki, hasiera batetan behintzat, euskera mantendu eta bilakatzeko jaio ziren, Gobernu zentralak politiko eta kultur arloetan zapalketa gogor bat zeraman garaian. Beraz, Langile ez da ezerezetik jaio, kontestu orokor batek markatuta baizik, eta gainera Hernanin ematen diren baldintza konkretu batzuren pean. Borroka, pixkana pixkana, herrian (Hernanin) dauden posizio ideologiko eta politiko argitzen doa, aukera emanaz arlo ezberdinetan norberaren burua klasifikatzeko eta aukerak egiteko.

Langile jaio aurretik, Hernanin beste ikastola bat zegoen, guztiz "peneuvista", itxia, demokratikoa ez zena, klerikala eta pentsatzen zutenentzat tokirik gabekoa. Gauzak horrela izanik, ikastola honek, jestionan parte hartu nahi zuten belaunaldi berriekin minoria zen garai hartan zuzenki topo egin zuen, aurkako jarrerak eman ziren. Belaunaldi berri horiek ez zuten aukerarik izan, zaharrenek ezertarako posibilitaterik eman ez zitelako.

Oraingo egoeratik begiratuta, ezin ukatzekoa da, orduan genituen helburuak oso urriak zirela, edo oso motzak behintzat. Orduan, ikastolari haize demokratiko bat eman nahi zitzaion, edonork parte hartzeko irekia, eta noski euskeraz bilakatuko zuen ikastetxea izatea. Baldintza hauen pean jaio zen gure ikastola, hasieran "parvulario-catequesis" zeritzana izanik eta Elizatxo auzoko hamabiren bat haur hartzen zituelarik. Hau da, Elizari interesatzen zitzaion laguntza pean zegoen "geto" txiki bat, baina izugarriko borondate demokratikoa genuela eta arlo batzuetan oso progresista, oso urrutia, ia guk ere jakin gabe, eraman gaituzten predisposizioek. Oraindik ez ginen ez ikastola, ez kooperatiba eta gutxiago Langile.



Lehen ideologi-pedagogi borrokak

Lehen aipatu dugun bezala, herriko sektore batek edo batzuk eramandako borrokak, aukera eman zigun gure ikuspegia irekitzeko eta auzoko parbulario horretan ohizko pedagogiaren aurka posizionatzeko, oraindik sikologista, etapista eta edipianoa zen pedagogia, baina aukera eman zuen guraso eta seme-alaben arteko harreman autoritario eta betikoa puskatzeko. Guretariko gutxi batzuk, hiruzpalauk, deskubritu zuten garai hartan, klaseen arteko borroka, burgesiaren egiturazko eta superegaturazko zapalketa. Ez zen ideologi klarifikatu bat, baina bai sistemarekiko rupturista. Horrekin batera, nazio zapalketa eta klase zapalketaren arteko ezberdintasunak eta harremanak bereizten hasita geunden. Garbiago azalduta, minoria horrek ulertu zuen "españolistak" eta "nazionalistak" batera joan zitezkeela bide berdinetatik, lan konkretuetan sor zitezkeen kontraesanak gaindituz.

Kontraesan nagusiak, epe motzera begira egiten genituen estratejietan agertzen zitzaizkigun. Espero genuen bezala, ezin ginen kanpoko eta presioetatik at egon, gure herrian zeuden ezberdintasun politiketatik aldendu.

Hain "sektario" ez izaten ikasi genuen, "etiketak" gainditzen (bagenituen eta, eta gurasoen artean irekiagoak izaten, denok ez bait genuen formazio edo "deformazio" berdina.

"Sikologismo" huts batetatik, nahiko azkar pasa ginen Freinetek hitz egitera, pedagogi askatzaileaz, Piaget eta beste teori batzuek, hau, guraso askorengan sorpresa haundiak sortu ondoren. Dena den, gure artean konfidantza giro bat sortzen hasi zen eta, honek, egoera asko gainditzeko aukera eman zigun. Gure artean sortutako konfidantzazko giro demokratiko honek, orain arte guretzat ezezagunak ziren arlo batzuk lantzeko jarrera hobetoago bat eman zigun, gehienbat marrazki munduan zeuden metodo berri eta teori pedagogikoak.

Aipatu behar da, zuzenketa pedagogiko eta ideologikoa orokorki, orain bezala, irakasleek eraman zutela, **Gordailu** eta **Herri Gaztedi** ideia horien iturri izanik.

Langile Kooperatiba

Nahiz eta "parvulario-catequesis" hori haunditzen joan, hogeitamarren bat haur izan arte, ez ginela gai gehiago irekitzeko, "getoa" puskatzeko. Ez genuen asmatzen zein bide jarraitu behar genuen. Ekonomia aldetik ez genuen inongo ondasunik eta, gainera, "kateketika" ezik inongo ezer irakasteko ilegalak ginen. Gure artean oraindik ez zegoen guraso talde batek, muga horietatik ateratzeko bide bat eskeini zigun.

Horrelakoetan gertatzen den bezala, elkarren arteko mesfidantzak eta kritikak agertu ziren. Bi aldeak azaltzen genituen aurrera begira garbien ikusten genituen arriskuak. Batzuek, pauso hori eman behar genuela esaten zuten, gure esperientzia besteei ireki behar zitzaiela, besteek, nahiz eta ados egon, gogor aipatzen genituen horrek zekar-tzan arriskuak: gure ideoloji batasun eza, kalean diferentzia politikoak gaintzeko zailtasunak, zentro bezala kontsolidatze eza, ilegalak izatea, ekonomi bitartekoen eza, etab.

Heurek, kooperatiba egitea aipatzen zuten, hutsune legala gaintu ahal izateko, guretariko batzuk, arrazoi ezberdinak zirela medio, ez genuen Elizaren babesa utzi nahi.

Irtenbiderik gabe aurkitzen ginen, gure seme-alabak O.H.O. egiteko garaira heltzen ari bait ziren eta ez genekien non hartuko zituzten, Urumea ikastolak ateak itxi bait zizkigun.

Azkenik, bilera, eztabaida eta ahalegin askoren ondoren, guraso horiek proposaturiko bidea hartzea erabaki genuen, kontsumo kooperatiba izango ginen irakaskuntza sekzio batekin, eta gainera, konplejo pixkatekin, gero onerako hainbeste markatuko gintuen izena erabaki genuen, "Langile"

Egia da, berriz ere ez genuela etorkizuna oso garbi ikusten, ez genekiela zertara behartuko gintuen horrek, nahia garbi zegoen, ondorioak ez.

Bitartean, pedagogi sistema argituz doa, indartuz, aurrekoen "eskola berdineko" irakasle berrien aportazioei esker. Reafirmazio hori astero guraso eta irakasleak bilduz ematen da, gurasoek askotan ez dute garbi ulertzen, zalantza asko dute, baina beti aurrera begira.

Junta guraso eta irakasleek osatzen dute. Hurrek ez zuten parte hartu kuestio demokratiko honetan eta egun, oraindik, ez dugu kontraesan hau gaintu. Demokratikoki funtzionatzen dugu eta postu garrantzitsuenak "figuratiboak" besterik ez dira. Juntak asko



Kooperatiba antolaketaren sendotzea

Kooperatiba legalki onartu eta guraso talde dexentea sartu ondoren, gobernu organo batzuk osatzeko premian aurkitzen gara eta horrekin batera ikastolari orientabide berri bat eman nahi diogu. Ez dugu nahi ikastetxea soilik izatea, herrian beste arlo batzuetan ere sartzea beharrezkoa iruditzen zaigu, eta guran isladatu dadila izan nahi dugun ikastola herrikoi hori.

Ordurarte Urumean zeuden Floridako parvularioarekin bat egin ginen. Ereiño-zuko parvularioak bere berezitasun batzuk direla eta, nahiz eta gure filosofiarekin ados egon, nahiago du bere aldetik jarraitzea.

Asanbladan junta zuzendari bat hautatzen da, eta honekin batera lantalde batzuk; pedagogi taldea, ikastola barenan alternatibak eman eta lana egiteko, besteak herria eta ikastolaren arteko harremanak landu eta bultzatzeko.

eztabaidatzen du, baina erabaki inportanteak asanblada orokorrean hartzen dira, bertan, komisiotan bezala, Herri edonork parte har dezake. Hau, laister joan zitzaigun pikutara, parte hartzen zutenak, gure ustez, kontrola eramatearren eta beren mesfidantza asetzearren bait zebiltzan.

Ikusten duzuenez, hasierako oinarrizko helburuek, nahiz eta sinpleak izan, izugarriko parte hartzeko eta dinamika demokratikoa eramateko aukera ematen dute.

Ikastolaren bilakaera auzoka

Bi parvulario ezberdin elkartzeak, elkarren artean urruti dauden bi auzoak, herri erdian ez pilatzeko aukera ematen digu, hau gure ideologiarekin bat letorke, uste baitugu haurrak bere ikasketak bizi den ingurunean jaso behar dituela.

Guraso guztiak ez zeuden honekin ados, gehienbat, honek, lehendik ga-

restia den hezketa pribatua, gehiago garesti zezakeelako. Eztabaida hau, gure ezari esker gainditu genuen, nahiz eta kontraesana iruditu. Udaletxera jo behar dugu lokalak eman diezazkigun, lokal hauek herrian zehar banaturik dauden "bajoak" izaten dira.

Nahiz eta lokal hauek oso kondizio txarretan egon gehienetan, eta, beraz,

Euskaldun eta proletario ikastola

Normalean gure herrietan, Hernanin eta Hernani bezalakoetan bederen, auzoetan etorkinak bizi dira. Hauek, gehienetan ekonomikoki, sozialki eta kulturalki marjintuak aurkitzen dira. Gu

eroa edota karitatezko zerbait izan, izugarrizko ondorio ekonomikoak eman dizkigu, eta sumatzen dugu beste arlo batzuetan ere. Aipatu behar da, bat edo bi kenduta, inork ez dakiela bakoitzak zenbat ordaintzen duen. Uste dugu, sistemak ezartzen dituen ezberdintasun ekonomikoak murrizteko bide bat izan dela, eta horrela beste modu batetan inoiz ezingo luketenak, gaur egun ikastolan daudela (gehienbat irakaskuntza pribatua hain garestia izanik). Sistema hau partiketa zuzen bat egiteko ahalegina da, nahiz eta jakin, partiketa hau klase herrikoien artean egiten dela eta beti bezala "inpuesto" edo berdintze nahi honetatik betikoek, goi klaseek, alde egingo dutela.



Elkarlana eta hurbiltze ideologikoa

Herrira irekitzeko gure ahaleginek, gure aurrerakoitasunak, klase herrikoiekin konpromisoak, gure behar ekonomikoek eta lokalen egoera eskasak bultzatu gaituzte elkarlan estuago bat egitera. Batzutan nahiko genukeen baino parte hartze urriagoarekin, baina beti elkarlan estu eta aberats batetan.

gurasoengan nahiko inseguritatea sortu, haurrak askoz lasaiago bait daude ongi eraikitako ikastetxe batetan, guraso askok matrikulatzen du bere haurra gure ikastolan. Aldi berean ikastola orokorki aberastuz doa auzoetako problematika eta borroka ezagutzen.

Pixkana-pixkana herrikoiak izaten ikasten goaz, baina ez bakarrik teorikoki, baizik eta praktikoki gehienbat.

Ahaztu ezinezkoa den beste arlo bat genuen, eta praktikara eramatea zaila egiten zitzaiguna, "Langile" izena, hau da, behartsuenen interesak defendituko dituen ikastola, eta ez teoria mailan bakarrik. Arlo honetan ere, ados geunden eta gaude lortu nahi genituen helburuekin.

Hurrengo apartaduan ikusiko dugu ze eragin izan duen auzoka banatze honek soziologi ikuspegi batetatik.

auzoetan egonik eta gure aktibitatea bertan bilakaturik, lortu da, neurri batean behintzat, gu beraiengana edo heurok guregana hurbiltzea. Honek, euskeraren irakastea birplanteiatzera garamatza, ezaguera linguistikoaren neurri ezberdinetan. Honek, berreuskalduntze prozesuan arazo latzak dakartza, pedagogikoak, psikologikoak eta ekonomikoak, guztiz konpondu ezin izan ditugunak, baina bai planteiatu eta arazo horiekiko sensibilizatu.

Ekonomi elkarlana

Norberekeria eta egoismoa gaindituz joan dira Langilen, eta horrek eraman gaitu kuota, hileru ordaintzen dena, borondatezkoa izatera. Bakoitzak nahi duena edo ahal duena ordaintzen du. Hau, nahiz eta batzuentzat utopikoa,

Ez dugu ahaztu behar ere, ikastolak eragin zuzena izan duela, barnetik eta kanpotik, ideologi kriterioak batzera-koan, eskema zaharrak gainditzera-koan, etiketak eta sektarismoak alde batera uzteko eramandako borrokan.

Gaur egungo sistema demokratikoa

Etengabeko borroka aurrerakoiak, Langile barnean eramandakoak, bere fruituak eman ohi ditu eta ematen ditu.

Ikastola haunditzerakoan ohartu ginen gurasoek parte har zezaten ez zirela nahikoak ez juntak, ez lan komisioak, ezta ere asanblada, zeramaten bidez jabeturik.

Aurrerabideak urratzera irekita gaude, gugandik hurbil zegoen ikastola batetan eraman nahi izan zuten (nahiz eta ez burutu) esperientziaz enteratu ginen. Bertan, oinarriko funtzionamendua asanblearioa zen, etengabeko lanean eta geletan egiten ziren deba-teetan oinarriturik. Horrela hasi zen, gauregun oraindik daramagun esperientzi berria. Gela bakoitzeko bileretik aparte, beste bilera batzuk daude, astero edo hamabostero, gela-buru-aren artean, hauek besteen ordezkari bihurtuz. Ordezkari hauek "zentro" guztietako geletan sortzen edo egiten diren lan eta eritzien koordinatzaile lirateke. Horrela, burokratizaziorik ez egotea eta gela bakoitzak beste denekin harreman zuzena izan dezala lortu dugu. Era honetan, egun batetan zentzurik ez zuten **Junta kentzea** lortu genuen.

Azken erabakiak asanblada orokorrean onartzen dira. Bideak demokrazia zuzenaren hildotik doazela esan genezake, asanbladaren hildotik, baina lehen baino efikazagoak dira, botatu baino lehenago hobeto enteratzen bait gara, gela-buruaren bidez, arazo konkretu eta orokorrez.

0-tik 14 urtetara doan hezkuntza zikloa

Hasierako Langilen, gurekin batera bi haurtzaindegik eman zituzten lehendabiziko urratsak, baina gero, pentsakera ezberdina eta sektarismoak zirela medio, bere aldetik joan ziren. Beren bidean zehar, eta politiko eta pedagogiko esperientzia dela eta, ohartzen dira, ohartzen gara, gauza gehiagok batzen gaituztela, urrutiratu baino. Eta alde batetara utzita aintzinako ezberdintasunak, elkartzeko momentua heldu dela iruditzen zaigu, nahiz eta ekonomikoa bezalako zailtasun asko egon.



Egoera berri hau, positiboa izan da denontzat, gure oinarri pedagogikoak sendotuz eta koerenteagoak eginez. Batzuentzat positiboa izan da hezketa 0 urtetatik hasi zutelako, eta bestentzat heurengandik hurbil dauden sektoreekin harremana izateko aukera bat suposatzen duelako.

Horrela, herrian dauden gure aurkako planteiamentu ezberdinen aurrean, gure indarrak biltzea eta gauza berri eta posibleen aurrean herriaren ilusioa batzea lortu dugu.



Eskola Publikoa

Publikoa, edo behintzat herrikoa, izateko asmo batekin jaio ginen, nahiz eta orduan gure helburuak garbi ez izan, baina gure prozesuak aukera publiko horretara garbi eta indartsuki eraman gaitu.

Aspaldidanik, herri mailan, estatal eskolekin harremanetan gaude. Denok, Euskal Eskola Publikoaren alde botako genuke, jakinez ez batzuk eta ez besteek ez garela. Ezagutzen ditugu, bide hau aurrera eramateko aurkituko ditugun zailtasunak, ente publikoek, bai estatalek, bai autonomikoek, ez bait dituzte gure nahi eta helburuak jasotzen. Batzutan bitarteko eta ahalbide faltagatik, eta beti gure projektua interesatzen ez zaielako, beren interesen aurka bait doa.

Aurrekoa azpimarratzeko hor daukagu, ezer konponduko ez digun Gasteizko Gobernuak Madrilgo Gobernuaren onarpean, burututako Ikastoletako Estatutua. Honek, euskaldunak eta euskaldun ez direnak gehiago urrutiratuko ditu eta eskola estatalek eta ikastolek Euskal Eskola Publiko batetan bat egiteko duten projektua, hankaz gora botako du.

Langileko guraso batek

Piaget eta Eskola

Nahiz eta Piageten lana orain hasi gure artean baloratzen, bere eragina 1930 urtean hasi eta orain artekoa da. Ikuspegi zientifiko batetik bere lanak ez dira bakarrik Adimenaren Sikologian aurrerapen inportantea, baizik eta gizonaren ikasketen ikerketa lanetarako oinarri oso baliagarria.

Piaget arloarteko pentsalaria da, eta bere kezka nagusiak, eskolari dagokionez, praktikoak baino teorikoagoak dira. Nahiz eta maiz hitz egin eskolaz eta hezketaz, ez du hezkuntzaz teoria bat osatu.

Dena dela, Piagetek teoria inportanteak osatu ditu haurraz, eta ikerlan sakonak gai honi buruz, bide berriak ireki ditu eta kontzientzi hartze batetara eraman gaitu haur bakoitzaren autonomiaz eta haurrak aurkitu eta berasmatu behar duela mundua frogatuz. Eta zentzu hortan bere aportazioek eskolarekin zerikusi zuzena dute.

Hemendik aurrera doazen erreflesioen asmoa, eskematikoki bere teoriaren oinarritzko ezaugarri batzuk azaltzea litzateke, bertatik erator daitezken hezkuntzari dagozkion inplikazioetara heltzeko.



Bere teoriaren oinarritzko ezaugarriak

1. PIAGETEN TEORIA "INTERAKZIONISTA" DA.

Pentsamenduaren bilakaera azaltzen du, gizabanakoarengan kanpoko eta barneko faktoreen artean ematen den interekintza bezala, horregatik objektuak ezagutzen dira, sujetoak beraiengan eragina duen heinean eta horretxegatik aldatu bai ditu. Honek istorikoki ezagupenaren jatorriaz egon den eztabaidan aurrerapena suposatuko luke, eta bai enpirismotik edo eta innatistotik objektu (kanpoko) edo sujetoa (barneko) indartzen zena.

Honek **eraiketa edo konstrukzio** ideia-garamatza. Ezagutza ez da momentuko ulertze baten ondorioa, eraikitze prozesuak behar duen aktibitate baten ondorio baizik, barrutik egindakoa, eta hori aurrera doan neurrian hortarako behar diren tresna intelektualak sortuz joango dira, eta hauek ezagutzaren moeta ezberdinen sortzaile bihurtuko dira.

Eraigintza honi esker, gizabanakoarengan, kanpoko errealitatearen barneratzea ematen da, beraren interpretazioa emanez. Errealitatearen barneratze moetak ezberdinak dira bakoitzaren momentuaren arabera eta **pentsamentu egiturak** deritze. Adinarekin aldatuz doazen egitura horiek elementu edo eskema ezberdinen osotasun bat dira, sistematikoki egiten diren aldaketen fruitu eta iturri izanez etengabe autorregulatzen dira.

2. ADIMENA, MOLDAKETA BEZALA ULERTZEN DA.

Bereak diren egituren eraiketan adimena moldatu egiten da bi prozesu erabiliz. Bata **barneraketa** da, honen bidez haurrak ingurunea hartu eta momentu horretan lantzen ari den eskemara barneratuko du. Bestea **egokiera** da, honen bidez haurrak lehen hartutako eskema aldatuko du errealitatera egokitzeko.

Nahiz eta bi prozesu hauek aktibitate edo ekintza guztietan egon, beren proportzioa alda daiteke, eta bien artean lortzen den oreka tinkoan (baina beti aldakor) legoke adimenaren ekintza. Bien arteko oreka moeta hauek bilakaeraren araberan eta konpondu behar duten egoeren araberan dago.

3. EZAGUTZE BILAKAERA, MAILA EZBERDINEN NOZIOAN DATZA.

Lehen aipatutakoari jarraituz esango genuke, egitura batzuk sujetoarenak soilik direla, eta pixkana pixkana eraikitzen den prozesu baten ondorio direla. Eta mailek definizio bezala baldintza hauek betetzen dituzte: Definitu behar ko dute elkartzeko konstante bat mantenduz eta eraiketa progresiboa egingo dute lehendik ezarritako ezer izan gabe. Horregatik ez dira heredatu den programaketaren fruitu, posible den errealitate batena baizik, eraiketa berri eta etengabekoa daraman errealitatearena.

Bilakaera mailak jartzerakoan, haurra senso-motore (0-2 urtetara) maila bate-tatik aurreraginkor edo preoperatorio (2-6 urtetara)ra eta eraiketa konkretuak (6-12 urtetara) egiten diren maila bate-tara, pasatzen da bertan gauzen mundua den bezala ikusten du eraiketa formalak (adolescenzia eta ONDO-RENGO URTEAK) hartuz posiblearen mundura heldu arte.

Mailen iraupen edo jarraikera erritmoari dagokionez, ikusi da adin bakoitzari dagokion bilakaera, aurrerapen edo atzerapenak, giroaren araberan daudela eta bakoitzak duela bere erritmo bakarra eta egokia, jarraikera ordena konstante mantenduz, baina Piagetentzat arazoa ez dago adimena hartzeko dugun azkartasunean, baizik eta adimen horren bilakaerak lortu dezaken mailan. Eta aipagarrien aurkitzen duena zera da, bilakaeraren azelerazioa ematen den kasuetan, haurraren baitan lortutako konfliktoa dela, konpondu nahi edo behar dituen arazoaren aurrean.



4. BILAKAERAN LAU FAKTOREK HARTZEN DUTE PARTE.

Heldutasunak, objetoekiko esperientziak, giza transmisioak eta orekatzea edo norberaren erregulatzeak.

Heldutasuna Piagetentzat heldutasun biologikoa litzateke eta pertsonaren bilakaeran duen eragina uka ezin daitekena da, nahiz eta oraindik gutxi jakin bien arteko harremanez.

Ingurune fisikoarekin hartutako **esperientziak** gutxienez lau maila ditu: "**ari-keta soila**". Honek, noski, objektu batzuk erabiltzea esan nahi du baina ez du derrigorrez horietatik ezagutze bat jasoko dela suposatzen: **esperientzi fisikoa**. Abstrakzio prozesu baten bidez objektu

horietatik informazio bat lortzea litzateke; **Logiko-matematiko** esperientzia, ez dago objektuen berezitasun fisikotatik oinarriturik, baizik eta heuren egindako ekintzen berezitasunetan, hau abstrakzio reflexiboaren ondorioa da.

Giza transmisioa eragin faktorea da, hitzez egindako transmisio eta kultur eta sozial esperientziaren dagoena.

Bilakaeraren hiru faktore klasiko hauei Piagetek **norberaren erregulatzea** geitzen die. Hau, beste guztiak batzen dituen faktorea da eta orekatze kontzeptuaren parean jarri dezakeguna. Eta, hau, oreka egoera bat mantentzeko ematen den norberatzeko eta egokitze prozesua bezala definitzen da. Honek, organismoak oreka mantentzen du, ulerkaitza den gehiegizko informazio berria etor ez dadin, eta baitere azkarreki egokitu ez dadin giroaren aldatze batetara.

Honen aplikapena eskolan

1. IKASTEA BILAKAERARI MENPERATU.

Betidanik, ikastea, ezagutzearen edozein forma izan da (honek esan nahi zuen sujetoa beti objektuen menpe zegoela), eta bilakaera ezagutzen joaten ziren egoera ezberdinen batuketara. Piagetentzat ikastea bilakaeraren zatia besterik ez da, giroak eta esperientziak erraz lezakeen arlo bat.

Horregatik, jakiten badira haurrak ezagutzeko ematen dituen pausoak eta gauditutako behar dituen akatsak, haurraren pentsamentuaren funtzionamentu naturala nahastuko ez duen ikasketa sistema bat aurki daiteke. Ez bakarrik nahastuko ez duena baizik eta lagundu eta indartuko duena ere bai.

Kontutan hartu behar da ere, haur bati berak gero ikas lezaken zerbait garai aurretik irakasten baldin bazaio, ez diogula asmatzen uzten eta horretxegatik behar den bezala ulertzen. Honek ez du esan nahi irakasleak haurraren asmatzena erraztu behar ez duenik, inguruko datuak manejatzen erakutsiz eta balorapen juizioak egin gabe, hau ongi ala gaizki dagoela esanez, haurraren jarrera ezberdinen aurrean.

Irakasleak zuzenki zuzendu behar ez dituen **haurraren akatsak**, oso tresna pedagogiko baliagarriak izan daitezke, irakasleari haurraren bilakaera neurria eta momentu bakoitzeko zailtasunak ematen bait dizkio.

Arazoa ez da haurrak nagusiaren autoritatetik kopiatzea, baizik eta berak aurkitu eta eraiki dezala, bere akatsen kontzientzia hartu ondoren eta bide egokiena bilatuz, prestatutako lana bideratzeko.

2. EKINTZAREN BIDEZ ERAIKITZEA.

Adimena ez bada hartzaile pasiboa, baizik eta sistema eragile, antolatzaile eta dinamikoa, eskolak haurrari aktibitatean oinarrituriko ikasketa egiteko aukera eman behar dio. Pedagogi berri batek haurrari esperimendatzeko (hitza-zen zentzu zabalean) aukera osoa eman beharko lioke: gauzak probatuz zer gertatzen den ikusteko, irudiak erabiltzeko galderak eginez eta bereak diren erantzunak aurkitzeko, orain aurkitzen duena gero aurkituko duenarekin konparatzeko, beste haurrek aurkitzen dutenarekin berak aurkitutakoa konpara dezan...

Baina aktibitatea berez ez da nahiko bilakaera ezaugarri bezala. Klabea egiten den aktibitatean datza. Ez da "eginez ikastea", edozein aktibitate justifika dezakeen arazoia, ikasketa eginez soil soilik baletor bezala. Ikastea oso urruti dago erantzun egoki bat hitzetara egokitze kapazitatetik edo soluzio bat aurkitzetik. Ikasteak, Piagetentzat, ulertzea suposatzen du: Gizabakoak, gero erabiliko diren eduki berriak barnerratzeko, gai izan behar du. Labur labur esateko, edukiak **barnerratu izan behar du**, sistema batetara egokitua erabilia izan dadin.

Garbi dagoena zera da, aktibitatearen lehentasunak hitzetan baino esperientzia zuzenetan oinarritua izan behar duela. Eta eskolak lehen bezala hitz gehiegi erabiltzen du (gehiegizko aho transmisioa), hitzak eta irakasleak eskatzen dituen erantzunak azpimarratuz eta indartuz. Irakastea hitz egitea baino gehiago da, eta hitzegiteko ere beharrezkoa da entzulea komunikazio prozesuan parte hartzaile zuzena izatea.

3. HAURRAREN BEHAR ETA INTERESETATIK ABIATU.

Interesa, barnerratzearen alde dinamiko bat da, eta edozein lan intelektual interesean oinarritzen da. Horregatik, gero eta haundiagoa denean haurraren parte hartzea bere ikaste prozesuan, ikasi edo egin nahi duena bultzatuz, gero eta giro egokiagoa lortuko dugu bere interesetara heltzeko.

Badirudi, haurraren interes arloak eskolan kontsideratzen direnak, nagusiaren proiektioak besterik ez direla neurri haundi batetan eta azken finean aparatu instituzionalarenak. Berez, badaude beharkizun moeta inposatu batzuk, askatasuna eta aukeratzeko eskubidea ukatzen dietenak haurrari: notak, azterketak, kontrolak, programak, konpetitibotasuna... eta beste beharrak, benetan haurrarentzat premiazkoak direnak ez dira ia kontutan hartzen, eta askotan erreprimitu egiten dira. Eskola, behar



hauek bereganatzeko prest balego, arloarteko modu batetan eginbeharko luke, elkarren arteko harreman giroan, objetoekiko eta norberarekiko.

Edozein eskolaekintzaren abiapuntu hau zuzenki lotuko litzateke motibazioaren arazoarekin. Kanpoko motibazioan finkaturik dagoen eskola eredu batetatik (jokaeraren objetuetan eta kanpotik emandako ordainetan sinisten duena) barne motibazioa (berez badakigu kanpoko egoera barneko giza mekanismoenpean dagoela) indartuko duen eskola moeta batetara pasa behar dugu. Haurrak "barne beharra" du eta "behar" honek bere ingurunean bilatzera eta selezionatzera (aukeratzera) darama, eta hau, Piagetek dionez, ezaguera konfliktoen bidez ematen da. Eskolan haurrak heurak lortutakoarekin pozik egon daitezela nahi dugu eta ez nagusiek eskatzen dietena egitea; haurra beretzat betegari edo estimulagarri diren egoeretan mugitzea eta aske sentitzea nahi dugu. Portaerari dagokionez, haurrak berea den sari eskema eta barne lanen osatzea duela, esango genuke.

4. ELKARREN ARTEKO EKINTZAK BULTZATU.

Piageten teorian ez da dena girotik edo herentziatik espero. Baina sozializatzea eta elkarren arteko harremanak indartuko dituen giroa (ikasketan oso faktore garrantzitsua) mantentzea oso loturik daude, ikaslea bere aukerak egiten eta bere kideenarekiko jokaera egokitzea laguntzeko irakasleak erabiltzen dituen bitartekoekin. Inposatze batetatik elkarganakotasun batetara doan bilakaera prozesu hau, lehen irakasleak markatzen zituen arau batzuetatik orain ikasleek markatzen dituzten elkarreki-ko errespetuan oinarrituriko konbibentzia arauetara doana litzateke.

Piagetentzat hauen arteko elkarlana, haurra eta nagusiaren artekoa bezain garrantzitsua da bilakaera prozesu honetan. Sistematikoki eta aukera bakar bezala, bere eritzia inposatuz haurra laguntzen duela uste duen irakaslea, matematikako taulak buruz ikasi eraziz matematika irakasten duela uste duena bezain errudun litzateke. Hortik letorke Piageten ekite etengabea, peda-

ISILIK PEDAGOGI ALDIZKARIA

DENON ALDIZKARIA

Badirudi, bere momentuan hala iruditu zitzaigun behintzat, ez zela ideia txarra izango, Euskal Herrian, pedagogi aldizkari bat izatea. Nolabait, orain arte gure erreferentzi puntua Catalunya zen, handik zetozen ideia eta ekintza guztiak, han zeuden, daude, «Cuadernos de Pedagogía», «Rosa Sensat», «IMIPAE», eta liluragarri iruditzen zitzaigun dena.

Guk, noski, ez dugu haien papera betetzeko inolako asmorik, ezta hango edonork egin duen adina egiteko ere; baina bai, gure neurrian eta gure bitarteko eta esperientzi urriarekin, gure artean egiten denaren berri izateko ahaleginetan saiatzeko prest gaude. Gaude esaterakoan, ez dugu hemen gauden lau edo bost bakarrik esan nahi, ez dugu Irakasle Elkartean kuota ordanitzen dutenak bakarrik esan nahi, ez dugu Gipuzkoako irakasle goa bakarrik esan nahi. Hau aipatzerakoan, nahiz eta handinahi samarra iruditu, irakaskuntzarekin gertutik, zuzenki edo zeharka, zer ikusia duen edonorekin kontaktzen dugula esan nahi da. Gure artean, gure eskolan edo gure etxean ematen diren esperientzi guztiak jasotzea nahiko genuke, interesgarri iruditzen zaigun hura albokoari esateko bitartekoa izatea, piskat gehiago irekitzea, hitz batean, gure artean erreferentzi edo lotura puntu bat izatea nahiko genuke, aldizkari honen ideia botatzerakoan.

Behin eta berriro aipatzen ari gara ez dugula izugarritzko zerbait egin nahi, zihur asko ezingo genuke, behin eta berriz bitarteko eskasekin aurkitzen garelako, baina egingo dugun honen noizbait balio izango duela garbi izan behar dugu, besterik ez bada, orain arte Euskal Herrian oso gutxi egin den zerbait egin nahi dugulako, egiten dugun guztia interesgarria izan dai-

tekelakoan gaudelako, neurri handian edo txikian, baina interesgarria, eta horixe besterik ez dugu nahi haseran, beste asmo gehiagorik gabe.

Baina, azalpen guzti honen aurrean, betiko zerbaitekin aurkitzen gara, eskakizun zehatz batekin: zerbait berria ateratzera-koan, zerbait berria argitaratzerakoan, dirua izaten da arazo nagusia, eta guk ere arazo hauxe dugu, ekonomi arazoa.

Honegatik, zuen harpidetza eskatzera gatozkizue, hiru hila- beteko 150 pezta hain zuzen ere. Ez zaigu dirua denik iruditzen, balna kopuru kaskar hau, zihur aski, gure projektua aurrera era- mateko nahiko izan daiteke, oraingoz behintzat.

Zuen lehenengo laguntza hortatik has daitekela uste dugu eta zihur egon ez dela urriena izango.

Geroarte.

ISILIK

**GIPUZKOAKO IKASTOLETAKO IRAKASLE
ELKARTEA**

Plaza Amezketeta, 12 - 8.a F

DONOSTIA

HARPIDETZA

Izen deiturak

Helbidea

Herria Tlf.

Adina Lanbidea

Ordainketa era: Banketxe edo Aurrezki Kutxa bitartez

Kontu Korrontearen zenbakia

Sukurtsala (Ordezkaritza)

Aleka ordaindu nahi dut. Urtekoa ordaindu nahi dut.

Eguna

(Sinadura)

15111K

Plaza Amezketta, 12 - 8.a F
DONOSTIA

gogi berriak kanpotik inposatutako disziplina deformatu baten ordean, haurren elkarren arteko harremanetatik sortzen den barne disziplina erabil dezan. Kontestu horietan indar handia edo premiazko garrantzia izango luke, haurra besteen ikuspegiekin aurrez aurre jartzea, kontura dadin besteek ere badutela bere ikuspuntua eta jakin dezan berea besteenarekin parekatzen.

5. IRAKASLEAREN OHIZKO EGINKIZUNA ALDATU.

Piageten ikuspegitik irakaslearen eginkizunak zeharo aldatu behar du, eskola tradizionaletik eskola berri batetara.

Lehenengoa eta garrantzitsua jarra aldaketa da: "haurrarenaganako desentralizapena". Desentralizapen hau haurraren esperientzien ezagutze batean eta haurrarenaganadiko ekite etengabe batetan datza. Irakaslea ez da protagonista izango, dena dakiena, baizik eta, haurrari behar dituen tresnak (oharrak, aztarnak...) emango dizkio, bere lana erraztuz eta bere jakinmina eta autonomia eraginez.

Bigarren abiapuntu bezala, irakasleak hartzen dituen erabaki pedagogikoak haurraren pentsamoldean oinarriturik egongo dira. Hemen, ezinbestekoa da ezagutze bakoitzaren eraiketaren bilakaera, mailen ezagupena, haurrarenagan naturala eta berezkoa denari erantzun nahi badiogu. Berez, ikerketa eta aplikapenen bidez, nozio askoren jatorria ezagutzen ari da, nahiz eta oraindik, arlo honetan oso bide luzea egon.

Hirugarren puntua izango litzateke, irakasleak ez dizkiola haurrari programak eta edukiak burutuak emango. Piagetentzat errealitatearen ulertzea ezin daiteke zuzenki transmititu, logiko-matematikoko (edukien eraikitzean hain garrantzizkoa dena) ezaguera automatikoki eman ezinezkoa den bezala. Honegatik, ezin daiteke programa bat aurrez eman (irakasten dena eta nola irakasten den), faktore ezberdinen ondorio izan behar baitu: aurrez pentsatu ezin



daitezken egoeretatik, haurren interes edo ideietaraino, programak osatzeraino. Osatuko dugun programa, haurren erritmoan egindako zerbait izango da.

Azkenik, ezin ahaz daiteken zerbait gelditzen zaigu, aldatze prozesu hau geldierazi dezaken faktorea: "zenbat eta eskola hobea egin nahi dugun ara-

beran, orduan eta gogorragoa da irakaslearen egin beharra, eta zenbat eta metodo hobea, orduan eta zailagoa bere aplikapena". Horregatik, beharrezkoa egiten da sikologo eta pedagogoen parte hartzea, baina eskolako dinamikan, beren eginbeharra berplanteiatuz eta egokituz. Orain arte beren ohizko eginbeharra, zailtasunak zituzten haurren problematikan parte hartzea izan da, eta ez irakaskuntza hobea baten alde jokatzeko. Hezketara egokituriko sikologiak, berez problemarik planteiatzen ez duen haurrarenagan zuzendua beharko luke.

Haurraren adaptazioa, eta beronen bilakaeran leudeken arazoak aztertu beharko litzuzke sikologiak arlo honetan.

Aldaketarako erronka

Beharrezkoa da, ondorio gisa, Piagetek egindako lan izugarria aipatzea, eta bere teoria aplikatzerako oraindik gelditzen den guztia kontutan izatea. Hezketaren sistema bat aldatzea, oinarritzeko arazoak planteiatzea litzateke, eta horiek konpontzeko ahalegintzea. Toki konkretuetan egiten diren proiektu txikiak, ideiak, teknikak eta ondorioak ematen badizkigute ere, garrantzitsua eta benetan beharrezkoa, oraindik esperientzi txiki eta mugatu diren horiek, maila orokor batetan hedatzea izango litzateke.

Piageten esperimendatze eta aplikatze bide honetan, Bartzelonako IMIPAEk (Instituto Municipal de Investigación de Psicología Aplicada a la Educación) egindako lanak aipagarriak lirateke. Hauek, Pau Vila udal ikastetxearekin batera egindako lanen ondorio bezala "Pedagogia Operatoria" deritzana sortu dute eta esperientzia eta erreflexio teorikoen ondorio izango litzateke, bai geletan aplikatzeko eta baita printzipio konkretuen azalpen bezala ere.

Bukatzeko, beharrezkoa dirudi Piagetek aipaturiko zerbait esatea, bertan, eskolan eman behar den aldaketaren laburpena ematen bait digu:

"Hezketaren helburu nagusia, gauza berriak egingo dituzten gizon-emakumeak sortzea da. Ez bakarrik beste belaunaldiek egin dutena errepikatzen; asmatzaileak, kreatoraileak, ikertzaileak izango diren gizon-emakumeak ere bai baizik.

Bigarren helburua, kritikoaileak izango diren adimenak sortzea litzateke, gauzak ematen zaizkien bezala onartuko ez dituzten, adimenak".

Manolo Cainzos

Bibliografia honetan, honako hau lortu nahi litzateke:

- Lehenbizi eta autore honen lanera gerturatu nahi duen edonorentzat, bere garrantziko liburu batzuei buruzko komentario labur batzuk datozkigu. Sail honen barne:
 - Piagetengana hurbiltzeko liburu gomendatuak.
 - Gai orokorreko buruzko lanak.
 - Hezketara soilik zuzenduriko lanak.
 - Piaget hezketan aplikatzen duten liburuak.
- Bigarrenik, J. Piageten teoria gehiago sakondu nahi duten guztientzat katalogo orokorra.

1. Gomendatutako liburuei buruzko komentarioak

1.1. PIAGETENGANA HURBILTZEKO LIBURUAK

— Gorman R.M.: "Introducción a Piaget". Guía para maestros".

Paidós. Buenos Aires, 1980. Salneurria 650 pta.

Sarrera honek, eskolaurrea, eskola, bigarren mailako ikaslea, oinarrizko kontzeptuak eta berauen aplikapen praktikoak lantzen ditu. Sail bakoitzean azalpen edo arazo bat dator, bere adibide eta guzti eta gai horri dagokion galdera eta posible diren erantzun guziaz osaturik. Sail bakoitzaren amaieran azaldutako ideia garrantzitsuenen laburpen bat dator, eta liburuaren azkenean glosa sorta erabilgarri bat.

— Flavell, J.: "Psicología evolutiva de J. Piaget".

Paidós. Buenos Aires, 1972. Salneurria 2.000 pta.

Piageten pentsakeraren azalpen integratu eta antolatu bat da. Hitzaurrean, Piagetek berak, bere azalpenari gorespen bat eskeintzen diolarik. Lehenengo atal batetan teoria azaltzen du, bigarrenean behaketak eta hirugarrenean kritika. Sarrera osatuz jotzen da, baina bere sistematizazio eta sakontasuna dela eta zaila gertatzen da irakurketa.

— Philips, J.: "Los orígenes del intelecto según J. Piaget". Fontanella. Barcelona, 1970. Salneurria 600 pta.

Piageten pentsamentuaren sintesia argi eta samur bat da. Hezketa psikologiaren ikastaro bat bezala moldaturik dago. Piageten teoriaren berrikusketa azkar bat bezala egina dagoen sarrera atalari sasoi ezberdinen analisia zehaztuago batek jarraitzen dio, teoriaren hezkuntza inplikaziotara iriste arren.

— Pulaski, M.A.: "Para comprender a Piaget".

Península. Barcelona, 1975. Salneurria 400 pta.

Irakurketa erraz eta atsegineko sarrera sinple bat da. Hezketan isladatzen diren Piageten ideia nagusienak azaltzen ditu 18 kapitulutan egileak, bilakaeraren sasoi eta Piageten lanei eskeinitako gehigarri batzuekin amaituz.

1.2. GAI OROKORREI BURUZKO LANAK

Piaget, J.: "Seis estudios sobre psicología".

Seix Barral. Barcelona, 1976. Salneurria 375 pta.

Sikologia genetika eta bilakaeraren psikologiari buruzko 6 artikulua eta hitzaldi batzen ditu, inteligentziari dagozkionak bereziki. Lehenbizikoak, sikismoaren bilakaera orokorki, jaio berritik adoleszenteraino, aztertzen du, beste lautan funtzio konkretuago batzuk (hizkuntza, inteligentzia, pentsamendua, eta oreka nozioa), 6.ean espezialitatearen arazo metodologikoak aipatzen dituelarik.

Piaget, J. eta Inhelder, B.: "Psicología del niño".

Morata. Madrid, 1975. Salneurria 450 pta.

Piagetek, bere laguntzaile iraunkorrenaren laguntzaz, ikerketa urte luzeetan landu duen psikologi bilakaeraren behin betiko aurkezpen bat eskeintzen du. Espezialista ez den irakurle interesatuarentzat laburpen egoki bat da.

1.3. HEZKETARA SOILIK ZUZENDURIKO LANAK

Piaget, J.: "A dónde va la educación".

Teide. Barcelona, 1974. Salneurria 180 pta.

Hitzaldi gisa eginiko bi lan samur dira. Lehenengo atala hezketaren eskubidea gaurko munduan aztertzen du, bigarrenean hezketak, ikuspuntu retrospektibo eta prospektibo batetik, izan behar duena azaltzen duelarik.

Piaget, J.: "Psicología y pedagogía".

Ariel. Barcelona, 1973. Salneurria 400 pta.

Sikologi metodo berrien baliogarritasuna eta pedagogi berrikuntzarako suposatzen duten laguntza aztertzen da. Afektibitatea, inteligentzia, ikastea, banakako eta taldeko lana edo disziplinan oinarrituz nahita nahiez inposatuko den eskola iraultzaren ezaugarri nagusienak itxuratzen dira.

1.4. J. PIAGET HEZKETAN APLIKATZEN DUTEN LIBURUAK.

Kam II, C. y Devries, R.H.: "La teoría de Piaget y la Educación Preescolar".

Ed. Pablo Del Río, Madrid 1981. Salneurria 600 pta.

Nahiz eskolaurrearen aplikapen, nahiz marko teorikoaren konbinaketagatik, liburu bikain bat gertatzen da. Egileak, "Piagetek onartutako eskolaurre irakaskuntzarako eskola bakar"ean laguntzaileak izan ziren Chicagon. Liburuak, haurrak bere bilakaeran burutu behar duen prozesuan, haur izatetik adin nagusirantzako bidean alegia, kokatzen du eskolaurrea. Helburuak eta kognoszitibo eta sozioafektibo estrategiak, edukien hautaketa eta eraketa, burutzeko moduak eta baluaketak finkatuz.

— Sastre, G. y Moreno, M.: "Descubrimiento y construcción de conocimientos".

Gedisa, Barcelona 1980. Salneurria 800 pta.

Oso interesgarri gertatzen da Pedagogia Operatoria (Piageten aplikapena eskolan) esperientzia baten txosten gisa. Lehenengo atalak gure irakaskuntza sistimaren azientifikotasuna eta haurraren duen eragina salatzen ditu. Bigarrenak, alternatibak proposatzen ditu. Sikologia genetikoak erakusten diguna eskolaren zerbitzuan jarriaz, ikasleen nor-tasunean bilakaera indartsuago bat ematen dela erakusten digularik.

OHARRA: Piageten idazlanei buruzko katalogo nagusia Irakasle Elkartearen dugu, nahi duenak kontsulta dezan.

Haurra sortzaile denean

Olerkiak

Babarrunari

Kaixo babarruna.
Zu jateko iluntzean uretan
jartzen zaituguna.
Zurekin kontu asko
eduki behar da.
Bi motatakoa zara:
gorrixka eta zuria.
Ezin zaitugu jan
erretzen bazara.
Odolkiz eta xorixoz
oso gozoa zara.
Babarrunarekin jaten
baduzu odolkia,
hurrengo egunean
kaka beltz-gorria.
Babarruna gehienetan
lehenengo platera.
Askok jaten dugu guk,
gure babarruna.

Imanol (5. maila)

Xalbador bertsolariari

Herria ama,
hizkuntza aita,
bertsolaritza anaia.
Atzo bere herriari
hitzegiten ari zela,
bihotza lehertu
egin zitzaion.

Xalbador!
Zu ez zara ahaztuko
Euskal Herrian.
Beti zerura begiratzean,
Zu egongo zara.

Xalbador!
Herria penaz dago.
Zu hiltzean denok
pena hartu dugu.

Xalbador!
Zu zinen
Euskal Herriaren bihotza
Urepel triste dago.

Nekane (5. maila)

Gaur lurrean aurkitu
dut nik eroririk,
hegala ximurtuta
hanka puskatu-rik,
eskuetan hartu dut
lantzana emanik,
ta xoriak utzi nau
oso eskerturik.

Txoririk politena
nire "tiztiki" zen,
bai sendatuko zela
nik nuen pentsatzen.
Hori ez da gertatu,
bestea gerta zen:
nire txori "tiztiki"
atzo hil egin zen.

Arantza E. (5. maila)

Bakardadez betetako eta esnaik igarotako gau baten eragina.

gau luzea
gau latza
banaka minutuak
zartatzen
gelditasunaren
sufirimendua
menperatzen
ari naiz...
denboraren katalizadore
izan nahi nuke
erlojuaren
ritmo orokorra
hautsi nahiean nabil
baina ahoa
ahoa legortu zait
kafe pixkat
gauaren
apaltasun legor
eta hotza
egun senti aldera
bultzatzen
laguntzeko...

noiz

arte

gau

hau?

I. A. B.





Idazlanak

**EURIAREN AZPIAN
ATERKI HAUTSI BATEN
SUFREMENTUAK**

Aspaldiko egun hauetan, laino piper morroi kolorezkoak haserratu ziren, limoi hura agertu zenean.

Euren artean borroka saio bat egin ondoren malko mardul batzuk botatzen hasi ziren.

Gure lehenagoko bi pertsonajeak lagundu egiten dira orain.

Beste pertsonajea aterki behartsu eta zapaldu bat da, denboraren bidez konturatu dena mundu honetako ekintza-aren berri.

Euria zen, da, ta izango da honen zapaltzaile haundiena.


Egun ilun hauetan, euria goi ta be egiten du, aterkiaren ustez aizea bere ondoan zegoela bainan beste aldera zen.

Besteak bezalako egun batean gure aterki hautsi hori lurrera erori zen erabat apurtuta.

Orain guk egin beharko dugu horren nahia.

M.^a José
Garbiñe
M.^a José

1º B.U.P.



PERRETXIKUEN JAIA

Perretxikuen jaialdia izaten zen urtero SUKILA basoan. Jaialdi eder bat zen, perretxiku guztiak joaten zirena.

Bere erregina Kuletoa zen. Bere erropak, xapel bat horia eta laranja kolorekoa ziren. Bai eta ezkonduen eraztuna ere.

Bere senarrak (ziza-zuriak) esaten zion:

—Hau izango da jaialdirik ederrena.

Eta erreginak:

—Jaialdi guztiek edertasun berdina dute.

Perretxiku guztiak sartzen ari ziren gelara; gela zuhaitz asko zen, bai pago, bai haritz, bai lizar, e.a.

Perretxiku batzuk hauek ziren: "Amanitarra", bere jazkina arrosa koloreko xapela eta beste guztia zuria zen, tripa izugarria zedukan.

Beste batzuk hautsa botatzen zuten bere ibilaldi luzearengatik, hauek "Astaputzak" ziren. Eta bazeuden ijito koloreko edo tankerako batzuk ere. Hau usaia!! Den-denak jaialdira.

Denak sartu zirenean, erreginak, hasteko hitz bat esan eta... Hau duk iskanbila!!

Batzuk dantzan, besteak hitzegiten... Eta beste batzuk borrokan, ontoak bezala.

Onto-beltzak esaten zion Errementi-ontoari:

—Hik ere perretxiku benenosoia izan behar huen. Zergatik? Eta Errementi-ontoa far eta far.

Onto-zuriak orduan:

—Nik ematen diadan hortzetakoarekin gehiago ez duk farrik egingo!!

—Baietz... Erantzun zion Errementi-ontoak.

—Ezetz...

—Baietz...

—Oraintxe prueba egingo diagu. —Esan zuen azkenean Onto-zuriak.

Orduan hasten dira muturrekoa han, bestea hemen; hutsa han, bestea hemen; karraisia han, bestea hemen; eta horrelaxe erreginak —Gelditu perretxikuak!!— esan arte. Gelditu perretxiku guztiak. Gudariak lotu eta erreginarengana eraman.

—Zergatik zenbiltzaten borrokan? —Erreginak.

—Hau benenosoia delako —Onto-zuriak.

—Horregatik bakarrik? —Erreginak.

—Bai horregatik bakarrik —Onto-zuriak.

—Beste behin horrela borrokan zabilzatenean kanpora bidaliko zaituztet. Esan zuen azkenengo hitza erreginak.

Eta berriz soinua hasi eta dantzan, hitzegiten, denak. Ederki asko ari zen jaialdia igarotzen, baina gutxirako.

Zuhaitz perretxikuak tronpeta joaz gizon bat zetorrela esan; hori duk iskanbila!!!

Batzuk gorde, besteak tente bildurrez, e.a. Horrela etorri gizona eta esan:


—Hau duk perretxiku pila, denak batean!!!

Eta hartu, eta hartu: kuletoa, ziza-zuria, onto-beltza, onto-zuria.

Errementi-ontoak hau esaten zien beste ontoei:

—Hortarako nauk benenosoia, horrela ni behin ere ez naute hartzen.

Patxi Azpiroz-ek (Usurbildik (12 urte)





Haur literatura

Hurrek zer dute irakurtzeko?

Sail hau erabili nahiko genuke Haur Literaturaz informazio eta orientabide batzuk emateko. Bertan, eta behintzat lehenengo ale honetan, Elkarrek, Irakasle Elkartearen eraginez, Hordagok eta Ereinek argitaraturiko liburu zerrenda jarriko dugu, ahaleginduz hurrengo aleetan haurrentzat egokiak iruditzen zaizkigun beste irakurgai batzuk azpimarratzen.

Hau hemen jartzerakoan, gure helburua haurrak gehiago irakurtzea izango litzateke, eta horretarako bai gurasoek eta baita ere irakasleek gomendatzeko liburuak izan ditzatela. Oso inportantetzat jotzen dugu hurrek irakurtzea, eta nolabait bere irudimen mundua euskal tresnez osatzea. Dugun konpetentzia oso gogorra da, haurrak ikastolatik kanpo dituen interes zentruak erderaz bait daude (telebista, ipui, zine, propaganda...). Horregatik, lagungarri eta beharrezko iruditzen zaigu haurrak liburu hauek irakur ditzan laguntzea eta animatzea, oso egokia izango delako bai bere euskera eremua lantzeko eta azken finean euskera bultzatzeko.

Zerrenda, sail ezberdinetan banatuta dago, eta liburu bakoitzaren tituluaren ondoan salneurria eta zein adinetarako egokia den jartzen dugu.

Kimu sailari eskatu diogu zerrenda, baina ez zaigu denboraz heldu.

Elkar

AXUT saila

	Adina	Salneurria
Patxi errementaria	6-8 urtetarako	250 pta.
Makilakixki	"	250 pta.
Lau anaiak	"	250 pta.
Sorgin gaiztoa	"	250 pta.
Barbantxo	"	250 pta.
Bigantxaren ordaina	"	250 pta.

SORGIN saila

Ipuin harrigarriak 1	8-10 urtetarako	400 pta.
Ipuin harrigarriak 2	"	400 pta.
Ipuin harrigarriak 3	"	400 pta.
Ipuin harrigarriak 4	"	400 pta.

(Laurak J.M. Barandiaranenak dira)

LA GALERA saila

Bi antxumeak	6-8 urtetarako	325 pta.
Erbia eta dortoka	"	325 pta.
Lehoia eta xagua	"	325 pta.
Astoa eta txakurra	"	325 pta.
Lehoia eta kilkirra	"	325 pta.
Oilarra, azeria eta zakurra	"	325 pta.

BOSTAK saila

Bostak berriro kirrin uhartean	10-14 urtetarako	330 pta.
Bostak ihesi (Enid Blyton)	"	330 pta.



**PERKAX saila**

Euskaldun bat Marten (I. Zubeldia)	7-9 urtetarako	225 pta.
Kaskarintxo (M.A. Landa/J.A. Ormazabal)	"	225 pta.
Elisabet lehoi domatzailea (M.A. Landa)	"	225 pta.

SOR saila

1. Abarrak (egokituta) (Kirikiño)	10-14 urtetarako	280 pta.
2. Fernando Amezketarra (J.A. Ormazabal)	7-100 "	280 pta.
3. Amets uhinak (M.A. Landa)	10-14 "	280 pta.
4. Esaera zaharrak eta txiste berriak (J.A. Ormazabal)	7-100 "	280 pta.
5. Iparragirre (X. Mendiguren)	10-14 "	280 pta.
6. Niré ibilaldiak (M. Olaizola)	10-14 "	280 pta.
7. Zozoa eta biok (Txiliku)	10-14 "	280 pta.
8. Bigarren abarrak (Kirikiño)	10-14 "	280 pta.

ITZUL saila

1. Migel Strogoff (J. Verne)	10-14 "	280 pta.
2. Ketxusen zooa (S. Sorribas)	9-12 "	280 pta.
3. Osaba Tom-en etxola (H. Beecher Stowe)	10-14 "	330 pta.
4. Grant Kapitainaren semeak (J. Verne)	10-14 "	330 pta.
5. Till Eulenspiegel	12-15 "	330 pta.
6. Hamabost urteko Kapitaina (J. Verne)	10-14 "	330 pta.
7. Norena da basoa? (M. Canela)	9-12 "	280 pta.
8. Printzea eta eskalea (Mark Twain)	10-14 "	330 pta.
9. Robin Hood (Roberto Ansonako)	10-14 "	330 pta.
10. Oihanaren liburua (Rudyard Kipling)	10-14 "	280 pta.
11. Uttinghami (M. Canela)	9-12 "	280 pta.
12. Munduaren azken muturreko faroa (Verne)	10-14 "	280 pta.
13. Iban trapusaltzailea (J. Valverde)	9-12 "	330 pta.
14. Jolas egiteko ipuiak (G. Rodari)	10-14 "	330 pta.
15. Txipi (Mario Lodi)	9-12 "	330 pta.
16. Elvis, Elvis (Maria Gripe)	10-14 "	330 pta.
17. Nikolas Txiki (Gosciny/Sempé)	10-14 "	280 pta.
18. Korsario beltza (E. Salgari)	10-14 "	330 pta.
19. Abereen etxaldea (George Orwell)	12-100 "	330 pta.
20. Gaxpar erregea (Gabriel Janer)	10-14 "	280 pta.
21. Hamarreko lagun taldea (Joaquín Carbó)	9-12 "	330 pta.
22. Nikolas Txikiren errekreoak (Sempé/Gosciny)	10-14 "	280 pta.
23. Oskar eta Yetia	10-14 "	280 pta.
24. Tomas Txorimalo	10-14 "	280 pta.

Hordago

Adina Salneurria

TXIMISTA saila

1. Errotaria errege (Txomin Peillen)	9-10 urtetarako	200 pta.
2. Bufalo Bill-en abentura (Txomin Peillen)	"	200 pta.
3. Mirko Printzea (Txomin Peillen)	"	200 pta.
4. Tom Sawyerren abenturak I (Mark Twain)	11 urtetik aurrera	200 pta.
5. Tom Sawyerren abenturak II (Mark Twain)	"	200 pta.
6. Tom Sawyerren abenturak III (Mark Twain)	"	200 pta.
7. Tom Sawyerren abenturak IV (Mark Twain)	"	200 pta.
8. Alizia herrialde harrigarrian (Lewis Carroll)	"	200 pta.
9. Ikusezina (H.G. Wells)	"	200 pta.
10. Ohianaren deia (Jack London)	"	200 pta.
11. Tom Sawyer detektibe (Mark Twain)	"	200 pta.
12. Abentura ikaragarria airean (Jack London)	"	200 pta.

hamabost urteko kapitaina

JULES VERNE



ITZUL

13. Ahotsen isla (R.L. Stevenson)	"	200 pta.
14. Ivanhoe (W. Scott)	"	200 pta.
15. Urrutiko mendebaleko mugak I (E. Salgari) ..	"	200 pta.
16. Urrutiko mendebaleko mugak II (E. Salgari) ..	"	200 pta.
17. Osaba Tom-en txabola (H. Beecher Stowe)	"	200 pta.
18. Pirataren andrea I (E. Salgari)	"	200 pta.
19. Pirataren andrea II (E. Salgari)	"	200 pta.
20. Mauki (Jack London)	"	200 pta.
21. Till Eulenspiegel (Ezezaguna)	"	200 pta.
22. Pirataren espedizioa (Jack London)	"	200 pta.
23. Abereeneko iraultza (G. Orwell)	"	200 pta.
24. Oz-ko Magoa (Frantz L. Baum)	"	200 pta.
25. Eneko Agerroa (Yon Etxaide-Itharte)	"	200 pta.
26-27. Hamabost urteko kapitaina (J. Verne)	"	300 pta.
28. Estepako semeak I (Hans Baumann)	"	200 pta.
29. Estepako semeak II (Hans Baumann)	"	200 pta.
30. Printzea eta eskalea (Mark Twain)	"	200 pta.
31. Taraskoneko Tartarin (Alphonse Daudet)	"	200 pta.
32. Tartarin Alpeetan (Alphonse Daudet)	"	200 pta.
33. Usoa alostorreko (Yon Etxaide-Itharte)	"	200 pta.
34. Rip Van Winkle (Washington Irving)	"	200 pta.
35. Bizi nahi (Jack London)	"	200 pta.
36-37. Azeri Axiantea (Ezezaguna)	"	300 pta.
38. Hiawatha (Henri Longfellow)	9 urtetik aurrera	200 pta.
39-40. Robin Hood (Norman R. Stinnet)	"	300 pta.

BERTSOLARI ZAHARRAK

1. Pasaiaiko herritik (Xenpelar)	6 urtetik aurrera	150 pta.
2. Zarauzko balearenak (Roke Etxabe)	"	150 pta.
3. Gure Errenderia (Pello Zabaleta) (inprimategian)	"	150 pta.
4. Bizkaiko txerriari (Uztari) (inprimategian)	"	150 pta.
5. Donostiako estropadak (Gaztelu) (inprimategian)	"	150 pta.
6. Zaldi baten bizitza (Bilintx) (inprimategian)	"	150 pta.
7. Inauterietako deia Euskal Herriari (Paulo Yanzi) (inprimategian)	"	150 pta.

USTELA saila

1. Oinaze zaharrera (Koldo Izaguirre)	14 urtetik aurrera	
2. Joan eta Ane zigarro bat erretzen (Ibon Sarasola)	"	
3. Bidaia. Termitosti (Joxe Austin Arrieta)	"	
4. Hitzakia (J.I. Garmendia)	"	
5. Zutaz amoroski (Jon Casenave)	"	
6. Guardasola ahantzia (Koldo Izaguirre)	"	
7. Hilargiaren hotzikarak (Pello Lizarralde)	"	
8. Azkenean dilindan (Jon Casenave- Mattin Larzabal)	"	
9. Gauzetan (Koldo Izaguirre)	"	150 pta.
10. Egunero hasten delako (Ramon Saizarbitoria)	"	400 pta.
11. Haize lainotsuaren nekeak (Maripi Solbes)	"	200 pta.
12. Isiletik (Gabriel Korta)	"	150 pta.
13. Espaloietako ginola (Daniel Garbizu)	"	150 pta.
14. Poemak (Alex Azkue)	"	250 pta.
15. Egunsenti biluzia (Jose Luis Otamendi)	"	200 pta.
16. Itsu-mandoka (Jon Casenave)	"	200 pta.
17. Txipioren bat edo beste (Rafael Egiguren) ..	"	200 pta.

ARESTI

Zergatik Panpox (Arantxa Urretavizcaya)	14 urtetik aurrera	200 pta.
Laztantxu eta Betargi (Seber Altube)	"	200 pta.
Inguruaren arduraz (Jon Enbeitia)	"	200 pta.
Literaturaren inguruan (Juan San Martín)	"	400 pta.
Haizearen itzalak (Josu Landa)	"	200 pta.
Nazioarteko ipuinak (Xabier Kintana)	"	400 pta.

txomin peillen

**buffalo bill-en
abentura**



Hordago



Herbesteratua (Pio Berasategi)	"	600 pta.
Eskuaren Fereka (Iñaki Zabaleta)	"	300 pta.

EUSKARA ERRAZA**Lehenengo maila**

1. Karraspioren abenturak (Barkaiztegiko taldea) 11 urtetik aurrera		200 pta.
2. Ilusio saltzailea (Barkaiztegiko taldea)	"	200 pta.
3. Hiriko txoria (Barkaiztegiko taldea)	"	200 pta.
4. Hauzoko hilketa (Alfonso Sastre)	"	200 pta.
5. Gilen Tell-ek begiak triste (Alfonso Sastre)	"	200 pta.
6. Abenduak 20 ekintza (Mikel Arregi)	"	200 pta.
7. Ijitoaren poleoiak (Pierre Bellemare)	"	200 pta.
8. John Griffin beltz (Pierre Bellemare)	"	200 pta.

Bigarren maila

1. Lope de Agirre (Joan Mari Irigoien)	"	300 pta.
----------------------------------------------	---	----------

IPUINAK

1. Hiru hartzak eta Begi Urdin	4 urtetik aurrera	250 pta.
2. Etxea nahi zuen elefantea	"	250 pta.
3. Txano gorritxo	"	250 pta.
4. Txoria eta kalea	"	250 pta.
5. Ahuntza eta zazpi antxumeak	"	250 pta.
6. Ratapon urtxintxa	"	250 pta.
7. Jon zikinaren anaia	"	250 pta.
8. Ahatea, antzara, txerria eta otsoa	"	250 pta.
9. Hiru txerrixoak eta otsoa	"	250 pta.
10. Txorimaloa	"	250 pta.
11. Amonatxoa	"	250 pta.
12. Zuri izan nahi zuen hartza	"	250 pta.
13. Ipurtargia	"	250 pta.
14. Tulipan txikia	"	250 pta.
15. Urriztiko txittoa	"	250 pta.

LITERATUR ALDIZKARIA

Xaguxarra 1	14 urtetik aurrera	300 pta.
Xaguxarra 2	"	350 pta.

Erein**D EREDURAKO IRAKURGAIK**


Din don kikilikon 1	650 pta.
Din don kikilikon 2	650 pta.

HASIERA ETA ERDI ZIKLOA (Irakurgaiak)

Txori Saila	
Margoak	175 pta.
Zenbakiak	175 pta.
Txomin eta Txomintxo	175 pta.
Itziar eta Antton	175 pta.

Txilibitu Saila

Txibiribi bonbon	400 pta.
Txilibitu danbolin	400 pta.
Gaur asteartea da	350 pta.
Udaberria	300 pta.
Udazkena	300 pta.
Uda	300 pta.
Negua	300 pta.



Birigarro Sails

Lotara joateko ipuinak	7-8 urtetarako	500 pta.
Ainara eta hodeitxoak	"	500 pta.
Antonino Apretaren istorioa	"	—
Zinea gustatzen zitzaizen txitoen istorioa	"	—

ERDI ZIKLOTIK AURRERA (irakurgaiak)

Ziripot Sails

Ernioko Ziripot	8 urtetik aurrera	400 pta.
Chuch Aranberri dentista baten etxean	"	400 pta.
Kirten urdiñetako armairu roxa	"	400 pta.

Auskalo Sails

Tristek kontsolatzeko makina	gazte jendearen.	300 pta.
Portzelanazko irudiak	"	300 pta.
Gizon kabalen piurak	"	300 pta.

Bidean Sails

Bihotzaren ritmoan	gazte jendearen.	300 pta.
Munduari inguruan 80 egunetan	"	400 pta.

Haur Aldizkaria

Ipurbeltz (hileru ateratzen da)	7-12 urtetarako	150 pta.
---------------------------------------	-----------------	----------

Ipurbeltz Bilduma

Ipurbeltz hilebetekariaren seinak ale enkuadematu eta ale berezi batetan argitaratzen da. (Orain arte 9 zenbaki)		600 pta.
------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--	----------

Ipurbeltz Saileko ale bereziak:

Iker eta Ixone (Orrazi Magikoa)	7-12 urtetarako	250 pta.
Orreaga	"	250 pta.
Mintxo	"	175 pta.
Prontxio eta Martxelino	"	250 pta.
Iker eta Ixone (Gaizkiñe)	"	250 pta.
3 Sudurluzeak (Spray-en misterioa)	"	250 pta.
Erreka Mari	"	250 pta.
Iker eta Ixone (Zahagi Urrea)	"	250 pta.
Eneritz	"	250 pta.
Duk Rampy mendebaldera	"	250 pta.
Iker eta Ixone. Lurraren bihotzeraino	"	250 pta.
Tom eta Wandia	"	250 pta.
3 Sudurluzeak. Baloiaeren misterioa	"	250 pta.
Zezena plazan	"	250 pta.
Iker eta Ixone. Ortzadarreko belarra	"	250 pta.
Tom eta Wandia. Mustang zaldia	"	250 pta.

Komiki liburuak

Iparragirre	7-12 urtetarako	400 pta.
Ion eta Mirka	"	—

Pedagogia haurrentzat

Nortasun Sails


Nola jaio nintzen	7-12 urtetarako	375 pta.
-------------------------	-----------------	----------

Euskal irakaskuntza posible?

Ez naiz ausartzen hasieratik bai edo ez erantzutera. Gauza askoz zailagoa eta korapilotsuagoa da.

Lehenbizi, zer da euskal irakaskuntza? Ikastoletako irakaskuntza ala ikastola askotan eta euskaraz soilik, hau da, D ereduari jarraituz ematen den irakaskuntza? Nik azkeneko zentzu honetako irakaskuntzaz gogoeta labur batzuk egin nahi ditut. Posible al da euskara soilean gai guztiak irakastea eta ikaslearen garapen normal bat aurrera eramatea? Garbiago esanda haurraren arlo eta atal guztiak: adimena, jakintza maila, nortasuna, sentimentu-gorroto-maitasun mundua, oroimena... berdin desarroilatzen al dira euskaraz edo erderaz emanda? Hara ze galdera! Zertara dator hau! ... Bueno, baleee!

Ba, ikastolen historiari begiratzen badiogu posible bada. Ikastoletan euskaraz ikasi eta pertsona normalak atera dira, azkarrak, normalak eta motelak beste edozein amaseme bezala. Baina ze zailtasun aurkitu dira horretarako? Horretara iristeko lana beste eskoletan egiten denaren berdina izan al da? Inguruak batere lagundu al du hori horrela gerta dadin? Goiko erakundeek nahi izan al dute eta bultzatzen al dute euskal irakaskuntza hau? Posible al da egoera diglosiko eta deseuskaldun batean goian aipatzen dugun maila horretara iristea? Eta horrela beste berrehun mila galdera egingo nituzke. Eta erantzuna uste dut denok dakigula. Zailtasunak handiak dira euskal irakaskuntza normal bat aurrera eramateko. Eta hori guztiok frogatu dugu. Irakaskuntza tajuzko bat aurrera eramateko euskal irakasle batek beste edozein irakaslek baino dexente lan gehiago egin behar du.



Hau patuak, destinoak edo halabeharrak ipini digun egin-behar bat dela esan beharko genuke (zenbat behar behartuta egin beharrekoak). Gurasoek beren poltsikoetatik askoz gehiago ordaindu behar izan dute euskal irakaskuntza, eta irakasle-andereñoek urte askotan oso soldata kaxkarrak kobratu dituzte. Lana toki ezegokietan egin da: garaje, etxazpi, etxe zahar etabarretan. Goiko erakundeek: Madrilgo Hezkuntza Ministeritzak, Delegazioak, Inspektzioak bururatu zaizkien traba guztiak ipini dizkiote ikastolari.

Eta gero inguruak, telebista, irrati eta batez ere kale erdaldunak egundoko frenua ipini diote eta ipintzen diote euskararen desarroiloari eta bide batez euskaraz ematen den irakaskuntzari. Kalea ez bada euskalduntzen, mundu artifizial bat egiten ari gara irakaskuntza munduan. Zertarako mundu artifizial hori indartu, gero eguneroko bizitzarako ez bada baliagarri eta beti erderara jo behar badugu. Hemen dago kontraesanik handiena eta larriena. Irakaskuntzaren parean herriaren euskalduntze prozesua ez badugu aurrera eramaten, ez dakit tximuarena ez ote garen egiten ari. Eta hau ez beza inork hartu, dena pikutara bota nahiak eragindako txorakeria bat bezala edo pasotismoak edo derrotismoak eragindako esaldi erraz eta arin bat bezala. Egia garratza eta borobila bezala baizik.

Euskal irakaskuntza kondizio normal samarretan posible izateko herriaren eta inguruaren euskalduntzeari indar guztiarekin heldu beharko diogu denok. Noski lehenbizi laster hasido den EITB (Euskal Irrati Telebista) euskalduna egin beharko da. Hau erdaraz hasten bazaigu, gureak egin du. Eta haurrentzat programa egoki, atsegin, erakarkor eta euskaldunak ere eskaini beharko dira. Eta kanpaina sendo, razional eta indartsu bat bultzatzea beharko da herri osoa edo ahal diren estamenturik zabalena euskalduntze bidean ipin daitezen, eta euskara dakiten guztiek kalean eta eguneroko bizitzan erabil dezaten. Bestela euskara eraskin bat izango dugu beti. Ez gu herri edo pertsona bezala osatzen gaituen zerbait. Eta gure herriaren eta gure pertsonen zati bizi ez bada euskara, zertarako behar dugu irakaskuntzan?

Euskal irakaskuntza posible ote da? Euskara Euskal Herriaren eta euskaldunon arnas eta biziaren sustrai den bitartean bai, baina bizitzarako, maitasunerako, negozioetarako, politikarako, kiroletarako... balio ez duen pitxi polit eta gorde beharrekoa bihurtzen badugu, beldur naiz euskal irakaskuntza ez posible, ez bidezko eta ez arrazoizko ere ez ote den izango.

Berazubi

Ikastola beti esperimentatzen

Hasteko, idazlantxo honen arrazoiak azaldu nahi nituzke. Gure artean ISILIK sortu berria zaigun aldizkari honen eritzi sailean idazteko gonbiteari erantzutea alde batetik eta, bestetik, hemen eta hor entzun, beste nonbait irakurri ditudan eta nolabait neureak egin ditudan iritzi eta kezkek agertzea; besterik ez dut egingo.

Euskara eta ikastolaren munduan murgildurik gabiltzanok egunerokoa dugu euskararen irakaskuntzak, programaketak eta lortutako etekinek sortzen dizkiguten kezka eta

burukominak. Ez dakit noraino iritxiko naizen gaiaren sakontzean, baina hasteko, Ikastolen historiaz eta euskararen irakaskintzaz zenbait puntu ikutuz hasiko naiz.

Ikastolen sorreran haur multzo batzu besterik ez ziren ixilean eta gordean biltzen zirenak, etxean ikasia zuten euskara mantendu, hobetu eta pixkanaka gordelekuak eustea posible izan zitzaizen neurrian oinarritzko heziketa euskaraz, legalitate handirik gabe egitea posibilitatuz eta azkeneko urte hauetan gelak bete, berriak egin eta denbora gutxian estabilizatzen dira.

Denbora hontan ikastolaren barnean aldaketak eman dira, baina nik gaur ikutuko dudana bat da: Ikastolako haur populazio aldaketa. Aldaketa hau bi eratara eman da:

— Kuantitatiboki: Urte gutxitan erruz hazi dira ikastolak. Haurrez bete ditugu gelak.

— Kualitatiboki: Hasera batetan haur gehienak euskaldunak baziren ere, egun, gelak, euskararik ez dakiten gurasoen seme-alabez bete zaizkigu, zenbait zonatan, haur erdaldunen kopurua euskaldunei gaineratuz.

Bestalde, Irakaskintza orokorrean esijentzi maila igo da eta ikasketa maila erderazkoarena parekatzeraino iritxi.

Euskaraz irakasteen gurasoek zuten motibapena ez da hasera batekoa, guztien gaintik euskara eta euskaraz irakastea, neurri handi batetan moda edo antzeko zerbaiten eragina izan du. Gurasoen eragina ez da motibapen berekoa.

Ikastolaren inguru soziolinguistikoa ez da aldatu ikastolakoa aldatu den neurrian.

Ikastolaren egoera soziolinguistikoa aldatu da baina ez honen praxia. Ez aldatu, ez eta sakonki aztertu ere askotan egoera irrazional batetan mantenduz ikastolaren praxia.

Honen ondorioz:

— Euskararen irakaskintzan egin diren ahaleginak ez du eman neurri berdineko lorpenik.

— Textoak desegokiak bilakatzen dira, ez bait dira ikasle hauen euskara maila kontutan harturik eginak izan.

— Ikasleek menderatzen ez duten hizkuntza batetan edukiak emateak, hauen lorpen maila jaitxi du edo jaitx dezake.

— Behar bezala menderatzen ez den hizkuntza batetan irakurketa eta idazketa hasteak, ikasketa bera kondizionatzen du.

— Ikasketa edukien programaketa ezak lorpen maila zalantzan jartzen du, eta ebaluazio medio eta tresna ezak guzti hau areagotzen du.

Bukatzeko, guzti hau laburtzeko, hizkuntz atzerakuntza bat eman ote den susmoa.

Baina zer kondiziotan egin da urte hauetako lana?

• Haur kopuru handiz osaturiko taldetan. Askotan gelako hogeitamabost hurrekin, medio eta laguntza eskasez. Irakasle boluntarista hutsez.

• Hasera batetan haur euskaldunentzat burututako eredu bakar batez, jatorri soziolinguistikoa kontutan izan gabe, sailkatuz, eta besterik gabe ikasle-irakasle harreman zuzenez euskara eta euskaraz irakatsuz.

• Esijentzi maila dudarik gabe berdina izan da batzuentzat eta besteentzat, batzuen ikasteko zailtasuna konprenditu bada ere, aldaketa posibilitaterik gabe.

Gaur egun zorionez kontraesan guzti hauek argitzen ari dira. Bide razionalago eta egokiagoen bila planteamendu desberdinak eztabaidan jartzen ari dira. Nere ustez bi dira hasera batetan bat ez datozen planteamenduak:

1.— Euskara irakasteko metodo zuzena edo murgilpe-nezkoa.

2.— Egoera sozio-linguistikoak kontutan, eredu desberdinak aplikatzeko.

1.— Ikastoletan, orokorrean orain arte erabili den sistema metodo direktoan oinarritzen da. Haur erdaldunak ama hizkuntza (gaztelera) haur euskaldunak euskara etxean ikasteko erabili duten sistema berdina edo berdintsua, ikastolan euskara ikasteko erabiliaz.

Metodo hau kritikatzeko dutenek zera diote: hiru urtetako haurri ikastolara sartzean baztertu arazten zaion ama hizkuntzaren bitartez jaso dituen esperientziarekiko txertatzea egiten duelako ikasten duela 2. hizkuntza. Beraz, zenbat eta aberatsago ama hizkuntzan jasotako esperientzia, orduan eta aberatsago 2. hizkuntza.

Metodo hau aplikatzen dutenen errua, egunean bost orduz ikastolan sartuta, metodo hobeagoaz goraka dihoan ama hizkuntzari, gaztelaniari, aurre egin dakiokela pentsatzean omen datza.

Ondorioa, nahiz eta ikastolan tratamendurik eman ez, ikastolan irakatsitako euskara interferentziaz josten omen da.



2. Hizkuntza irakasteko, hizkuntza honen deskribapen zientifiko batetan oinarritutako metodoaz egin behar omen da.

2.— Eredu desberdinak, egoera sozio-linguistikoko desberdineko talde edo zonaldeetan.

2. Hizkuntza lantzeko kontutan izan behar du ama hizkuntza hontan hartu bait ditu oinarritzko mekanismoak. Hau baztertzan ez omen zaio etekin hoberik ateratzen euskararen irakaskintzari.

Metodo hau kritikatzan dutenek, gaztelarari ateak zabaltzen jizkiola diote, hizkuntz borroka hontan gaztelarak irabazteko guztiak dituela esanez. Aldekoak, berriz, gaztelera ikastola barnean dagoela eta metodo razionalez tratamendu bat eman behar zaiola.

Ikastola edo zonalde batetan, honen egoera sozio-linguistikoa kontutan, eredu linguistikoko planteatzerakoan zera izan behar dugu kontutan:

— Haur talde edo zonalde hori euskalduntzea eta euskaraz ikasteko gai izatea dela helburua eta ez inolaz ere euskarari nolabaiteko tratamendu bat ematea.

— Lortu behar dutena ez dela euskara eta euskaraz ikas dezaten soilik, beste arlo guztitako gaitasunak (logika, arrazoiaketa, e.a.) ere lortuaz, inolaz ere ez hauek haren zerbitzuan jarriaz.

— Ama hizkuntzak izan behar duela tratamendu bat ikastolan. Ez dago abstrakzio bat egiterik eta besterik gabe euskaldunak balira bezala tratatzerik.

Murgilpenezko metodoa proposatzen dutenek hau posible dela diote kondizio afektibo eta didaktiko egokiak, inolako interferentzi eta atzerapenik gabe, baina kondizio hau ez dela betetzen ikastoletan.

Egoera soziolinguistikoko araberako ereduak aplikatzeak hain aipatuak eta kritikatuak diren B eta D ereduak planteiatu ditu.

D ereduak, etxetik euskaraz eginez datorren haurrentzat, Euskara ama hizkuntza, gaztelera gai bat bezala lantzea proposatzen du.

B ereduak, etxetik euskaldunak ez direnentzat. Euskara progresiboki sartzeko. O.H.O.ean irakurketa eta idazketa ama hizkuntzan eginak zikloaren bukaeran bi hizkuntzak neurri berdinean erabiltzeko gai izan ditezten.

Gaur egun Euskal Herriko ikastoletan euskararen irakaskintzaz enfrentaturik dauden jarrera hauek beharrezko dute sakontze prozesu bat nolabait irakaskintzan edo, eta, honen planifikaketan inplikaturik gaudenen artean.

Argi dagoena, ikastola bakoitzak beraldetik egin dituen, egiten ari den esperimentuak eta (Ikastolak esperimentatzen urte asko daramatza, haseratik esango nuke nik, ikastola esperimentu gisa kontrolatu gabeko esperientzia izan bait da eta da) lortu diren etekinak ez bait dira neurtu eta mugimendu osoa baliokotzat jo da.

Esate baterako, 2. hizkuntzaren irakaskintzan (erdaldunei, euskara gure kasuan) eragina duten faktoreen ikerketa noiz egin da eta nola eramaten da faktore hauen kontrola?

Euskararen irakaskintzan parte hartzen duten faktoreen aldaketan eta hauek kontrolatuz egin behar ditugu esperimentaketak.

● Gelako haur kopurua.— posible ote da 30 haurrei gela berdinean euskara irakastea? Hau dugu esperimentaketa batetan kontrolatu behar dugun lehen faktore aldakorra.

● Motibapenak:

● Gurasoen arrazoiak ikastolara bidaltzeko, euskara ikasteko ardura.

● Kanpoko motibapenak: euskara entzutea edo ez, ikastolatik kanpo egin ahal izatea, telebista, zinea, e.a.

● Ideologikoak (gurasoena batipat, ikasleena adoleszentzian, e.a.).

● Gure prestakuntza.— Hizkuntza menperatzeko eta hizkuntzaren didaktika-metodologia eta metodologiaren erabilketarako prestakuntza. Metodologia zehaztua edo dudakorra.

Honekin batera haurrenganako esijentzi maila joan beharko luke:

Helburuak zehaztu eta helburuei egokitu medioak. Helburuak altu jartzeak hauek beteko diren aurreritza ematea suposatzen du. Aurrez, beteko ez diren helburuak jartzeak irakaskintzaren frakaso suposatzen du.

Baina irakasleak berekasa eta ikastola bakoitzak beraldetik ez du mediorik esperimentatzeko. Guzti hau aurrera eramateko Heziketa Kontseilu bat beharko litzateke esperimentatzen kondizioak planteiatzeko, eragina duten faktoreak kontrolatzeko, behar diren medioak jartzeko, teknikak aportatzeko eta azkenean ebaluatu eta etekinak neurtzeko, lorpenak baloratuaz bost urtetako epe batetan konparaketarako lehen datuak izan ditzagun.

Proposamen hauek kritikagarriak izango dira bai, baina gaur ari garen bezala oinarri handirik gabe eztabaidatzen, ez du sentidu gehiegirik, askotan gure arrazoiak eremu politiko edo sozio-linguistikokoan soilik finkatuaz.

Antton Izagirre

Ikastoletako ordezkariak edo gu nagusi

Bai. Ikastoletan oso ongi konpontzen ginelakoan geunden. Guraso eta langileen arteko harremanak oso estuak ginetelakoan. Elkar entzunez, elkar ulertuz, elkarrekin lan eginez, ikastola mundua aurrera bultzatzen ari ginelakoan, borroka berdin batetan lehiatzen ginelakoan, azken helburua, azken jomuga ere berdina zelakoan. Baina, astoak arrantza egin du eta aireak bitan banatu dira.

Ikastolen munduan zer gertatzen ari den piskat ikusten hastearrekin batera, lozorrotik esnatzen, konturatu gara zer egin duten gure ikastoletako ordezkariak bere bizkarretan eraman duten horiek (orain arte, behintzat, gurasoak soilik), gu gara eta ez besterik ikastoletako ardura dugunok

oihukatuz, zuok langileok lan egin ezazue eta guk administratuko zaituztegu, zuok langileok orduak zintzo sar itzazue (orduka neurtzen bait da irakaskuntza, haurren ikaskuntza) eta guk egingo dugu hortik aurrerakoa.

Denok dakigun gauza da, Ikastola bakoitzak utzia daukala bere ordezkari Ikastolen Elkarte deituriko erakunde ofizialean, baina gero ez da Ikastola hori arduratzen, zer nolako harreman eta bideak urratzen ari den erakunde hori aztertzen, eta azken finean berak nahi duena egitera heldu da.

Langilegoarekin ez du gaizki etorri nahi izan. Beti deitu dio honi lanerako, honetan eta hartan parte hartuz Ikastola mundua aberastuz eta bertako beharrei erantzunez joateko. Baina, hortik aurrera ezer gutxi. Horren truk putza jaso du langilegoak.

Eta honekin ez dut esan nahi erakunde honengana langilegoa diru bila bakarrik joan denik, batzuk hala egiaztatu nahi badute ere hainbat Ikastolako ordezkariaren aurrean. Hauek, berriz, oso pozik gelditu dira. Alde batera uzten ohituak bait daude langileen jarrerak eta eritziak. Eta honelaxe, aurreraka doa Ikastolen Elkarte ofiziala. Baina, gurasoak bakarrik ari ote dira Ikastoletan lanean?

Eta langilegoa kukuka hasi denean; jaunak! hemen zer arraio gertatzen ari da?, gu putzaren hurrengoak al gara ba? galdezka hasi denean, ez zaio erantzun zehatzik eman, berriro ere beste gure ordezkari horien menpean egon beharko duela langilegoak behin eta berriz, esplikazio xarmanten bidez, aditzera eman zaio. Ezinezko dela langile eta gurasoen ordezkariaren arteko harremanak argitzea, hori itxuragabekeria handi bat dela aditzera eman, langile eta gurasoen aurrean.

Eta behin eta berriz entzun beharra izan du langilegoak, hala sinistarazi nahi diote, behintzat, diru eske bakarrik joan dela Ikastolen Elkartera, Ikastoletatik eta hauen izenean eratutako ekintzetatik datorkion dirutik hein handi batetan bizi den Elkartera. Langilegoa ere lanean ari dela Ikastoletan eta ikastolarako, aurrerantzean ere jarraitu nahi duela eta diru-iturri hauen banaketa orekatu batetara heldu behar duela esatera joan denean, ezetza eman zaio, ezin dute inolaz ere horrelakorik egin eta, gainera, berauen diru iturri hauek ez dira aurrerantzean hala izango. Sinistu nahi duenak sinist beza eta jakin, Ikastoletatik inolako dirutzarik ez duela aurrerantzean jasoko Ikastolen Elkarteak; beste ekintzetatik dagokion dirutza erakunde publikoetan utziko duela. Kontu hau hala bazan, sar dezala ahal duenak bere kalabazan.

Eta honekin langilegoa nahiko lasai geratu delakoan, besterik ezer egiteko ahalmenik ez daukala iruditurik, liluratuta gelditu da Ikastoletako ordezkari legala bezain leiala, norena?

Eta ez da langilegoa batere harritu oraintsu berriro ere Ikastoletako arduradun gorengoarengandik entzun beharrean aurkitu denean: "gurasoek izan behar dute berauen seme-alaben hezketa arduradun nagusiak, eta horregatik, Ikastoletako organo erabakitzailerik gorena berauek osatuko dute".

Eta irakaslegoari buruz dio: "talde tekniko bat da eta, beraz, gurasoek derizkioten hezketa bidearen baitan jokatu beharrean daude. Ez dugu uste hezketa komunitatearen ondare

denik, gurasoena baizik, hauek bait dauzkate bere seme-alaben hezketa nahi bezalakoa izateko bitartekoak"

Eta amen. Hor dago hitz ofiziala, hor dago oraindik ere Ikastola askotako ordezkari pentsakera itzala; eta beste guztiak aztarrika, ahal duten eran, datorkien eta jasaten ari diren uholdetik nola defendatu, nola iraun ez dakitela.

Gasteizekin harreman estuak gordeaz, langilegoaren aurrean hauen laguntzaile eta bultzatzaile gisan agertuaz, bai batarekin, bai bestearekin erabat haserretu gabe, baina ahalik eta denborarik luzeenean, behintzat, Ikastoletako ordezkari ofiziala bere gain bakarrik hartuaz, eta honezaz baliatuz eta Ikastola munduan besterik ez bailegon jokatuaz, Ikastola gurdia dagoen tokira eramaten lagundu du, beti ere, Ikastoletako ordezkariak.

Azken urteotan Ikastoletako ordezkari arduradun nagusi izan ditugunak dauzkagu gaur Euskadiko organorik gorenean, Ikastoletako sektore batekin bakarrik kontsultatuz irakaskuntza munduaren norabidea izendatzen. Orain Ikastoletako ordezkari bere gain dutenak ere ez ote dira bide berdinak jorratzen ari?

Langileei ez zaie borroka beste biderik geratzen. Aspertuak bait daude berauek egindako lanetik besteek probetxua ateratzen. Hauek ere nahi bait dute eta bidezko iruditzen bait zaie Ikastoletako ordezkari badiela zer esanik eta zer eginik agertzea.

Ikastoletako ordezkari sektore baten eskuetan bakarrik dago gaur, baina ez ote da bihar denon eskuetan egongo? Zergatik ez?

LUBERRI





Gasteiztik dator notizia...

Duela denbora gutxi iritxi zaigu Ikastoletara "Ikastoletako Estatutoa". Estatuto hau zerbait aztertzearen, ELA eta STEE-EILAS-i zuzendu gatzazkie galdekizun honekin



Ikastoletako Estatutoa

- Zuen ikuspegitik, azal itzazue Estatutoaren berezitasun nagusienak.
- Estatuto hau onartuko balitz, eta bertan azaltzen diren puntuak praktikan jarriko balira, zer suposatuko luke ikastolentzat?:
 - Orain arte ikastolek izan dituzten berezitasunak errespetatzen al dira?
 - Irakasle eta langileen eskubide eta betebeharrak non gelditzen dira?:
- Soldata
- Kontratazioa
- Oposizioak
- Orduategia
- Etab...
- Ikastolen jestioa, eredu publiko batetaruntz al doa ala...?
- Guraso, irakasle eta herri elkarteek noraino dute benetako parte hartzeko eskubidea?
-
- E.I.K.E. Hezkuntza Sailaren pean egoteak zer suposa dezake?
- Nola aplikatuko da bertatik aterako den araudia?
- Ikastolen autonomia eta elkarren arteko harreman posibilitateak nola gelditzen dira Estatuto honekin?

Egin ezazue, zuen ikuspuntutik abiatuz, Estatuto honen balorazio bat.

Zuen ustez, irakaslegoak zein jarrera hartu beharko luke honen aurrean?

Zer ezberdintasun daude, zuen ustez, nahi den eskola publiko eta estatuto honek eskeini dezakeenaren artean?

IFE ELA

Gure erantzuna ikuspegi laboralera mugatzen da.

Bereziki hiru puntu markatuko genituzke garrantzizkoenak bezala:

1. Estatutoaren bitartez sortzen diren organoetan langileen eskubideak erabat itota gelditzen dira. Langileak kolektibo bezala ez dira inolaz ere errekonozitzen.
2. Kontratazio alorrean izugarriko etena sortzen da oraingo egoera laboraletik oraindik sortu ez den geroko funtzionalgo horretara. Batetik aintzintasuna eta soldata ez dira errespetatzen eta bestetik akzesio zuzenaren orde, oposizioak planteiatzen dira.
3. Sistema honetan ikastolak banan-banan sartzeko aukera ematea, ikastoletako langileentzat tranpa eta txantajea besterik ez da, sortu lezakeen sakabanaketagatik.

Egoera honi irteera bat eman lezaioken jarrera bakarra, langileok kolektibo bezala indartzea litzateke, hau da, ikastoletan sindikalgintza indartzea eta egungo eskubideak negoziatzea konbenio batetan jasoaz.

Xanti Ugarte

STEE- EILAS

1.— Guk, STEE-EILAS-ekook ikusten dugunez, gure irakaskuntzaren egoera nahiko sakabanatuta dago berez (Eskola Estatalak, Ikastolak, Pribatuak, e.a.). Eta egia esanda, Estatuto berri honekin indartu egiten da zatiketa hori, hirugarren bide bat proposatzerakoan.

Aspaldi batetan, Jaurlaritzan dagoen alderdi nagusiak hau bera proposatzen zigun, Eskola Estatalen alde batetik eta Ikastoletan dauden ezaugarri hoberenak aprobetxatuz, Euskal Eskola bakar baten bila joan behar genuela.

Azkenengo proposamen honetan, ikastolak zerbait berezi bezala agertzen dira: kanpora begira erakunde publiko eran, baina barneko araudiak eta organoak ikusirik, erakunde pribatuen itxura mantenduko dute.

EIKE erakundea, guretzat, pribatua izango da funtzionamenduan nahiz eta E. Gobernuaren Hezketa Sailaren menpean egon, LOECE (Ley Orgánica de Estatuto de Centros Escolares)ren definizioz baliatzen bagara behintzat.

Badakigu EIKeren organo nagusia erakunde publikoetako ordezkariak osaturik egongo dela (Hezketa Sail, Diputazio eta Ikastoletako Federazioen ordezkariak partaideak izanik), baina EIKeren eraketa eta barne dinamika erakunde pribatuen eran antolatuta dago.





2.—

A.— Ikastolek izan dituzten berezitasun batzuk, denon ezagunak dira bai antolaketa bai Pedagogi mailan.

Jestioak bere garrantzia izan du beti arlo guztietan eta horri esker denon lana banatu eta koordinatu egin da. Hori bera, Estatuto honetan, ez da hain argi agertzen. Hainbat organo edo lan talderen artean goi goitik zuzenduta, non gelditzen den jestio hori galdetzen dugu.

Gobernu Zentralean onartutako "Estatuto de Centros"aren ispiritua azaltzen da alde guztietatik. Ikastola bakoitzeko asanblada orokorra gurasoen aldetik mugatu egiten da, langileak minoria batetan gelditzen dira.

Zuzendaritzarako karguak goiko organoetatik markatuta etorriko dira, kargu hauek nahi eta nahi ez pertsona baten erresponsabilitate edo arduran mugatuko dira.

Badaude beste berezitasun batzuk ere, EUSKARA esaterako, mugatu gabe gelditzen direnak. Nahiz eta ikasketak, teoriz, euskaraz egin, posibilitate edo ahalbide batzuk gelditzen dira beste era batetan izateko.

Ikastolaren definizioa nahiko abstraktoa agertzen zaigu eta, bertan, ez da bereziki esaten irakaskuntza osoan euskara soilean egingo denik eta ahalbide batzuk uzten ditu beste alternatiba "bereziak" (Ekintza, Corazón de Maria Ikastetxea, e.a.) multzo berberan sartzeko.

B.— Irakasleen kontratazioa ez du zehazten gehiegi. Posibilitate batzuk markatzen ditu: funtzionari, administratibo, laboral...

Argi dagoena hau da: aurretik lortutako eskubideak desagertu egiten dira sinadura baten bidez, EIKE erakundearen sartzaren direnetik aurrera.

Indefinizio berdina agertzen zaigu beste hainbat gaitan, hara nola oposizioak. Konkurtso-oposizioa esaten denean, teoriz, lan urteak kontuan hartzen dituzte. Baina zer izango da garrantzitsuena, lan horretan esperientzia izatea ala azterketa bera? Orain dela bi urte arte lan egin dutenek esperientzia bat dute eta azkenengo bi urte hauetan sartu direnek azterketa berezi batzuk egin dituzte kontratua lortzeko. Egoera honetan zer zentzu dauka beste azterketa berri batzuk jartzeak?

3.— Hezkuntza sailaren pean egoteak ez du esan nahi EIKE barnean daudenak Eusko Jaurlaritzaren funtzionariak izango direnik. Egia da, sail horren laguntza berezi bat izango dutela, baina EIKE erakunde autonomo bat izango da, bere dinamika bereziarekin.

Nola eramango duten araudi hau praktikara? Benetan oso zaila da jakitea zer kriteriorekin aplika dezaketen hau dena.

Estatuto honek baditu beste hainbeste arlo oso kaltegarriak. Hasieratik agertzen da nola bultzatzen dituen bi moztetako ikastolak. Alde batetik Estatuto hau onartzen dutenak, hau da, EIKEren barnean sartuko liratekeenak eta pribatu bidea aukeratuko luketenak bestetik. Honekin, noski, lau edo bost eskola moeta desberdin lortuko ditugu.

Nahiko farregarria da, baita ere, EIKE erakundearen sartzeko aipatzen den bidea jarraitzea. Batzuek, ikastetxe bakoitzeko ekonomia saneatua dutenak, inolako zorrik gabe, dituzten edifizio eta patrimonio osoa EIKEren eskuetan utziko dituzte. Besteek, karga edo zorrak handiak dituztenek erabilkera bakarrik utziko dute.

Gure ustez, araudi honen proiektu osoan gauza nabari bat agertzen zaigu: guraso-entrepresari batzuen interesak defendaturik eginga dago. Ikastolako lokalak jabegoan eta zorrik gabe izateko, "oso jerente" izan behar dute gurasoek eta orduan EIKEk gustora hartuko ditu lokalak, bestela EIKEk erabilkera hartuko du baina zorrak?

Egoera honetan, badaude guraso kolektibo batzuk, E.P.A. lekuko, ikastola batzuk eskola publikoak bihurtzea nahi dutenak (bai lokalak, bai irakaslegoa, e.a.) euskararen plangintza mantenduz. Baina Eusko Jaurlaritzak ezetza eman die.

Zer eratako publikotasuna nahi ote du Eusko Jaurlaritzak edo zer moztetako gurasoak?

4.— STEE-EILASekook irakaskuntza mailan helburu nagusi batzuk defendatzen ditugu:

- Irakasle gorputz bakar bat.
- Euskal Eskola Publiko bakarra.
- Benetako jestioa aplikatuz.
- Euskalduna.
- Pluralista ideien mailan bai guraso bai irakasle mailan.
- Pedagogi askatzaile bat bultzatuko duena.

Azkenik esan, Estatuto honek gure helburuetara iristeko ez dituela bideak zabaltzen, ez duela ahalbide hori ematen. Gure ustez, Euskal Eskola Publikoa lortzeko, herri mailan kezkatuta egonik lan egiten duten erakunde herritar guztiek parte hartu beharko dute. Argi dagoena zera da, ordea, Araudi proiektu hau bide horretatik ez doala.

STEE-EILAS



Euskal Eskola eta Estatutoa

Idazlan honek badu aurreko beste azterketa bat Eusko Jaurlaritzak egina duen Ikastoletako Estatutoa dela eta. Baina beste sindikatuek ere nolabait aztertua dutelarik, eta idazlana nahiko luzea izanik, azken zatia, interesgarriena, agian, goaz hemen azaltzera.

Proposatzen dugun eskola eredua

Irakaskuntza eta kultur mundura hurbiltzea ezinbesteko baldintza litzateke, gizarte demokratiko, industrialki aurreratu eta zientifiko-tekniko aurrerakuntza sakonak dituen batetan integrazteko. Baina horrekin batera, irakaskuntzak beste garrantzizko funtzio bat beteko luke, edozein hiritarri behar duen prestakuntza ematea, bere arlo guztietan bilaka dadin, politiko, kultur eta sozial arloetan parte hartu eta eritzi bat izan dezan. Horregatik, egun, ukazineko eskubidea litzateke edonorentzat **Irakaskuntza**.

Hiritarren eskubide honek, indar publikoak beharko lituzke dauden bitarteko guztiak jartzera hori lor dadin. Hortik dator irakaskuntzaren ezaugarri nagusia. **Publikoa** izan behar duela, eta edozein inizatiba pribatu gaindituko lukeen ezaugarria. Horregatik, gaur egun dagoen disjuntibaren aurrean, eskola pribatu-publikoak, guk Euskal Eskola Publikoaren alternatiba proposatzen dugu, sare demokratiko bakar batetan oinarriturik, pluralista eta laikoa.

Faktore ezberdinen partehartze demokratiko batetan oinarritzen den Eskola Publiko eredu honek, **ZENTRUEN AUTONOMIA** eta **ADMINISTRAZIOAREN** ahalik eta interbentzio hurriena proposatuko luke.

Uste dugu, administrazioak, denei eta baldintza berdinetan eskaini behar die la irakaskuntza, preferentzia eta marjinateak alde batetara utzirik. Aldi berean, hezkuntza administrazioak minimo batzuk eskaini behar ditu, hezkuntza sistema homogeen eta koerente bat lor dadin Komunitate Autonomo osoan.

Hezketa Zerbitzuek administratibo egitura demokratiko bat osatu behar dute, denen zerbitzuan egongo den egitura,

eta edonorren partehartzea onartuko lukeena, hezketa beharrei eta bere problematikari dagokion edozein arazotan. Honek, egun, administrazio berrikuntza bat behar du, egungo egitura deszentralizatzaera zuzendua izango den berrikuntza, Udaletxe eta eskualdeak bere hezketa organoez osatuz.

Aldi berean, administrazioak, irakaskuntzako langileen berdintasuna garrantzatu du bere lan harremanetan, hauen eskubideak defendatuz: sindikatze eta greba eskubidea eta negoziazio eskubidea, negoziazio kolektibo eskubidea alegia, bere lanpostuak lortzeko emango diren baldintzak denentzat berdinduz.

Azkenik, zentru bakoitzaren autonomia errespetatuz, irakaskuntza munduan sektore ezberdinen partehartzea bultzatu eta lagunduko duen administrazioa.

Hezketa komunitatearen zentruen jentio eredu bat defendatzen dugu, hau, hezketa eta zentruak ez direla eskusiboki inorenak, deritzan printzipioan oinarrituko litzateke. Azken finean, guraso, ikasle eta irakasleek, kultur elkarre, kirol elkarte eta abarrekin, osatzen duten kolektiboarenak bait dira, eta administrazioarenak.

Horregatik, zentru bakoitzean demokrazia, partehartze eta erabakitze kapazitate bezala ulertuta, zentruko organo ezberdinetatik hartuko da, sistema paritarioaren bidez.

Zentruetan asanblada, eskola kontseilua eta zuzendaritza kontseilua defendatzen ditugu erabakitzaile nagusi bezala, irakasle, ikasle eta gurasoek parte hartzen dutelarik.

Ezinbestekoa iruditzen zaigu guraso elkarteak, ikasle elkarte eta irakasleen klastroa egotea, sektore bakoitzaren partehartzea potentzia dezaten.

Pertsona bakar batek izan ditzaken karguei buruz, hauek zentruko organo ezberdinek hautatzen dituztela iruditzen zaigu, zentrua ordezkatzeko, horregatik hautatze hori zentru barruan emango da soil-soilik, kanpoko inolako partehartzerik gabe.

Zuzendariaren kasuan, adibidez, zentruaren ordezkaritza duela ente administratiboaren aurrean uste dugu, eta horregatik, zentruan bertan hautatua izan behar duela (eskola kontseilua, zuzendaritza kontseilua) irakasle klastroak proposatuz.

Zentru ezberdinetako irakaslegoari dagokionez, Euskal Eskola Publikoak eta **BEREAK DIREN FUNTZIONARIAK** behar ditu, botere autonomikoak, normatibo, legislatibo eta araugile ahalmen osoa dutelarik.

Eskolatze osoa eta hezkuntz plangintza errazionala izango duen egoera batetan, gizarteak dituen beharren arabera egindako egoeran, irakaskuntza lanpostuetara Unibertsitateetik pasatuko da zuzenki irakaslea, eskola mundura hurbilduko duten eguneratze epe ezberdinekin.

Baina, egun, egoera ez denez, eta gehienetan postu baino pertsona gehiago dugularik, nahi eta nahiez, pertsonen **AUKERAKETAN** sartzen gara.

Uste dugu **AUKERAKETA** hauek, proba guztiz objetibo batzutan oinarritu behar dutela eta neurtu nahi duten lanarekin estuki lotuta. Konkurtsoa pasa ondoren, administrazioarekin egoniko kontratuaren bidez, funtzionari bihurtuko da.

Funtzionari hauen erreglamentazioak, irakasleen eguneratze beharra eta pedagogi berrikuntza jasoko ditu, hezketa behar eta profesional bezala ulertuta. Noski, botere publikoek hortarako behar diren bitarteko guztiak jarriko dituzte.



Horretarako Estrategia

Lortu nahi dugun Eskola Publiko ereduak, **sare publikoa** potentziatzena doan estrategia behar du. Hori, egungo zentru publikoak aldatuz eta ikastolen instituzionalizazio publikoak lortuz egingo da. Ikastolak aldatzeko proposa daitezkeen bideak aipatu baino lehenago, egun hezkuntzari buruz eman daitezkeen oinarri batzuk azpimarratu nahi ditugu, Euskal sektore publikoa aurrera jotzeko ezinbestekoa. *

a.— Uste dugu, zentru publikoak eta ikastola publikoak, nahi dugun Euskal Eskola Publikoaren oinarriko zutabeak direla, beraz, bai batzuk, bai besteak, Komunitate Autonomoaren zentru bezala har daitezkeela.

b.— Euskal Eskola Publikoa defendatzerakoan Euskararen garrantziaz ohartuz, hizkuntza elementu banatzaile eta zatitzaile (zentruak banatuz, batzuk alde, besteak aurka) bihurtzen duten definizioen aurka garbi azaltzen gara.

Gure herriaren, eta bereziki eskola populazioaren errealitate sozio-linguistikoa kontutan izanik, ezin daiteke eredu publikoa hizkuntzan soilik oinarrituz, defendatu. Interpretazio eskusista eta eskusiente litzateke, hizkuntza dela eta ikasleak zentru ezberdinetan banatuko lituzkeena.

Ezin daiteke ere, eskolatzeko sare bikoitzak justifikatzearen hizkuntza erabil, ezta ere bigarren mailakoa kontsideratu eta baztertu, gure hezkuntza sistemaren zati oso inportantea euskaraz irakatsi ezin duelako.

Euskalduntze prozesuan ikastolek izan duten garrantzia eta jokatu duten papera funtsezkoa eta beharrezkoa iruditzen zaigu, baina hezkuntza mundu osoa euskalduntzeko guztiz urria.

Horregatik, gure hizkuntza irakaskuntzan sartzea, honen euskalduntzeak, egungo zentru publikoen euskalduntzea eskatzen du, nahitaez. Horrek, bai zentru publiko, bai ikastolen beharrak hartuko lituzkeen planifikazio linguistikoa eskatzen du.

“Gaur egun, ez hizkuntz ezberdintasunak, ezta ere jostio demokratikoa aurrera eramateko egon daitezkeen planteamendu ezberdinek justifikatuko lukete, hezkuntz sistema bi sare ezberdinetan banatzea. Lege zailtasunek, Ente Autonomoena den funtzionari gorputz berri

bat osatzeak eta bertan egungo funtzionariak integratzeak eta ikastolak zentru publiko bihurtzerakoan behar den zuhertasunak konbentzitu gaituzte, probisionalki sare bikoitz hori irekitzeko, zailtasunak bukatzen direnean, berriz sare bakar batetan integratu ahal izan daitezken. Noski, batasun honetan amaitzen den prozesuak ezin du funtzionari gorputz ezberdinak egotea onartu. Oso zaila iruditzen bait zaigu hezkuntz sareak batzea irakaslegoa batu gabe. Baina, noski, ez da hau Eusko Jaurlaritzak proposatzen duenaren baitan doan nahia.”

Proposatzen dugun bideak hiru zutabe ditu: Komunitate Autonomoaren zentru publikoen Estatutu bat egitea, lege bidez berea den funtzionari gorputza osatu eta deszentralizazioan oinarrituko den berrikuntza administratiboa.

Komunitate Autonomoaren baitan dauden zentru publiko guztiek, Hezkuntza Saila izan behar dutela titular bezala, uste dugu, hezkuntza administrazioan konpetentzia osoa izango duen ente bezala. Zentru Publiko hauei, Euskal Parlamentuan aprobaturiko litzatekeen estatutu bat emango zaie. Hau da, zentru esperimental bezala daudenak ezik, beste zentru publiko guztiek estatutu erregimen berdina izango lukete.

Komunitate Autonomoaren zentru publikoen estatutoan, oso definizio zabala egingo litzateke, egungo zentru publikoak hartuz, baina ikastolak eta behar diren baldintzak beteko lituzketen zentru pribatuak integratu ahal ditezkeen irekia. Zentru publikoak lirateke titular bezala

ente publikoak dutenak, diru publiko batez finantzatu direnak, eta euskararen irakaskuntza, eskualde eta zentru horientzat emandako eredu linguistikoetan oinarritzen direnak.

Euskal Parlamentuak Komunitate Autonomoaren funtzionarien osatzea aprobaturiko luke, bere erreglamentazioarekin batera, bertan euskeraren ezagutzea aipaturiko litzateke, irakaslegoaren euskalduntzea, baina ez litzateke baldintza bezala jarriko, egun, lanean edo langabe dagoenarentzat, euskalduna izan beharra funtzionari izateko.

Garbi utzi behar da, hemendik aurrera titulua ateratzen dutenentzat ezinbesteko baldintza izango dela euskeraren ezagupena. Hau dela eta, Irakasle Eskolek behar diren bitartekoak erabiliko dituzte, ikasleek nahiz euskeraz, nahiz erdaraz, ikasketak egin ahal ditzaten, gutxienez, euskerazko klaseak antolatuz erdaldunentzat. Aldi berean, Plantilla Dekretua osaturiko litzateke, euskeraz ateratzen diren plazak eta dagozkien espezializapenak aipatuz.

Gaur egun, Zentru Publikoetan dauden irakasleek heurenak diren eskubideak errespetatuak izango lituzkete, epe egoki batetan erregulatuz, Estatu Zentraren babespetik, osaturiko ente berri horretara pasatzea. Ente berri horretan integratu nahi ez luketenentzat aukera ezberdinak leudeke:

a) Gobernu Zentrarekin edo beste Komunitate Autonomo batzuekin, alde egin nahi duten irakasle hauen plazak negoziatzea.



b) Komunitate Autonomoan bertan, plaza batzuk gordetzea irakasle hauen tzat, eta epe luzean beste komunitate edo Estatuaren babesean daudenentzatzat eta Komunitate Autonomora etorri nahi dutenentzatzat.

Ikusten duzuenetz, hezkuntz sare bakar bat sendotzean, Komunitate Autonomoarenak izango diren funtzionarien osatzean, eguneratzean eta hezkuntza sistema eta irakaslegoaren euskalduntzean oinarritzen den Eskola Publiko alternatiba planteiatzen ari gara. Azken finean, hezkuntz arlotik egindako alternatiba, Estatutoaren bilakaeran eta defentsan ados legoken alternatiba eta hain beharrezkoa den Estatutoaren demokratizapen eta politika deszentralizapena eskatzen duena.

Bestalde, egungo hezkuntz zerbitzua- ren egitura administratiboak, Hezkuntza Kontseilaritza-Lurralde bakoitzeko ordezkari sistema oinarrituz, izugarriko burokratiko erru piloa du, zuzenki ikutua dagoenaren parte hartzea eragotziz.

Aurreko honegatik, administratibo egitura demokratiko batetatik aparte, hezketan zuzenki inplikaturik dauden sektoreen parte hartzea izango duen egitura, istantzia ezberdinetako ordezkariekin batera, proposatzen dugu.

Osatu beharko litzateke: Hezkuntz kontseilu nazionala, lurralde kontseilua, eskualde kontseilua eta udaletxe edo herri eskola kontseilua.

Euskal Gobernuaren Eredu Publikoaren aurka

Lehen esaten genuen bezala, Euskal Gobernuak zentru publikoentzatzat proposatzen duen jentzio eredu, beste hezkuntz sektoreen gain guraso eta administrazioaren agintean oinarritzen da. Gurasoen parte hartzea beharrezkoa eta ezinbestekoa iruditu arren, inolaz ere ezin dela onartu Euskal Gobernuak zentru asanblada bezala proposatzen diguna iruditzen zaigu, gurasoen parte hartzea potentziatu ordez, **bere partizipazioa, zentruan gertatzen denaren kontrola eramatea** dela sarrerazi nahi bait die, eta kontrol hori eramateko eskuak aske behar dira erabakiak hartzerakoan.

Guraso, ikasle eta irakasleen arteko ideoloji, politika eta erlijio pluralismoa ematen dela onartu beharrez, onartezina da sektore baten nagusitasuna lege dekretoz inposatzea.

Ikastolen Estatutoaren proposamenarekin parte hartzea zeharo dejeneratzea da, asanbladak behar duen efektibotasuna galtzen duelarik. Asanblada erabakitzaile nagusi bezala defendatu behar da. Bertan parte har dezaten zentruaren hezkuntz interesak defendatuko dituzten sektore ezberdin guztiek. Ikuspuntu honetatik Euskal Gobernuaren diskurtsoa eragozten dugu, bertan hezkuntza gurasoen zerbitzuan dagoen zerbait bezala hartzen bait da.

Aldi berean, guztiz onartezina da, irakaslegoaren aukeraketa kriterioak finkatuko dituen pertsonal komisio bat osatzea.

Sistema honekin, "zentruaren nortasun haundiagoa" edo "irakaslearen integritate eta estabilitatea zentruan" lortu beharrez, pluralismo eta espresio askatasuna ukatzera, irakaslearen lehenengo eta beste sektoreena ondoren, lortzera goazela iruditzen zaigu. Pertsonal komisioaren eta hautatze kriterioen aplikatzearekin, kontratazio diskriminatorio bat eman dadin ateak irekitzen dira, funtzio publikoaren oinarriko kriterioak deseginez, lanpostua lortzeko baldintza berdinak izatea.

Zentruari bere berezko nortasuna ematea zentruan irakaslearen integritate, ingurunean bere estabilitatea... faktore hauen guztiz aldekoak gara, eta hortarako **hurbil bizitzea** eta trasladoa **egiteko ematen den denbora mugatzea** lagungarriak badira, ados gaude kontutan hartzean lanpostua lortzerakoan. Hortarako, Gobernuko jaun-andreok, zentro bakoitzean pertsonal komisio bat ez da behar.

Hautagaien aptitude eta pedagogi trebetasunek eta talde lanean integritate kapazitateek neurtu behar baldin badute, alda itzazue goitik behera oposizioaren espiritu eta egiteko modua.

Faktore objetibo batzuk neurtzea baldin bada arazoa, ez dago pertsonal komisioak egoteko inongo arrazoirik.

Baina faktore objetibo eta ideoloji berdintasunak neurtu nahi baldin badituzue, munduko arrazoi guztia duzue hori sortzeko, baina zihur egon ez garela gu hori lortzera zuekin batera joango. Hori demokraziaren aurka, funtzio publikoaren aurka eta zentruetan beharrezkoa den pluralismoaren aurkako atentatu gogorra da. Enpresa horretan oso posible da Konstituzio Tribunalari egindako errekurso batekin aurkitzea.

Zentruari dagokion beste kritika bat. legoke arlo honetan: Zuzendariaren hautaketa.

Zuzendariaren hautaketa hortarako egin diren lege eta dekretuen pean egin beharko da. Hau da, zentru publikoentzatzat, Hezkuntza Departamenduak onartutako zuzendariak hautatzeko aplika-





tuko da. Honek, garbi uzten du hezkuntza administrazioaren mesfidantza, zentruen autonomiari dagokion edozein arlotan.

Behetik gorako dinamika sortzeko planteiamenduak, zentruetatik hasi eta administrazioa goi mailetaraino, puskatu egiten da zentrua ordezkatzeko duten pertsonak aukeratu behar direnean.

Euskal Gobernuaren mesfidantza honek ez ditu bakarrik ikasle eta irakasleak ikutzen, arazo honek gurasoen arloa ere ikutzen du. **Beren seme-alaben hezkuntzan interes haundien go bezala kontsideratzen dituen guraso horien aurkako mesfidantza.**

Sakoneko arazoa zuzendariaren irudian datza. Zuzendaria administrazioaren elementu bezala hartzen da, eta honegatik horren ordezkaria zentru barnean. Gauzak horrela ikusiz, Gobernuak, guraso eta irakasleen parte hartzea demagogikoki erabiliz, azken finean hautatzeko aukera administrazioaren eskuetan uzten du.

Estatutua piska bat alde batera utzirik, bi hezkuntz sare ezberdinen bidez egingo den ikastolen instituzionalizazioa penatzen zaigu.

Lehen ere aipatu dugu Euskal Gobernuak ez dituela bi sare horiek proposa-

tzen legislatibo zailtasunak ikusten edo aurkitzen dituelako, bere eskola eredua eta funtzio publikoaren kontzepzio ezberdinak dituelako, baizik.

Ulertzen edo ezagutzen ditugu gaiaren labe zailtasunak, eta beste jarrera bat izango genuke, Gobernuak konbentzitu bagintu beste biderik ez dagoela, berak proposatzen duena ezik, Euskal Hezkuntz aparatua bakarrik lortzeko.

Baina Gobernuaren arrazoinak ikusita, ezinezko egiten zaigu berarekin ados egotea.

Gobernuaren proposamenak, ikastola eta zentru publikoaren arteko konpetentzia eta auziak gainditu beharrean gehiago sakonduko dituelako. Botere Publikoetatik bi hezkuntz eredu ezberdin aurkeztuko da, hezkuntza batzaile izan beharrean, banatzaile izango dena, eta grabeagoa dena, Botere Publiko horietatik eredu bat **hemengoa edo heuren** bezala hartua izango da, eta bestea **kondar edo arrotz** bezala. Honek, eguneroko bizitzan, eguneroko dinamikan, ez direla bi hezkuntz eskaintza berdinak izango esan nahi du, bata bestea baino gehiago indartuko dela.

Euskal Gobernuaren eskaintzak, zentru publikoetan euskalduntze lana ahaztu egiten duelako, bi zentru publiko eredu izango dira ofizializatzerakoan, euske-

ra, ezberdintasun nabarmenena dutelarik. Hau da, eskola populazioaren eskaerak, euskalduntzeari dagokionez, sare batetatik betetzen badira, zer zentzu du bigarren sareak? Elebidun hezkuntz eredu hori osatzerakoan? Elebiduntasun hori sare erdaldun eta sare euskaldunaren batzea bezala ulertzen dugu? ala zer?

Euskal Gobernuaren proposamenak ez garrantzitsu bi hezkuntz sare horien batzerat, sare bietako hezkuntz sektoreen arteko borroka eta etengabeko urrutiratze batetara baizik.

Praktikan, bi hezkuntz administrazio jarriko dira, **“eta beraien arteko batasun”** baten beharrak bestearren beharren gaineratik jartzerakoan **“lortuko da”**. Aurrez aurre jartzea eta bereizketa gehitu egingo da, sare batek planifikatze lanetan zentruen parte hartzea onartuko duelako, eta bestean aldiz, partehartzea protesta testimonial batean geldituko delako.

Euskal Gobernuaren proposamenak hezkuntz estamentuaren arteko ezberdintasunak gainditu beharrean haunditu egin behar ditu, estamentuaren eta irakaskuntzara iristeko bi bide ezberdin jartzerakoan, erregulatze sistema ezberdinak inposatzerakoan. Era honetara, hezkuntz estamentu eta sare ezberdinen arteko batasunerako zailtasun gehiago jartzen direlako.

Guzti honegatik, Irailaren 30an Euskal Gobernuak ikastolen instituzionalizatzeko aurkeztutako proiektua errefusatu egin behar dugula, eta sare publikoan ikastolen integratzearekin jarraitu behar dela iruditzen zaigu. Sare honetan integratzen diren ikastoletan dauden plazen kopururaino gehituz sare publikoaren plazak, egungo ikastoletako irakasleentzat Euskal Gobernuak konbokatutako “konkurtsu mugatu” bidez eta plantilen dekretu bat osatu eta aprobaturik, euskara eta espezialitate ezberdinetan dauden plazak argitaratuz.

Hau hezkuntz sistemaren dauden zatiketarik desager daitezkeen bide bakarra iruditzen zaigu, ikastolak eta zentru publikoak berdin babesteko eta azken finean zentruen demokratizapenean aurreratzeko, funtzionario gorputz propio bat osatzeko eta hezkuntz arloan Administrazioaren egitura deszentralizatu ahal izateko.

Xabier Gurrutxaga



Albiste ofizialak

Aldizkariaren orrialde honetan zehar, gure asmoa Irakasleok informaturik egon gaitzela lortzea da. Eskainiko dugun informazioa, ordea, iturri ofizialetatik isurtzen dena litzateke. Aldi askotan, beraz, berriok ez zaizkizue horren berriak iritsiko. "ISILIK" ale honetarako hautatu dizkizuegun albisteak, ondoren dihoazkizue adierazpen labur batez lagunduak.

HEZKUNTZA BEREZIA... Azken bolada honetan, gai honi dagokionez, hainbat berri plazaratu dira bai Estatu mailan bai Komunitate Autonomoaren mailan. Estatuari dagokionez, "El Magisterio Español" aldizkariak 1982-X-15eko alean zekarrenez, Hezkuntza Bereziaz eginiko Plan Nazionalari eraketa juridikoa eta legala emango zaio argitaratzeko zorian aurkitzen den Errege Dekretu baten bitartez. Itxura denez, Hezkuntza Berezia gratuitoa eta derrigorrezkoa izango da OHOean zein Profesionalean. "Integrazioa" deritzan filosofi zabal batez bideratuta omen dator Errege Dekretua.

Arazo berdinean jarraituz, Hezkuntza Sailak 1982-X-7ko Aldizkarian Agindu bat argitaratu du, Hiru Lurralde Historikoen Hezkuntza Bereziaren Irakaskuntza araupetzeko asmoz. Agindu honetan ere, "integrazio" filosofia onartzen da inplizitoki; baina Aginduaren helburu nagusia, Hezkuntza Bereziaren Araudi bat lortzea da. Alegia, "haur berezien sailkapena", "haur hauen eskolaratze desberdinak", "H. Bereziaren organigrama", ...

Lerro hauen bitartez aipaturikoaz gain, inork informazioa gehitu nahi badu, jo beza: izendatutako Aldizkari ofizialetara eta "Kimu" aldizkarira (Iraila-Urria alea).

Eskola Publikoetarako irakasle hautatze-saioak (Oposizioak)... Eskabideak egiteko epea bukatuta egon arren, oposizio hauen berri eman nahi genizuen, euskeraren etorkizunerako garrantzizkoak izan litezkelakoan. 162 irakasle postu sortzen dira euskeraz irakasteko Agindu Ofizial honen bitartez, 1982-X-6an argitaratua E.H.A.ren Aldizkarian.

Ikastolen Estatutoa... Eusko Parlamentuan, aurtengo Urriak Iean sarrera eman zitzaion aspaldidanik itxaroten ari gatzaizkion Estatutoari. Beronen kopiak Ikastola guztietan zabaldu dira. Kopiarik ez baduzu, irakurle, eska ezazu zeure Ikastolan. Espaziorik eza dela eta, ezinezkoa zaigu Estatuto honen adierazpena egitea; bestalde, egunotan eta ondorengoetan maiz mintzatuko zaizkigu egunkariak, politikariak, ... Gauden adi, beraz.

Hauteskunde Sindikalak... Bi urtetik behin egiten dira, eta aurten horretan dihardute. Ikastola zenbaitetan eginak dira; beste batzutan, berriz, egin gabe eta egiteko asmorik ez. Hauteskunde garai honetan, Ikastolen Estatutoa dela eta, ikastola zenbaitetako irakasleak mugitzen hasiak dira eta hainbat bilera egin dute. Berauetan konklusio honetara iritsi omen dira: hauteskundeak potentziatu behar direla ikastola guztietan, irakasleen ordezkariak aukeratuz.



Ordezkariorik, hilean 15 ordu libre omen dauzkate lan sindikalak gauzatzeko, eta ondorioz ordu hauetatik Ikastolen Estatutoaren azterketa eta kritika egiteko hainbat ordu erabil dezakete. Gisa honetaz, irakasle eskubideak onbideratzeko erakuntza iraunkorraren oinarriak jar litezke. Albistea iritsi zaigun bezala jakin arazten dizuegu, eta baliagarria gerta dakizuelakoan... animo!

OHOeko Programa Berrituak... Azaroak 12an, Ministroen Kontseiluak, OHOeko Goi Zikloaren gutxienezko helburuak araupetuko dituen Errege Dekretua onetsi zuen. Erabaki honen bitartez, OHO osoaren irakaskuntza, berriturik gelditzen da. ISILIK 1 aleak argia ikusi duenerako, BOEn azaldurik egongo da.

Erdimailako Irakaskuntza... 1981eko Uztailan, Espainiko Hezkuntza Ministeritzak, kontsulta bat egiteari ekin zion Instituto eta Eskola Profesionaletan, Erdimailako Irakaskuntzaren egoera zela eta. Horretarako, "Reforma de las Enseñanzas Medias" liburua argitaratu zuen. Oraingo honetan, kontsulta hauek egin ondoren, bildutako datu guztiekin liburu berdinarekin bigarren zatia plazaratu du: "Las enseñanzas medias en España". (Resultados de la consulta) izenburuz. Maila horietan, bereziki, ari den Irakaslegoari interesgarria dakioken liburua, beraz.

Nola egin ebaluaketa, erdiko zikloan (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

Eskolaurre eta hasera zikloko ebaluaketaren jarraipen gisa O.H.O.eko erdi zikloko ebaluaketarako erabaki bat argitaratu du Hezkuntza Sailak. Bertan erabiltzen diren erizpideak, eta eskola aurrean eta hasera zikloan erabiltzen zirenak antzekoak dira. Erabaki honek, aurtengo ikasturterako indarra du.



Orain dela egun gutxi batzuk, Eusko Jaurlaritzatik txosten bat heldu zaigu. Bertan, euskararen gaitasuna adieraziko duen titulu "berriaz" informazioa datorkigu. Hemen jartzen dugun hau txosten horren laburpena litzateke, hau da, zer baldintza bete behar diren titulu hori lortzeko, eta zer aldaketa somatzen diren lehengo "D" tituluz konparatuz.

Dena dela, eta guzti honetaz zehaztasun gehiago izateko, dei ezazue A.E.K.ra edo Eusko Jaurlaritzako Euskara Zerbitzura.

"Jende asko "D" tituluaren geroaz kezkatuta dago. Hori dela eta, prestatu dugun informazio-txosten labur bat bidaltzen dizuegu"

Eusko Jaurlaritzako Euskara Zerbitzua

Euskaltzaindiak ez du Autonomi Lurraldeko hiru probintzietan emango titulurik 1982tik aurrera. Eta Hezkuntza Sailak Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) eratuko zuela agindu zuen.

Agiri hau Autonomi Lurraldeko gaurko egoerari moldatuz gain, Hezkuntza Sailko Euskara Zerbitzuak alderdi akademikoa ere egokitu nahi izan du. Hori dela eta EGAK zera adieraziko du: Kasuan kasuko agiridunak euskara behar adinbateko trebetasunez erabiltzen dakiela, **ahoz eta idatziz**. Beraz, agiri honek hizkuntz gaitasuna besterik ez du neurtzen. Esate baterako, irakaskuntzarako gaitasuna beste bide batez neurtzekoa da. EGA eskuratu izan dezan edonork bere hizkuntz trebetasuna frogatu beharko du ulermen, mintzamen, irakurmen eta idazmen mailan nagusiki: EGA ez da bereziki irakasle gaitasuna aitortzen duen titulazio akademikoa.

Hemendik aurrera, pertsonaren euskararen gaitasun orokorra soilik neurtzea badugu eginkizun, azterketa horretara egokitu behar dugu. Berziki, edukin kultural direlakoei dagokienez, hau da, historia, geografia eta literaturari ezin zaie kokagunerik topatu azterketa honetan, eta baztertu egin dira.

EGArako erabiliko diren azterketak nolabait behin behinekoak dira. Behin betirako erabakia datu ugari jaso ondoren hartu beharko da.

Urte askotan, eta lingustika estukturalaren eraginez, azterketariak hizkuntzaren soinuak, egiturak eta hitzak noraino

ezagutzen dituen puntuz puntu eta banan banan neurtzea zela biderik hoberena pentsatu izan da. Ikuspegi horri jarraiki, euskararen irakasleek deklinabidea, (Hutsuneak bete: bi lagun... joan nintzen taberna...) aditz jokoa, (Idem: atzo nere aitak dirua eman ba..., zinera joateko aukera izan...) eta egiturak (Euskaratu ondoko esaldi hau: no sé a que hora vendrá) aztertean jarri dute arreta berezia, eta zer esanik ez, puntu horiek menderatzea noraezekoa da euskalduna benetan izateko. Euskaldun zaharren kasuan, gai arruntak ez direnak eta berbaldi erregistro ezberdinak menderatzen ikasi behar dute bereziki. Euskaldunberrienean, aldiz, ikasitakoa eguneroko bizitzan erabiltzen jakin behar dute, klaseko lasaitasunik gabe.

Bestalde, eskatzen den trebetasun hori ezin da gramatika formalaren (hots, azalpen teorikoen eta "zuhaitz" famatuena) bidez neurtu, horrek ematen duen ikuspegia zenbait ikasleri ikasbide lagungarri gertatzen bazaio ere. Hona hemen azpiko arrazoinamendua: kontulariari ez diogu matematika ezagupen berezirik eskatuko, aritmetika ez bada. Era berean, hiztun trebea izateko, analisi formala egiten jakitea ez da beharrezko.

Era berean, hizkuntzalaririk onena ez da nahitanahiez hiztun trebea izango. Ideia hauek oinarritzat hartuz osatu da azterketa. (Ariketa konkretuak ezagutzeko, ikus "EGA: Programa" liburuskaren azken atala.

Xixa Gardner

* TXOSTEN HAU LABURTU BEHARRA IZAN DUGU LEKU FALTAGATIK.



PEDAGOJIJAJAJAJA

Eskolako mutil atzeratuena Kepa da, batez ere geografian.

- *Zer da hau? —Galdetzen dio maisuak mapa gainean hatza ipiniaz.*
- *Hori, hazazkal zikin bat. —Dio mutilak.*

Aitak eskolatik negarrez zetorren semeari:

- *Zer gertatu zaik Pello?*
- *Maisuak jo egin nau, Brasil non dagoen ez nekielako.*
- *Ondo egin dik. Hurrengoan hobeto begiratu gauzak non uzten dituan.*

HAURRA NOLA HEZI

Haurrari gehiegi eskatzen baldin bazaio, bere nortasuna ito eta desegiteko arriskua dago. Haur kezkatu eta beldurtu askoren artean, gehiegi eskatu izanaren gaitza nabarmena izan daiteke. Estuegi hartuz gero, bere buruarekiko ustea eta segurantzia galtzeko arriskua datorkio haurrari. Uste eta segurantzi hori, berriz, behar-beharrezko du haurrak autodisziplina bat lortu eta nortasun jator bat izateko.

HARPIDETZA

Izen deiturak

Helbidea

Herria Tif

Adina Lanbidea

Ordainketa era: Banketxe edo Aurrezki Kutxa bitartez


Kontu Korrontearen zenbakia

Sukurtsala (Ordezkaritza)

- Aleka ordaindu nahi dut. Urtekoa ordaindu nahi dut.

Eguna

(Sinadura)



ISILIK

Plaza Amezqueta, 12 - 8.a F
DONOSTIA



erein

AZKEN MATERIALEA ESKOLETARAKO

Eskolaurrea: TXALO PIN TXALO: Haurrek euskara ikas dezaten moldaturiko metodo audiobisuala. Hiru ikasturte dira eta ikasturte bakoitza honako hauez osaturik dago: haurarentzat ipuin liburua, gida didaktikoa irakaslearentzat, kasetta bat metodoari egokituriko abestiez osatua eta diapositibak.

OHOeko Hasiera zikloa: TIPITAKI: B ereduari euskaraz dagozkion gaiak globalizatzen dira langintza honetan.

OHOeko erdi eta goi zikloa, BUP eta COU: EUSKAL HERRIKO ATLASA. Euskaraz eta erderaz.

Irakurgaiak euskaraz (7-10 urte):

LOTARA JOATEKO IPUINAK. Asun Balzola, Elena González, etabar.

AINARA ETA HODEITXOA. Asun Balzola eta Ion Zabaleta.

ANTONINO APRETA. Bernardo Atxaga eta Ion Zabaleta.

ERNIOKO ZIRIPOT. Asentxio Hondarzabal eta Antton Olariaga.

CHUCK ARANBERRI DENTISTA BATEN ETXEAN. Bernardo Atxaga eta Juan Karlos Eguillor.



EREIN. Catalina de Erauso 18. DONOSTIA. Tel. 46 72 60.



MAVRRIDE

didó

FELIPE IV. 13
TELEF. 45 88 02



Iarratxo, 20 - tel. 390019 - donostia

Zure zerbitzuan dagoen kirol denda. Ikastola, Ikastetxe, Elkarte eta edonorako jazki egokiak aurkituko dituzu Uralden. Ikustalditxo bat espero dugu.

